



AIARAKO UDALAK 2020KO MAIATZAREN 21EAN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

PRESIDENTEA

Gentza Alamillo Udaeta jauna

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo Vadillo jauna

Montse Angulo Solloa andrea

Susana Martín Benavides andrea

José Antonio Bartolomé Pesquera jauna

Itxaso Gorbeña Allende andrea

Karmele Población Martínez andrea

Marian Mendiguren Mendibil andrea

Iratxe Parro Uzquiano andrea

Arespalditzan, bi mila eta hogeiko maiatzaren hogeita bateko zazpiak eta zazpi minutu direlarik, Udaleko Osoko Bilkuraren ohiko saioari eman zaio hasiera, modu telematikoan, zeina Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46.b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin iragarri baiten. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da presidentea, eta aurretik aipatutako zinegotziak bertaratu dira. M^a Del Carmen Rojo Pitillas andrea da idazkaria.

EZ DIRA BERTARATU:

Unai Campo Arenaza jauna

José Antonio Gorbea Alonso jauna

IDAZKARIA:

M^a Del Carmen Rojo Pitillas andrea

Alkate jaunak ongietorria eman die guztiei, eta, iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote.



1.- Onestea, bidezkoa bada, 2020ko otsailaren 20ko ohiko osoko bilkuraren akta eta 2020ko martxoaren 10eko ezohiko osoko bilkuraren akta.- Ez denez esku-hartzerik egon, aho batez onetsi dira aipatutako aktak.

2.- EH Bildu udal-taldeak aurkeztutako mozioa, “Rural Harrotasuna- Rural Pride – Orgullo rural” delakoari buruzkoa.- Jarraian, Udaltzari EH BILDU udal-taldearen mozioaren kontu eman zaio, zeinak honako hau dioen hitzez hitz:

“EH BILDU UDAL-TALDEAREN MOZIOA

RURAL HARROTASUNA – RURAL PRIDE – ORGULLO RURAL

Gure herri askotako biztanleria eskas eta geroz eta zaharragoak agerian uzten du gure landa-ingurunearen benetako arazoa: egitura-krisia, zeinak, azken hamarkadetan luzatu ondoren, lurraldea bideraezin bihurtzeko mehatxua erakusten duen, termino sozial, ekonomiko eta demografikoetan.

Ekintza politikoak bat etorri behar dira landa-inguruneak balio erantsia sortzeko eta kalitatezko enplegua sortzeko jarduera ekonomikoak jasotzeko dituen zailtasunak gainditzearekin, herritarren oraingo konpuruak mantentzeaz gain, gehiago erakartzeko, landa-ingurunea desnaturalizatu gabe.

Hiriaren eta landaren arteko distantzia ez da geografikoa, demografikoa baizik, eta argi dago “ikusten ez dena ez dela existitzen”: horrek modu nabarian eragiten dio gure landa-inguruneari. Ez bagara gai egoera hori zuzentzeko, hiri- eta landa-inguruneen arteko desoreka handitzen joango da muturrera arte, eta Arabako lurraldeak landa-ingurunearekin lotutako gizarte-, kultura-, ekonomia- eta ingurumen-balioen zati garrantzitsu bat galduko du.

Konponbideen aukera zabalaren barruan, ezinbestekoa da horiek landa-ingurunera egokitutako testuinguru batean gauzatzea, eta ez soilik hiriko sozio-ekonomiaren irudira. Beraz, funtsezkotzat jotzen dugu estrategia hauek garatzea:

- *Teknologia.*
- *Zerbitzuak. Osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak eta mendekotasuna, administrazio- eta finantza-zerbitzuak, mugikortasun-zerbitzuak, aisia, merkataritza eta mota guztietako hornidurak.*
- *Azpiegiturak.*



- *Jarduera ekonomikoa eta enplegu jasangarria.*
- *Fiskalitatea.*
- *Etxebizitza.*
- *Subsidiarotasun-printzipioa.*
- *Arabako tokiko sistemaren finantza-sustapena eta -nahikotasuna.*
- *Landa-kultura eta -identitatearen babesa.*

Lurralde-oreka eta -kohesioa lortzeko, beharrezkoa da erakunde eskudunek parte hartzea, baina baita herritar guztiak konbentzitzea ere, ekintza eta politika egokien bidez.

Horregatik guztiagatik, Aiarako Udalak honako mozio hau aurkezten du osoko bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko:

1.- Aiarako Udalak gure lurraldean egitura-krisia dagoela onartzen du, zeinak termino sozial, ekonomiko eta demografikoetan atzeraezin bihurtzeko mehatxatzen duen.

2.- Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio lehentasunezkoztat jotzeko herritarrek Arabako landa-eremuan mantendu eta sustatzeko beharrezko ekintzak.

3.- Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio gure landa-eremua mantendu eta sustatzea eta gure lurraldearen barruan duen garrantzia azpimarratzea ahalbidetuko duten politikak garatzeko.

4.- Aiarako Udalak Arabako Batzar Nagusiei eskatzen die Arabako landa-eremua Arabako lurraldeko gizarte-, kultura-, ekonomia- eta ingurumen-balioak mantentzeko funtsezko elementu izendatzeko.

5.- Mozio hau Arabako Foru Aldundiari, Arabako Batzar Nagusiei eta Aiarako Administrazio Batzarrei bidaliko zaie.”.-

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du Arabako Foru Aldundiari zuzendutako mozioa dela, finantza-tutoretza duen erakundea delako. Adierazi du onartu behar dela egitura-krisia dagoela Araban, eta Arabako landa-eremuak sustatzeko politikak garatzeko eskatu behar dela. Garapen teknologikoa, zerbitzu propioak, azpiegiturak eta fiskalitate berri bat indartu behar dira, landa-ingurunearen garapena indartzeko.



Iratxe Parro Uzquiano andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza, eta adierazi du abstenitu egingo dela bi mozioetan. Horrez gain, esan du bere esku-hartzeak gai-zerrendako bi puntuentzat balio duela; izan ere, jorratu diren gaien garrantziaz jabetu arren, bateratuta egitea gustatuko litzaioke, Administrazio Batzarren parte-hartzearekin.

Karmele Población Martínez andreak (EH BILDU) uste du bi mozioak oso desberdinak direla; haiek uste dute egitura-arazoa dela, eta EAJ-PNV udal-taldeak ez du zehaztapenik egin bere zuzenketan; beraz, zaila ikusten du adostasun batera heltzea.

Iratxe Parro Uzquiano andreak (AIARA BATUZ) adierazi du nahiz eta ikuspuntua ezberdina izan funtsean Arabako landa-eremua defendatzen dela, eta, horregatik, uste du mozio bateratu bat aurkeztu ahal zela.

Esku-hartzeak amaitu ondoren, EAJ-PNV udal-taldeko kideen aurkako botoarekin, EH BILDU udal-taldeko kideen aldeko botoarekin eta AIARA-BATUZ udal-taldearen abstentzioarekin erabaki da EH BILDU udal-taldearen mozioa ukatzea, landa-harrotasunari buruzkoa.

3.- EAJ-PNV udal-taldeak EH Bilduk aurkeztutako mozioari (“Rural Harrotasuna- Rural Pride – Orgullo rural”) egindako zuzenketa.- Jarraian, EH-Bildu udal-taldeak aurkeztutako “Rural Harrotasuna- Rural Pride – Orgullo rural” mozioari EAJ-PNV udal-taldeak egindako zuzenketaren kontu eman zaio Udalbatzari. Zuzenketak honako hau dio hitzez hitz:

**“EAJ-PNV-REN ZUZENKETA EH BILDU-K AURKEZTUTAKO MOZIOARI,
LANDA-HARROTASUNARI BURUZKOA**

Landa-garapeneko politika guztion artean garatu behar den politika da, eta gizarte osoak gai horretan parte hartzeko landu behar da, adierazpen hanpatuetatik haratago. Landa-garapen onaren, landa-munduak garapen ekonomikoa izateko aukeraren eta jendeak bertan bizitzeko aukeraren mende dago, neurri handi batean, lurralde okupatu eta orekatua izatea.

Landa-mundua garatzeak esanahi asko ditu, zerbitzu eta enpresak hornitzetik hiri-inguruneetatik garapen ekonomikoan parte hartzera arte, herrietara bertaratuz hornidurak erosteko edo hirietan erositik.

Beste motatako egiturak hornitzea lagungarria izango litzateke gure herriak garatzeko, erakundeen, elkarteen edo eragile sozialen eredia deszentralizatuz, euren jarduera guztiak Gasteizen pilatzen baitituzte.



Horregatik guztiagatik, Aiarako Udaleko EAJ-PNV udal-taldeak zuzenketa hau aurkezten du osoko bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

1.- Aiarako Udalak badaki Araban gizarte-, lurralde- eta ekonomia-oreka handiagoa lortzeko erakundeek azken urteetan abian jarritako landa-garapenerako politikekin jarraitu behar dela; horretarako, erakunde guztien arteko koordinazioa behar da, ahalik eta eraginkortasunik handiena lortzeko.

2.- Aiarako Udalak onartzen du diagnostikoa Euskadiko erakunde publikoekin partekatzen duela; azken horiek, Leader bezalako programa espezifikoen, Feader edo Foru Planaren laguntzen, obra txikien eta bidezidorren eta gizarte-politiketako diferentziazio argi baten bidez, lanean ari dira lurralde-desoreka horri aurre egiteko.

3.- Aiarako Udalak ulertzen du landa-despopulatzearen aurkako borroka modu bateratuen jorratzeko modurik onena udalen eta gainerako erakundeen arteko lankidetzeta dela, landa-eremuan eskumenak dituztenak; horrela, beharrezkoa sektore-politikak indartuko lirateke eta biztanleria mantentzea edo haztea lortuko litzateke Arabako landa-eremuan.

4.- Aiarako Udalak Arabako gizarteari eskatzen dio, eta, bereziki, hiri-inguruetan bizi direnei, jarrera proaktiboarekin parte hartzeko landa-munduan; horrez gain, eskatzen die Arabako landa-eremua lurraldeko gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-balioei eusteko funtsezko elementutzat jotzeko, biztanleria-, lurralde, eta ekonomia-oreka handiagoa lortzeko Arabako Lurralde Historikoan.

5.- Aiarako Udalak Arabako Batzar Nagusietan ordezkari-tza duten talde politikoei eskatzen die Batzar Nagusien Foru Araua aldatzeko, 7 kuadrillen ordezkarien presentzia bermatzeko”.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza, eta adierazi du garapenaz eta lurralde-orekaz mintzatzean, zerbitzuak sustatu behar direla, azpiegitura handiak sortu beharrean. Leader programaren, Foru Planaren, obra txikien eta bidezidorren helburua da landa-eremuetako bizi-kalitatea hobetzea.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andrea (AIARA BATUZ), aurreko puntuko esku-hartzean adierazi duen moduan, abstenitu egingo da bi mozioetan; izan ere, jorratu diren gaien garrantziaz jabetu arren, bateratuta egitea gustatuko litzaioke, Administrazio Batzarren parte-hartzearekin.



Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du EAJ-PNV udal-taldearen zuzenketan ez dela ulertzen zertaz mintzo diren, zehaztasunik eza dagoelako; gainera, haiek uste dute landa-garapenerako politika aldatu behar dela, eta jendearekin batera ikusi zer egin daiteken hori hobetzeko.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du ez direla ahaztu behar Administrazio Batzarrak.

Esku-hartzeak amaitu ondoren, EAJ-PNV udal-taldeko kideen aldeko botoarekin, EH BILDU udal-taldeko kideen aurkako botoarekin eta AIARA-BATUZ udal-taldearen abstentzioarekin erabaki da EH Bildu udal-taldeak aurkeztutako mozioari, landa-harrotasunari buruzkoa, EAJ-PNV udal-taldeak egindako zuzenketa onestea.

4.- Aiarako Udalaren eta buru gaixotasuna duten pertsonen eta senideen Aiarako elkartearen (ASASAM) arteko lankidetzaren hitzarmena, 2020. urtea.- Jarraian, Udaltzari Aiarako Udalaren eta buru gaixotasuna duten pertsonen eta senideen Aiarako elkartearen (ASASAM) arteko lankidetzaren hitzarmenarekin (2020. urtea) lotutako akordio-proposamenaren kontu emango zaio. Honako hau dio, hitzez hitz:

“AKORDIO-PROPOSAMENA

IKUSI DA.- *Asasam irabazi-asmorik gabeko elkarteak Aiarako eskualdean egin duen lana sustatzeko eta harekin lankidetzan aritzeko udal-interesa. Lan hori, gainera, onuragarria da udalerriko hainbat pertsonentzat.*

IKUSI DA.- *Aiarako Udalaren eta ASASAM elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmenerako proposamena, elkartearen jarduerak 2020an izango dituen gastuen zati bat diruz laguntzeko.*

AINTZAT HARTU DA.- *Badagoela kreditua 2019rako udal-aurrekontuan hitzarmenak ekarriko dituen gastuak finantzatzeko (luzatua izan da 2020rako).*

Udaltzaren Osoak honako AKORDIO hau hartzea proposatzen da:

Lehenengoa.- *Aiarako Udalaren eta buru gaixotasuna duten pertsonen eta senideen Aiarako elkartearen (ASASAM) arteko lankidetzaren hitzarmena onestea, 2020ko jarduerako gastuak ordaintzeko. Honela dio testuak:*



**“AIARAKO UDALAREN ETA BURU GAIXOTASUNA DUTEN PERTSONEN ETA SENIDEEN
AIARAKO ELKARTEAREN (ASASAM) ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA. 2020.
URTEA.**

Arespalditzan, 2020ko martxoaren (e)(a)n.

BILDU DIRA

Alde batetik, *Gentza ALAMILLO UDAETA* jauna, Aiarako Udaleko alkate-presidentea, Aiarako Udaleko idazkari andrearekin batera.

Bestetik, _____ jaun/andrea, _____ adinez nagusia eta _____ NAN-zenbakiaren titularra, buru gaixotasuna duten pertsonen eta senideen Aiarako elkartearen (aurrerantzean Asasam) presidentea.

ESKU HARTU DUTE

Lehenak, Aiarako Udaleko alkate-presidente moduan, toki-erakunde horren izen eta ordezkaritza, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorri.

Bigarrenak, ASASAM elkartearen (IFK: G01048594) izen eta ordezkaritza, eta atxiki den ziurtagiriaren bidez egiaztatu ditu nortasuna eta ordezkaritza.

Bi alderdiek erabateko gaitasun juridikoa eta lankidetzaz hitzarmen hau betetzeko gaitasuna aitortu diote elkarri. Horrekin bat etorri, honakoa

XEDATZEN DUTE

I.- ASASAM elkarte irabazi-asmorik gabeko elkarte dela, eta buru gaixotasuna duten pertsonen eta senideen osatzen dutela. Elkartearen helburua arreta integrala eskaintzea da gaixotasun mentalak dituzten pertsonen kolektiboari, eta, horretarako, hainbat programa eta proiektu garatuko dituzte urtean zehar:



- *Gizarte-ekintzarako programa.*
- *Esku-hartze psiko-hezitzaileko programa.*
- *Zentro psikosoziala.*
- *Egoitza-programa.*
- *Gizarte- eta lan-integrazioarako programa.*
- *Orientazioa eta laguntza psikologikoa.*
- *Esku-hartze komunitarioarako programa.*

II.- *Aiarako Udalak, ASASAM elkarteak eskualdean egiten duen gizarte-lana aintzat hartuta, eta kontuan hartuta lan hori onuragarria dela Aiarako udalerriko hainbat pertsonentzat, jardueraren alde egitea erabaki du, besteak beste, lankidetzeta-hitzarmen honen bidez, zeinak urtero elkarteari emango zaion dirulaguntza arautzen duen. Laguntza horrekin, elkarteak hainbat jarduera antolatu ahal izango ditu urtean zehar.*

III.- *Aplikagarria den legedia betez eta toki-erakundeek lankidetzeta-hitzarmenak sinatzeko duten ahalmenari erantzunez, bi alderdiek lankidetzeta-hitzarmen hau formalizatzen dute, eta honako estipulazio hauek betetzeko konpromisoa hartzen dute:*

HITZARMENAK

LEHENENGOA.- *Aiarako Udalak hitzarmenari begira duen xedea ASASAM elkarteak 2020an zehar garatuko dituen ekimen eta jarduerak sustatzea da, pertsona-kolektibo horren garapenaren eta integrazioaren alde egiten baitute. Hitzarmen honen kargura diruz lagunduko diren jarduerak “I. azalpen-atalean” jasotakoak izango dira.*

BIGARRENA.- *Aiarako Udalak sustatuko dituen jardueren edukia ASASAM elkarteak burututako eta aurreko atalean deskribatutako jarduerak dakartzaten gastuen dirulaguntzan zehazten da.*

HIRUGARRENA.- *Administrazio horrek jarduerak sustatzeko ordainduko duen dirulaguntza aurretik deskribatutako jardueren gastuei aurre egiteko erabiliko da.*

Dirulaguntza jardueretatik eratorritako gastuen arabera kalkulatu da, ASASAM elkarteak beste dirulaguntza batzuei esker lortutako diru-sarrerak kendu ondoren.



Udalak 2020ko ekitaldian zehar hitzarmen honi dagokion ordainduko duen dirulaguntza **BOSTEHUN EUROKOA** (500) izango da gehienez.

LAUGARRENA.- Urteko udal-dirulaguntzaren zenbatekoa **JUSTIFIKATZEKO** (gehienez 500 euro), jarraian zerrendatzen den dokumentazioa aurkeztuko da:

a) Jasotako dirulaguntza guztien aitortzea, bai publikoak eta bai pribatuak, diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko eskuratutakoak.

b) Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zorrak ordaindu direla dioen ziurtagiria.

c) Jarduerari buruzko honako dokumentu hauek:

- Diruz lagundutako ekitaldiaren diru-sarrera eta gastuen balantzea.
- Diruz lagundutako ekitaldiaren jarduera-memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta horiek egin izanaren zinpeko adierazpena).
- Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (jardueren gastua + funtzionamendu-gastua), diru-sarrera eta gastuekin, dagozkien fakturak eta ordainketa-dokumentuak aurkeztuz.

Lehen estipulazioan jasotako baldintzak urratuz gero, ez da dirulaguntza esleituko, eta hasiera emango zaio aurrez ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari.

2021eko urtarrilaren 31 baino lehen ez bada aurkeztu hitzarmen honen laugarren estipulazioan eskatutako justifikazioa, ez da dirulaguntza esleituko, eta hasiera emango zaio aurrez ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari.

Dirulaguntza hau **ez da bateragarria izango** Udalak urtero iragartzen dituen gainerako dirulaguntzekin.

BOSGARRENA.- Diruz lagunduko diren jardueren **exekuzio-epea** diruz lagunduko den urtearen denbora-mugetara egokituko da, hau da, 2020. urtera.



SEIGARRENA.- Honako hau izango da ordainketa-modua: Aiarako Udalak adostutako gehieneko dirulaguntzaren % 80 ordainduko du behin hitzarmena sinatutakoan. Gainerako % 20ari dagokionez, behin hitzarmenaren LAUGARREN klausulan jasotako dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da.

Aiarako Udalak eskatzea egokitzat jotzen duen informazioa eskatu ahal izango du edozein momentutan.

ZAZPIGARRENA.- ASASAM elkarteak Aiarako Udalarekiko lankidetzara islatu beharko du publizitate-ekintzetan.

ZORTZIGARRENA.- ASASAM elkarteak hitzarmen honetan zehaztutako betebeharrak urratzen baditu, dirulaguntzei buruzko indarreko araudian aurreikusitako erantzukizun- eta zehapen-erregimena aplikatuko da.

Adostutakoarekin konforme daudela adierazteko, bi alderdiek lankidetzara-hitzarmen honen bi kopiak sinatu dituzte, ezabaketarik eta zuzenketarik gabe, dokumentua osatzen duten 4 folioetan. Halaber, hura betetzeko konpromisoa hartu dute.

ALKATE-PRESIDENTEA,

ASASAM-EKO PRESIDENTEA,

Sin.- Gentza Alamillo Udaeta
jauna/andrea.-

Sin.-

IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILEA,

Sin.- M^a Del Carmen Rojo Pitillas

Alkateak eta idazkari eta kontu-hartzaileak elektronikoki sinatutako dokumentua”.



Bigarrena. - *Alkate-presidenteari hitzarmen hau sinatzeko eskumena ematea.*

Hirugarrena. - *ASASAM elkarteari akordio honen berri ematea, dagokion hitzarmena sinatu dezan.*

Arespalditzan.- ALKATEA.-Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua”.

Gizarte Osasuna, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adinekoei buruzko Informazio Batzordeak gai horren aldeko txostena egin zuen 2020ko martxoaren 10eko ohiko bilkuran.

Udalbatzak horren berri izan du, eta aho batez adostu du, ohiko botazioaren bidez, transkribatutako akordio-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

5.- Aiarako Udalaren eta Amukatu Elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, 2020. urtea. - Jarraian, Udalbatzari Aiarako Udalaren eta Amukatu Elkartearen arteko 2020ko lankidetzahitzarmenaren akordio-proposamenaren kontu eman zaio. Honako hau dio hitzez hitz:

“AKORDIO-PROPOSAMENA

IKUSI DA.- *Aiarako Udalak Amukatu Elkarteak landutako gizarte-jarduera babesteko duen interesa; elkartearen xedea da katuen kolonien egoera kontrolatu eta hobetzea Aiara udalerrian.*

IKUSI DA.- *Aipatutako elkarteak lankidetzazuzenean aritzen dela Laudioko eta Urduñako albaitaritza-zentroekin, katuen koloniak kudeatzeko proiektuan, eta, zehazki, esterilizazioak eta osasun eta higieinarekin lotutako beste jarduketak batzuk gauzatzeko.*

IKUSI DA.- *Aiarako Udalaren eta Amukatu Elkartearen 2020ko ekitaldirako lankidetzahitzarmenaren proposamena, katuen kolonien baldintza higieniko eta sanitarioak kontrolatu eta hobetzeko gizarte-lana sustatzeko Aiara udalerrian.*



Bi alderdiek erabateko gaitasun juridikoa eta lankidetzeta-hitzarmen hau betetzeko gaitasuna aitortu diote elkarri. Horrekin bat etorritz, honakoa

XEDATZEN DUTE

I. Kaleko katuak harrapatu, esterilizatu eta askatzeko Amukatu Elkarteak irabazi-asmorik gabeko elkarteak dela, eta haren xedea dela katuen kolonien egoera kontrolatu eta hobetzea Aiarako Haranean; horretarako, aplikagarria den legeria betez, honako jarduerak hauek jorratzen ditu oro har:

- .- Katuak harrapatu, esterilizatu eta askatu.*
- .- Kolonien saneamendu higieniko-sanitarioa.*
- .- Kolonien bizilekuak egokitzea.*
- .- Kolonien ongizaterako oinarritzko premiak asetzea.*

II.- Aiarako Udalak, Amukatu Elkarteak eskualdean egiten duen gizarte-lana aintzat hartuta, jardueraren alde egitea erabaki du, besteak beste, lankidetzeta-hitzarmen honen bidez, zeinak urtero elkarteari emango zaion dirulaguntza arautzen duen. Laguntza horrekin, katuen kaleko koloniak kontrolatu eta esterilizatzeko urteko plana garatuko da. Plan horrekin honako jarduketak hauek burutuko dira:

.- URTEKO PLANAREN PLANIFIKAZIOA.

Amukatu Elkarteak, udalerriko plano baten bidez, hasiera batean kolonia guztiak lokalizatuko ditu geografikoki, eta biztanleria gune edo auzotan banatuko du. Halaber, koloniako katu-kopuruaren gutxi gorabeherako kalkulua egingo du, eta haien biziraute-egoera baloratu du.

.- ANIMALIAK JASO, OPERATU ETA ZAINTZA.

Amukatu Elkarteak, Laudioko eta Urduñako albaitaritzak-zerentzuekin lankidetzan, katuen bilketa planifikatu eta garatuko du, eta, ondoren, aipatutako kliniketara eramango ditu. Behin zentroetara iristean, albaitari kolegiatuek katuen osasunaren balorazio orokorra egingo dute, eta, beharrezkoa bada, esterilizatu eta identifikatu egingo dituzte belarriko ebaki baten bidez, aurrerago ezagutu ahal izateko.



Amukatuko boluntarioek egingo dituzte animaliak jaso eta garraiatzeko lanak, albaitaritza-zentro lankideekin koordinatuta eta honako material hauek erabilia: tranpakaiolak, katuak eramateko kutxak, linternak, eskularruak, arropa egokia, botikina, prismetikoak, amu-janaria, mantak eta garraiatzeko ibilgailua. Katuen mantentzea eta tratamendua instalazio egokietan egingo da, albaitaritza-zentro lankideen ikuskaritzapean; ez da inoiz animalia-erabateko osasuna bermatzeko behar dena baino denbora gutxiago erabiliko. Ez dira inolaz ere gaixo egon arren beharrezko tratamenduekin egoera gaintitu dezaketen animaliak sakrifikatuko. Gainerako animaliak garbitu, tratatu eta esterilizatu egingo dira, operazioosteko teknikak erabilia eta ahalik eta errekupeazio azkarrenarekin.

Operatutako animaliak ezin badira adoptatu, belarriko marka ipiniko zaie anestesia baliatuta. Animalia horiei fitxa bat irekiko zaie euren identifikazio-zenbakiarekin eta xedekoloniaren izen eta kokapenarekin.

Ez badago konplikaziorik kirurgiaren ondoren, adoptatutako katuak izan ezik, ahalik eta azkarren askatu beharko dira harrapatu zituzten leku berdinean.

.- KOLONIEN EGOKITZAPENA ETA IKUSKARITZA.

Beharrezkoa bada, koloniaren kokalekua egokituko da, eta lanabesak, janari-hondarrak eta koloniaren mantentzearen ondorioz pertsonak edo animaliek sortutako zabor eta hondakinak kenduko dira. Beharrezkoa izanez gero, garbiketa higiene egokirako beharrei egokitutako produktu fitosanitarioen tratamendu batekin amaituko da.

Gune bat prestatuko da (alde zurretik adostua jabeen erkidegoekin eta Udalarekin) edontziak, askak eta babesleku egokiak (etxolak, toldoak) ipintzeko, katuek atsedena hartu dezaten eta eguraldi txarraren aurrean babestu daitezten.

.- PLANA JAKINARAZI ETA HEDATZEA.

Amukatu Elkarteak informazio-, sensibilizazio- eta hedapen-lanak egingo ditu hitzaldien eta informazio-hilabeteen bidez, hainbat materialekin batera, hala nola inprimakiak, informazio-oharrak eta kartelak, herritarrei une oro egingo diren lanen berri emateko. Ekintza horiek, batez ere, animaliak dituzten pertsonak informatu eta sensibilizatzeko erabiliko dira, elikaduraren, beste animalien aurreko jokabidearen eta ebatzi beharreko beste edozein arazoren inguruko informazioa emateko. Hitzarmen honen testuinguruan sortutako material



guztiek hitzarmen honetan jasotako lankidetzaren erreferentzia gehitu beharko dute. Halaber, Amukatu Elkarteak prestatutako material oro, hedatu aurretik, Udalaren zerbitzu teknikoen aurrean aurkeztu beharko da.

***III.-** Aplikagarria den legedia betez eta toki-erakundeek lankidetzeta-hitzarmenak sinatzeko duten ahalmenari erantzunez, bi alderdiek lankidetzeta-hitzarmen hau formalizatzen dute, eta honako estipulazio hauek betetzeko konpromisoa hartzen dute:*

HITZARMENAK

***LEHENENGOA.-** Aiarako Udalak hitzarmenari begira duen xedea Amukatu Elkarteak 2020an zehar garatuko dituen ekimen eta jarduerak sustatzea da, **KATUEN KOLONIEN KONTROLA ETA HOBEKUNTZA** jarduerari dagokionez.*

Jardueratik kanpo gelditzen dira partikularren eta jabeen esterilizazio-kontuen axolagabekeriaren ondorioz sortutako kumaldietako katuen kudeaketa eta bilketa.

***BIGARRENA.-** Aiarako Udalak sustatuko dituen jardueren edukia Amukatu Elkarteak 2020an burututako eta aurreko atalean deskribatutako jarduerak dakartzaten gastuen dirulaguntzan zehazten da.*

***HIRUGARRENA.-** Administrazio horrek aurretik aipatutako jarduerak sustatzeko ordainduko duen dirulaguntza jarduera horien gastuei aurre egiteko erabiliko da.*

*Udalak hitzarmenari begira ordainduko duen dirulaguntza **MILA EUROKOA (1.000)** izango da gehienez.*

***LAUGARRENA.-** Urteko udal-dirulaguntzaren zenbatekoa **JUSTIFIKATZEKO** (gehienez 1.000 euro), zenbateko horrekin lotutako dokumentazioa aurkeztuko da:*

- a) Jasotako dirulaguntza guztien aitortzea, bai publikoak eta bai pribatuak, diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko eskuratutakoak.*



b) *Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zorrak ordaindu direla dioen ziurtagiria, edo, halakorik eduki ezean, Udalak dagozkien organismoei informazio hori eskatu ahal izateko baimena.*

c) *Jarduerari buruzko honako dokumentu hauek:*

- *Diruz lagundutako ekitaldiaren diru-sarrera eta gastuen balantzea.*
- *Diruz lagundutako ekitaldiaren jarduera-memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta horiek egin izanaren zinpeko adierazpena). Gainera, egun existitzen diren katuen kolonien laburpen deskribatzailea eta haien bilakaera, gutxi gorabeherako animalien errolda eta haren bilakaera, egindako esterilizazio-kopurua eta hartutako neurrien eraginkortasunaren balorazioa ere gehituko dira.*
- *Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (jardueren gastua + funtzionamendu-gastua), diru-sarrera eta gastuekin, dagozkien fakturak eta ordainketa-dokumentuak aurkeztuz, Aiarako Udalak diruz lagundutako jarduerenak.*
- *Katuen esterilizazio- eta higienizazio-lanak egingo dituzten albaitaritza-zentroek igorritako fakturak. Faktura horiek egindako lanak jaso beharko dituzte modu xehatuan. Hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jarduerekin lotutako gainerako fakturak.*

Lehenengo estipulazioan jasotako baldintzak urratuz gero, ez da dirulaguntza esleituko, eta hasiera emango zaio aurrez ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari.

2021eko urtarrilaren 31 baino lehen baino lehen ez bada aurkeztu hitzarmen honen laugarren estipulazioan eskatutako justifikazioa, ez da dirulaguntza esleituko, eta hasiera emango zaio aurrez ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari.

Dirulaguntza hau bateragarria izango da Udalak urtero iragartzen dituen gainerako dirulaguntzekin; hala ere, elkarteak ezingo du gehiegizko finantzaketarik lortu hitzarmen honetan deskribatutako jardueretan.

BOSGARRENA.- *Diruz lagunduko diren jardueren exekuzio-epa diruz lagunduko den urtearen denbora-mugetara egokituko da, hau da, 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra.*



SEIGARRENA.- *Honako hau izango da ordainketa-modua: Aiarako Udalak adostutako gehieneko dirulaguntzaren % 80 ordainduko du behin hitzarmena sinatutakoan. Gainerako % 20ari dagokionez, behin hitzarmenaren LAUGARREN klausulan jasotako dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da.*

Aiarako Udalak egokia iruditzen zaion informazioa eskatu ahal izango du edozein momentutan.

ZAZPIGARRENA.- *Amukatu Elkarteak Aiarako Udalarekiko lankidetzat islatu beharko du publizitate-ekintzetan.*

ZORTZIGARRENA.- *Amukatu Elkarteak hitzarmen honetan zehaztutako betebeharrak urratzen baditu, dirulaguntzei buruzko indarreko araudian aurreikusitako erantzukizun- eta zehapen-erregimena aplikatuko da.*

Adostutakoarekin konforme daudela adierazteko, bi alderdiek lankidetzat-hitzarmen honen bi kopiak sinatu dituzte, ezabaketarik eta zuzenketarik gabe, dokumentua osatzen duten 5 folioetan. Halaber, hura betetzeko konpromisoa hartu dute, goiburukoan zehaztutako data eta lekuan.

ALKATE-UDALBURUA,

Nire aurrean, IDAZKARIA,

Sin.- Gentza Alamillo Udaeta

Sin.- M^a del Carmen Rojo Pitillas

AMUKATU ELKARTEKO PRESIDENTEA

Sin.- jaun/andrea.-

Alkateak eta idazkari eta kontu-hartzaileak elektronikoki sinatutako dokumentua”.

Bigarrena.- *Alkate-presidenteari hitzarmen hau sinatzeko eskumena ematea.*



Hirugarrena.- Amukatu Elkarteari akordio honen berri ematea, dagokion hitzarmena sinatu dezan.

Arespalditzan.- ALKATEA.-Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua”.

Gizarte Osasuna, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adinekoak Informazio Batzordeak gai horren aldeko txostena egin zuen 2020ko martxoaren 10eko ohiko bilkuran.

Udalbatzak horren berri izan du, eta aho batez adostu du, ohiko botazioaren bidez, transkribatutako akordio-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

6.- Aiarako Udalean hileta zibilak edo hildakoen omenaldiak baimendu eta ospatzea arautzen duen Ordenantzaren proposamena.- Jarraian, Udalbatzari Aiarako Udalen hileta zibilak eta hildakoen omenaldiak baimendu eta ospatzea arautzen duen Ordenantzari buruzko akordio-proposamenari kontu eman zaio. Honako hau dio hitzez hitz:

“OSOKO BILKURAKO AKORDIO-PROPOSAMENA

IKUSI DA.- Aiarako Udalak hileta zibilak eta hildakoen omenaldiak baimendu eta ospatzea arautzen duen Udal Ordenantzaren proposamena prestatu duela.

IKUSI DA Gizarte Osasuna, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adinekoak Informazio Batzordeak, 2020ko otsailaren 11ko bilkuran, gainerako udal-talde politikoei prestatutako Ordenantzaren proposamena helarazi ziela, eta epe bat eman ziela ekarpenak egiteko.

IKUSI DA 2020ko martxoaren 3an (sarrera-erregistroko zenbakia: 804), EH BILDUK aipatutako testurako ekarpenen idatzi bat aurkeztu zuela.



*Aurreko guztiagatik, Udalbatzaren Osoko Bilkurak honako **AKORDIO** hau hartzea proposatzen da:*

LEHENENGOA.- *Ekarpen hauek onartzea:*

- *Honako esaldi hau kentzea hitzaurretik: “...baita gure gizartean bizikidetzan dauden erlijioak ere, zeintzuek gure herrian bertan leku eta tenpluak dituzten euren hildakoak agurtzeko ekitaldi liturgikoak egiteko...”*

- *5. artikulua idazketa aldatzea, honela gera dadin:*

“Udalak lokala eskatu nahi duenaren esku jarriko du inprimaki normalizatu bat, zeinetan honako datu hauek jaso beharko diren:

a) Ospakizunaren baimena eskatzen duen pertsonaren izen-abizenak, helbidea eta identifikazioa. Izapideak arintze aldera, egokitze jotzen da telefono-zenbaki bat edo helbide elektronikoa ematea, nahiz eta informazio hori ez den nahitaezkoa.

b) Hildako pertsonaren izen-abizenak eta heriotza-ziurtagiria.

c) Eskeraren hileta edo omenaldi zibila egiteko lehentasuneko eguna, ordua eta lekua adierazi behar dira, 9. artikuluan ezarritako ordutegiarekin bat.

d) Oro har, hemen egingo dira ospakizun horiek:

— Aiarako Udalaren erabilera anitzeko aretoa.

e) Eskeraren data eta lekua.

f) Eskatzailearen sinadura edo bere borondatearen egiazkotasunaren egiaztapena, edozein baliabideren bidez.

g) Ekitaldiaren deskribapen laburra eta beharko den materiala (megafonia, aulkiak, etab.).

h) Ekitaldiaren gutxi gorabeherako iraupena (gehienez 1,5 ordu)”.

- *11. artikulutik esaldi hau kentzea: “armonia eta lekuaren ezaugarriak errespetatuz”*

Ekarpen hauek partzialki estimatzea:

- *4. artikulua idazketa aldatuko da, honela gera dadin:*



“ Hileta zibilak edo hildakoen omenaldiak egiteko eskaera pertsona eskudunari igorriko zaio ebatzi dezan, eta ekitaldia ospatzeko proposatutako eguna baino 48 ordu lehenagoko aurrerapenarekin egingo da, bulegoko ordutegian, astelehenetik ostiralera. Eskaerari eskabidea aurkeztu eta hurrengo 24 orduetako epearen barruan erantzungo zaio ”:

- *Honela geldituko litzateke idatzita 10. artikulua:*

“Lokalen kontserbazio egokia bermatzeko, ekitaldiko partaideek ez dute udal-instalazioak kaltetu ditzaketen ekintzarik egingo. Baimenaren titularra izango da ekitaldiaren ospakizunean udal-ondasunek jasandako kalte-galeren arduraduna. Ondore horietarako, eskatzaileak, eskaerarekin batera, fidantza bat ordainduko du eskudirutan, 100,00 eurokoa, zeina ekitaldia ospatu eta hurrengo egun baliiodunean itzuliko den, behin egiaztatzen denean lokala hasierako baldintza berdinetan dagoela.

Era berean, baimenaren titularra izango da pertsonen duintasunaren aurkako erasotzat jo daitezken ekintza edo iruzkinen arduraduna.

Ezingo dira inolaz ere adierazitako udal-lokaletan sartu baimendutako edukiera gainditzen duten pertsona-kopuruak.

Lagatako espazioaren ondoko instalazioen eguneroko jardueraren ohiko garapena bermatze aldera, ekitaldiko partaideek ez dute jarduera desatseginik egingo.

Ekarpen hauek baztertzea:

- *6. artikulua. Udalak inprimaki bat prestatzea alde batera utzita, interesdunak akatsak egin ditzake hura betetzerakoan, eta eskaera batean akatsak zuzentzeko aukerak administrazio prozeduraren araudiari erantzuten dio.*
- *7. artikulua. Udalak ez du beste lokalik; beraz, ezin du alternatibarik bermatu.*

BIGARRENA.- *Behin-behinean onestea Aiarako Udalean hileta zibilak edo hildakoen omenaldiak baimendu eta ospatzea arautzen duen Udal Ordenantza. Honako hau dio hitzez hitz:*

**AIARAKO UDALEAN HILETA ZIBILAK EDO HILDAKOEN OMENALDIAK
BAIMENDU ETA OSPATZEA ARAUTZEN DUEN UDAL-ORDENANTZA.**

HITZAURREA

Gizarteak dakien moduan, estatu akonfesional eta laiko batean, erakundeek pertsona eta komunitateen ideologia-, erlijio- eta gurtze-askatasuna bermatu behar dute, legeari



jarraikiz ordena publikoa mantentzeko beharrezkoa den mugekin. Halaber, jakina da gure gizartearen aniztasun ideologiko, erlijioso eta kulturala, plurala baita eta etengabeko eraldaketan baitago ohituren eta gizarte-ekintzen adierazpenari dagokionez.

Hileta zibilak edo hildakoen omenaldiak egitea hileta erlijiosoei alternatiba bat eskaintzeko beharretik sortzen da, ospakizun duin eta pertsonal baten bidez.

Udalaren nahia da geroz eta eskari handiagoa duen behar sozial bati erantzuna ematea.

Ordenantza honek, beraz, Aiarako gizarte zibila osatzen duten familia, lagun, erakunde eta elkarteek euren hildakoei omenaldi moduan eta agurtzeko, euren komunitateko ekarpenak eta balio etikoak edo humanoak aintzatesteko egin nahi dituzten ekitaldiak baimendu eta ospatzea arautu nahi du.

I. KAPITULUA. XEDEA

1. artikulua

Ordenantza honen xedea da udal-lokalen baimenak eta erabilera arautzea, Aiara udal-barrutian hileta zibilak edo hildakoen omenaldiak egiteko.

II. KAPITULUA. BAIMENA

2. artikulua

Alkatetzak edo eskuordetutako zinegotziak baimenduko du hileta zibilak edo hildakoen omenaldiak egiteko erreserbatutako espazioen erabilera, pertsona edo familiarrak aldeztu aurretik dokumentazioa aurkeztu ondoren Aiarako Udalaren Udala Erregistroan.

III. KAPITULUA. PROZEDURAREN HASIERA

3. artikulua



Hileta zibilak edo hildakoen omenaldiak egiteko eskaerak Aiarako Udalaren Alkatetzari bidaliko dizkiote, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean onartutako edozein moduetan.

4. artikulua

Hileta zibilak edo hildakoen omenaldiak egiteko eskaera pertsona eskudunari igorriko zaio ebatzi dezan, eta ekitaldia ospatzeko proposatutako eguna baino 48 ordu lehenagoko aurrerapenarekin egingo da, bulegoko ordutegian, astelehenetik ostiralera. Eskaerari eskabidea aurkeztu eta hurrengo 24 orduetako epearen barruan erantzungo zaio.

5. artikulua

Udalak lokala eskatu nahi duenaren esku jarriko du inprimaki normalizatu bat, zeinetan honako datu hauek jaso beharko diren:

a) Ospakizunaren baimena eskatzen duen pertsonaren izen-abizenak, helbidea eta identifikazioa. Izapideak arintze aldera, egokitzen jotzen da telefono-zenbaki bat edo helbide elektronikoa ematea, nahiz eta informazio hori ez den nahitaezkoa.

b) Hildako pertsonaren izen-abizenak eta heriotza-ziurtagiria.

c) Eskaeran hileta edo omenaldi zibila egiteko lehentasunezko eguna, ordua eta lekua adierazi behar dira, 9. artikuluan ezarritako ordutegiekin bat.

d) Hemen egingo dira ospakizun horiek:

— Aiarako Udalaren erabilera anitzeko aretoa.

e) Eskaeraren data eta lekua.



f) Eskatzailearen sinadura edo bere borondatearen egiazkotasunaren egiaztapena, edozein baliabideren bidez.

g) Ekitaldiaren deskribapen laburra eta beharko den materiala (megafonia, aulkiak, etab.).

h) Ekitaldiaren gutxi gorabeherako iraupena (gehienez 1,5 ordu).

6. artikulua

Eskaerak ez baditu betetzen aurreko artikuluan adierazitako baldintzak, interesdunari ahalik eta premia handiarekin eskatuko zaio akatsak zuzentzeko ekitaldia baino lehen, edota nahitaezko dokumentuak atxikitzeko.

V. KAPITULUA. PROZEDURAREN IZAPIDEAK

7. artikulua

Hileta zibilaren edo hildakoen omenaldiaren eguna eta ordua Alkatetzak edo eskuordetutako zinegotziak finkatuko ditu.

Izapideek eskaeren aurkezpen-ordenari jarraituko diote zorrozki, eta, halaber, ahal den neurrian, kontuan hartuko da eskatzaile bakoitzak adierazitako lehentasun-ordena. Ez da beharrezkoa izango eskaeren aurkezpen-ordenari jarraitzea baldin eta ezohiko eta premiazko beharraren inguruabar objektiboak badaude. Edonola ere, ezohiko eta premiazko behar hori behar bezala arrazoitu beharko da, eta eskubidea aldatu zaienei entzun beharko zaie.

Eguna eta ordua, ahal den neurrian, eskatzaile bakoitzak adierazitako lehentasun-ordenari jarraikiz finkatuko dira. Ez da beharrezkoa izango eskaeretan adierazitako ordutegiari jarraitzea baldin eta udal-instalazioen erabileratik eratorritako inguruabarrak badaude. Edonola ere, ebazpena behar bezala arrazoitu beharko da, eta eskatzaileei euren eskaera dela eta erabakitako aldaketen inguruan kontsultatu beharko zaie.

8. artikulua



Eskaera ikusita, alkateak edo eskuordetutako zinegotziak lokala erabiltzeko baimena emango du, posible bada

9. artikulua

Hileta zibilak edo hildakoen omenaldiak egunero egin ahalko dira irekiera-ordutegian, larunbatak eta igandeak barne, baliabide eta ordutegiak aukera ematen duten kasuetan, betiere lokala ez bada aldeztu aurretik erreserbatu beste erabilera baterako.

Oro har, hileta zibilak edo hildakoen omenaldiak egiteko ordutegia 17:00etatik 21:00etara bitartekoa izango da, lanegunetan, larunbatak izan ezik, eta 12:00etatik 14:00etarako larunbat, igande eta jaiegunetan, Alkatetzari ordutegia aldatzeko ematen zaion eskumenari kalterik egin gabe.

V. KAPITULUA. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

10. artikulua

Lokalaren kontserbazio egokia bermatzeko, ekitaldiko partaideek ez dute udal-instalazioak kaltetu ditzaketan ekintzarik egingo. Baimenaren titularra izango da ekitaldiaren ospakizunean udal-ondasunak jasandako kalte-galeren arduraduna. Ondore horietarako, eskatzaileak, eskaerarekin batera, fidantza bat ordainduko du eskudirutan, 100,00 eurokoa, zeina ekitaldia ospatu eta hurrengo egun baliodunean itzuliko den, behin egiaztatzen denean lokala hasierako baldintza berdinetan dagoela.

Era berean, baimenaren titularra izango da pertsonen duintasunaren aurkako erasotzat jo daitezkeen ekintza edo iruzkinen arduraduna.

Ezingo dira inolaz ere adierazitako udal-lokaletan sartu baimendutako edukiera gainditzen duten pertsona-kopuruak.

Lagatako espazioaren ondoko instalazioen eguneroko jardueraren ohiko garapena bermatze aldera, ekitaldiko partaideek ez dute jarduera desatseginik egingo.



11. artikulua

Familia eta lagunek udal-lokala modu berezian apaindu edo egokitu nahi badute, Udalari jakinarazi beharko diote bidezkoa dena ebazteko beharrezko aurrerapenarekin. Halaber, haien esku egongo dira horrek eragindako gastuak. Ekitaldia ospatzeko zerbitzu osagarriak interesdunaren esku egongo dira, eta hark ordaindu beharko ditu, Udalak horiek gainbegiratzeari kalterik egin gabe. Edonola ere, ekitaldia amaitzean, lokala hasierako egoera berdinean gelditu beharko da.

Eskatzaileak, halaber, udal-materialak erabili ahalko ditu (aulkiak, mahaiak, etab.), betiere beharrezko aurrerapenarekin eskatzen badira, eskuragarri badaude eta ez badira erabiliko beste ekitaldi edo ospakizun batean. Material hori udal-langileek ipini eta kenduko dute, eta, hala badagokio, eskatzailearen edo hark izendatutako pertsonaren laguntza izango dute.

12. artikulua

Ordenantza honetan aurreikusi ez denari dagokionez, udal-arduradunen jarraibideei jarraitu beharko zaie.

13. artikulua

Ezingo dira hileta zibilak edo hildakoen omenaldiak ospatu gorpua bertan dela. Baimentzen da errauts-kutxatilak eramatea ekitaldira.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Aiarako Udaleko Alkatetzari baimena ematen zaio Ordenantza hau aplikatzeko beharrezko jarduketak egiteko.

AZKEN XEDAPENA



Ordenantza hau testu osoa Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako epea igarotzen denean (70.2 artikuluari jarraikiz) sartuko da indarrean, eta indarrean egongo da aldatu edo espresuki indargabetzen duten arte”:

BIGARRENA.- 30 egun baliouduneko erakusketa publikoko epea zabaltzea, akordio hori Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO) argitaratzen denetik zenbatzen hasita; epe horretan edozein interesdunek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahalko dituzte, eta horiek, hala badagokio, Udalbatzak aztertuko ditu behin betiko onespenerako. Ez bada alegaziorik aurkezten behin-behineko onespenerari begira, behin betiko bihurtuko da hasierako onspena, eta testu osoa ALHAOn argitaratuko da.

HIRUGARRENA.- Akordio hau eta erregelamenduaren testu osoa ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Arespalditzan.- ALKATEA.-Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua”.

Gizarte Osasuna, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adinekoak Informazio Batzordeak gai horren aldeko txostena egin zuen 2020ko martxoaren 10eko ohiko bilkuran.

Marian Mendiguren Mendibil andreak (EH BILDU) hartu du hitza, eta gogorarazi du esan zela Administrazio Batzarrei helaraziko zitzaiea Ordenantzaren kopia bat, euren lurralde-eremuan antzeko erabaki bat hartu nahi izanez gero.

Udalbatzak horren berri izan du, eta aho batez adostu du, ohiko botazioaren bidez, transkribatutako akordio-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

7.- Aiarako Udalaren eta Valle de Llanteno arte-eskolaren arteko lankidetzahitzarmena, 2020. urtea.- Jarraian, Udalbatzari Aiarako Udalaren eta Valle de Llanteno arte-eskolaren arteko 2020ko lankidetzahitzarmenaren akordio-proposamenaren kontu eman zaio. Honako hau dio hitzez hitz:

“AKORDIO-PROPOSAMENA



Lehenak, Aiarako Udaleko alkate-presidente moduan, toki-erakunde horren izen eta ordezkartzan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritz.

Bigarrenak, VALLE DE LLANTENO kultura- eta arte-elkartearen (IFK: G-01103795) izen eta ordezkartzan, eta elkarteak igorritako ziurtagiriaren bidez egiaztatu ditu nortasuna eta ordezkartza, aktaren fotokopia aurkeztuta, non “VALLE DE LLANTENO” kultura- eta arte-elkartearen presidentea aukeratu eta izendatzen den.

Bi alderdiek erabateko gaitasun juridikoa eta lankidetzeta-hitzarmen hau betetzeko gaitasuna aitortu diote elkarri. Horrekin bat etorritz, honakoa

XEDATZEN DUTE

I.- Aiarako Udalak, kultura eta artearen eta haien erabilera sustatzeko udal-interes publikoari erantzunez, honako ekimen hauen bitartez jardungo du besteak beste:

- *Aisialdian, kultura-eskaintzan, herriko jaietan eta bestelako azoketan erabilera-aukerak sortuz.*
- *Kultura eta artea sustatzeko kanpaina eta jarduerak antolatuz.*
- *Egokitzat jotzen diren beste ekimen batzuen bidez.*

II.- Aiarako Udalak, udalerrian kultura eta artea sustatzeko helburuarekin, hitzarmen honen arabera jokatu du, zeinak “VALLE DE LLANTENO” kultura- eta arte-elkarteari urtero esleituko zaion dirulaguntza arautuko duen, marrazketa, pintura, zeramika eta egurra lantzearen jarduerak gauzatzeko. Halaber, diruz lagunduko da irakasleen eta ikastaroak emateko beharrezko materialen kostua.

III.- “VALLE DE LLANTENO KULTURA- ETA ARTE-ELKARTEA” elkarte irekia da bai Aiarako biztanleentzat eta bai udalerriko elkarteentzat, eta haren helburua kultura eta artearen sustapena eta erabilera soziala da.

IV.- Aplikagarria den legedia betez eta toki-erakundeek lankidetzeta-hitzarmenak sinatzeko duten ahalmenari erantzunez, bi alderdiek lankidetzeta-hitzarmen hau formalizatzen dute, eta honako estipulazio hauek betetzeko konpromisoa hartzen dute:

HITZARMENAK



LEHENENGOA.- Aiarako Udalaren hitzarmen honen xedea da artea eta kultura sustatzeko hainbat ekimen eta jardueraren alde egitea, “VALLE DE LLANTENO” kultura- eta arte-elkartearrekiko lankidetzan eta koordinazioaren bitartez.

Horretarako, “VALLE DE LLANTENO” kultura- eta arte-elkarteak honako jarduketa hauekin lankidetzan aritzeko betebeharra du Aiara udalerrian:

- San Prudentzio jaietako portada-lehiaketan epaile moduan jardungo du.
- Epaile-lanak egingo ditu Aiara udalerrian ospatuko diren lehiaketa artistikoetan.
- Marrazketa, pintura, zeramika eta egurra lantzearen urteko ikastaroak antolatu eta aurrera eramango ditu.

BIGARRENA.- Aiarako Udalak aurrera eramango duen sustapen-jardueraren edukiak “VALLE DE LLANTENO” kultura- eta arte-elkartearen urteko jarduerak izango dituen gastuak diruz laguntzarekin du lotura, zehazki marrazketa, pintura, zeramika eta egurra lantzearen jardueretan.

HIRUGARRENA.- Administrazio honek jarduera sustatzera bideratuko duen dirulaguntzaren xedea izango da marrazketa, pintura, zeramika eta egurra lantzearen jardueren programa aurrera eramateak izango dituen gastuak ordaintzea, eta, zehazki, irakasleak kontratatze eta aurretik aipatutako jarduerak eskaintzeko beharrezko materialerako gastuak.

Dirulaguntza irakasleen kontratazioaren eta jarduerak eskaintzeko beharrezko materialaren gastuen arabera kalkulatu da, eta horiek behar bezala justifikatu beharko dira, elkarrekin jarduera bakoitzaren ikasle eta erabiltzaileen kuoten bidez lortutako diru-sarrerak eta kontzeptu horietarako lortutako beste dirulaguntzak kenduta, aintzat hartuta elkarrekin ezingo duela gehiegizko finantzaketa lortu aipatutako jardueretarako.

Udalak hitzarmenari begira ordainduko duen dirulaguntza LAU MILA EUROKOA (4.000,00) izango da gehienez.

LAUGARRENA.- Dirulaguntza esleitzeko, jarduera bakoitzari begira antolatutako ikastaroetako parte-hartzea bete beharko da, eta, horiek irauten duten bitartean (parte-hartzaile bakoitzak sinatutako zinpeko adierazpenaren bidez egiaztatuta beharko da), gutxienez ZORTZI pertsonen hartu beharko dute parte.



Ikastaroko parte-hartzailearen bat ez badago Aiarako Udalean erroldatuta, dirulaguntzak soilik udalerrian erroldatutako pertsonen zati proportzionala estaliko du.

Halaber, nahitaezkoa izango da elkarteak dirulaguntza guztiak eskatzea beste erakundeei (Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, etab.), baldin eta jarduera horiek finantza baditzakete.

BOSGARRENA.-Urteko udal-dirulaguntzaren zenbatekoa **JUSTIFIKATZEKO**, honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

a) *Jasotako dirulaguntza guztien aitorpena, bai publikoak eta bai pribatuak, diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko eskuratutakoak. Horrekin batera, diruz lagundutako jardueretan izena emateko ordaindutako kuoten aitorpena ere gehituko da.*

b) *Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zorrak ordaindu direla dioen ziurtagiria, edo, halakorik eduki ezean, Udalak dagozkien organismoen informazio hori eskatu ahal izateko baimena.*

c) *Marrazketa, pintura, zeramika eta egurra lantzearen ikastaroak eskaintzearekin lotutako dokumentazio hau:*

- *Diruz lagundutako ekitaldiko diru-sarreraren eta gastuen balantzea (erabiltzaileen kuotak eta organismo publiko eta pribatuaren eskutik jarduera horietarako lortutako dirulaguntzak diru-sarreretan gehituz).*
- *Diruz lagundutako ekitaldiaren jarduera-memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta horiek egin izanaren zinpeko adierazpena).*
- *Diruz lagundutako jardueretatik eratorritako gastu guztien justifikazio-dokumentuak:*

○ *Irakaslea kontratatzeko gastuak: Nominen eta Gizarte Segurantzaren kopia, dagozkien ordainketa-dokumentuak atxikiz, jardueretarako kontratatutako langileei dagozkien TC-1 eta TC-2 dokumentuen kopia eta dagozkien soldatak ordaindu izanaren egiaztagiria.*

○ *Material-gastuak: Material-gastu guztien justifikazio-faktura, behar bezala xehatuak jarduera bakoitzeko. Fakturen igorpenerako ezarritako lege-baldintza guztiak bete beharko dituzte. Transferentzia bidez egiten bada, ordainagiria atxiki beharko da, eta, eskudirutan ordainduz gero, faktura.*

- *Urte berrirako jarduera eta funtzionamenduaren gastu-aurreikuspenak, baita foru-dirulaguntzen eta, hala badagokio, urte horretarako beste balizko diru-*



sarreraren aurreikuspena, hurrengo urteko dirulaguntza kalkulatzeko, Udalak hori eskatzen badu hitzarmena luzatzea adostu duelako.

- *Hitzarmen honen xede diren jardueretako bakoitzean izena emandako pertsonen parte-hartze zerrenda, izena eta bi abizen, erroldatze-tokia, parte-hartzearen sinadura, telefono-zenbakia eta harremanetarako helbide elektronikoa adieraziz pertsona bakoitzeko.*

Lehen estipulazioan jasotako baldintzak urratuz gero, ez da dirulaguntza esleituko, eta hasiera emango zaio aurrez ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari.

*Urtarrila eta maiatza artean edo urria eta Abendua artean jarduera bakoitzean erroldatutako gutxieneko kopuruaren baldintza urratzen bada, dirulaguntza murriztuko da, eta urratutako jardueraren gastuen **zati proportzionala** kenduko zaio urraketaren hilabeteetan zehar.*

***2021eko urtarrilaren 31** baino lehen baino lehen ez bada aurkeztu hitzarmen honen bosgarren estipulazioan eskatutako justifikazioa, ez da dirulaguntza esleituko, eta hasiera emango zaio aurrez ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari.*

Dirulaguntza hau Udalak urtero iragartzen dituen gainerako dirulaguntzekin izango da bateragarria, kultura- eta kirol-taldeei zuzendutako dirulaguntzak arautzen dituzten ordenantzarekin eta oinarriekin bat, soilik beste diziplina artistiko edo jarduera batzuekin lotutako funtzionamendu-gastuentzat eskatzen badira, hitzarmen honen bidez diruz lagundutakoekin zerikusirik ez dutenak.

***SEIGARRENA.-** Diruz lagunduko diren jardueren exekuzio-epea diruz lagunduko den urtearen denbora-mugetara egokituko da, hau da, 2020. urtera.*

***ZAZPIGARRENA.-** Honako hau izango da ordainketa-modua: Aiarako Udalak adostutako gehieneko dirulaguntzaren % 80 ordainduko du behin hitzarmena sinatutakoan. Gainerako % 20ari dagokionez, behin hitzarmenaren **BOSGARREN** klausulan jasotako dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da.*

Aiarako Udalak egokia iruditzen zaion informazioa eskatu ahal izango du edozein momentutan.



ZORTZIGARRENA.- “VALLE DE LLANTENO” kultura- eta arte-elkarteak Aiarako Udalarekiko lankidetzara eta haren babesara islatu beharko dituzte publikitate-ekintzetan.

BEDERATZIGARRENA.- “VALLE DE LLANTENO” kultura- eta arte-elkarteak hitzarmen honetan zehaztutako betebeharrak urratzen baditu, dirulaguntzei buruzko indarreko araudian aurreikusitako erantzukizun- eta zehapen-erregimena aplikatuko da.

Bigarrena.- Alkate-presidenteari hitzarmen hau sinatzeko eskumena ematea.

Hirugarrena.- Valle de Llanteno kultura- eta arte-elkarteari akordio honen berri ematea, dagokion hitzarmena sinatu dezan.

Arespalditzan.- ALKATEA.-Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua”.

Kultura, Kirola eta Gazteria Informazio Batzordeak gai horren aldeko txostena egin zuen 2020ko martxoaren 10eko Osoko Bilkuran.

Udalbatzak horren berri izan du, eta aho batez adostu du, ohiko botazioaren bidez, transkribatutako akordio-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

8.- Laudio Ikastolak egindako dirulaguntza-eskaera.- Jarraian, Udalbatzari Laudioko ikastolak eskatutako dirulaguntzaren kontu eman zaio, maiatzaren 23an ospatuko den urteko jairako.

Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeak, 2020ko martxoaren 10eko ohiko bilkuran, dirulaguntza-eskaera honen aurkako txostena igortzea erabaki zuen, ez baitago xede horretarako aurrekontu-esleipenik; izan ere, Aiaran udalerriko ikastola laguntzen da diruz, zeina publikoa eta erreferentziakoa den.

Udalbatzak horren berri izan du, eta honakoa adostu du, aho batez, ohiko botazioan: Laudioko ikastolak maiatzaren 23ko urteko jairako eskatutako dirulaguntza ukatzea, azaldutako arrazoiengatik.



9.- Euskararen festak: 2020ko dirulaguntza-eskaera: Araba Euskaraz Elkartea.- Jarraian, Udalbatzari 2020ko euskara-festaren dirulaguntza-eskaeraren berri eman zaio, Araba Euskaraz Elkarreak aurkeztutakoa.

Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeak gai horren aldeko txostena egin zuen 2020ko martxoaren 10eko ohiko Osoko Bilkuran.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza, eta adierazi du Araba Euskaraz Elkarreak aurkeztutako eskaeraren aurka bozkatuko duela, euskara zentro publiko batean ikasteko aukerak kontuan hartuz, eta hori ez dator bat.

Udalbatzak horren berri izan du, eta EAJ-PNV eta EH BILDU udal-taldeen aldeko botoekin eta AIARA BATUZ udal-taldearen aurkako botoarekin honako hau erabaki du:

Lehenengoa.- ARABA EUSKARAZ ELKARTEARI (IFK: G-01400324) 300,00 euroko dirulaguntza zuzena esleitzea “Araba Euskaraz 2020” delakoa ospatzeko gastuak finantzatzeko.

Bigarrena.- Dagokion gastua onestea 2019tik 2020ra luzatutako aurrekontuaren 335.481.019 partidako karguarekin.

Hirugarrena.- ARABA EUSKARAZ ELKARTEARI jakinaraztea aipatutako dirulaguntza ordaintzeko justifikazio-dokumentazio hau aurkeztu beharko duela:

- Garatutako jardueraren memoria.
- Aipatutako jardueraren diru-sarrera eta gastu guztien justifikaziorako memoria ekonomikoa, beste erakunde edo organismo batzuen eskutik jasotako diru-sarrera eta dirulaguntzen zerrenda xehatuarekin batera.
- Justifikazio-fakturak eta ordainagiriak, Udalak ordaindutako zenbatekoaren berdinak edo handiagoak.

Dokumentazio hori 2020ko abenduaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da. Kontrako kasuan, dirulaguntza itzuliko da.

Laugarrena.- Erabaki hau erakunde eskatzaileari jakinaraztea.



10.- Euskararen festak: 2020ko dirulaguntza-eskaera: Nafarroa Oinez.- Jarraian, Udalbatzari 2020ko euskara-festaren dirulaguntza-eskaeraren berri eman zaio, Nafarroa Oinez elkarteak aurkeztutakoa.

Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeak gai horren aldeko txostena egin zuen 2020ko martxoaren 10eko ohiko Osoko Bilkuran.

Udalbatzak horren berri izan du, eta honakoa adostu du, aho batez, ohiko botazioan:

Lehenengoa.- NAFARROA OINEZ elkarteari 300,00 euroko dirulaguntza zuzena esleitzea, 2020ko euskara-festa ospatzeko gastuak finantzatzeko.

Bigarrena.- Dagokion gastua onestea 2019tik 2020ra luzatutako aurrekontuaren 335.481.017 partidako karguarekin.

Hirugarrena.- NAFARROA OINEZ elkarteari jakinaraztea aipatutako dirulaguntza ordaintzeko justifikazio-dokumentazio hau aurkeztu beharko duela:

- Garatutako jardueraren memoria.
- Aipatutako jardueraren diru-sarrera eta gastu guztien justifikaziorako memoria ekonomikoa, beste erakunde edo organismo batzuen eskutik jasotako diru-sarrera eta dirulaguntzen zerrenda xehatuarekin batera.
- Justifikazio-fakturak eta ordainagiriak, Udalak ordaindutako zenbatekoaren berdinak edo handiagoak.

Dokumentazio hori 2020ko abenduaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da. Kontrako kasuan, dirulaguntza itzuliko da.

Laugarrena.- Erabaki hau erakunde eskatzaileari jakinaraztea.

11.- Euskararen festak: 2020ko dirulaguntza-eskaera: Ehige: Euskal Eskola Publikoaren Jaia.- Jarraian, Udalbatzari 2020ko euskara-festaren dirulaguntza-eskaeraren berri eman zaio, Ehige elkarteak aurkeztutakoa: Euskal Eskola Publikoaren Jaia.

Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeak gai horren aldeko txostena egin zuen 2020ko martxoaren 10eko ohiko Osoko Bilkuran.

Udalbatzak horren berri izan du, eta honakoa adostu du, aho batez, ohiko botazioan:



Lehenengoa.- EHIGE elkarteari 500,00 euroko dirulaguntza zuzena esleitzea, 2020ko euskara-festa ospatzeko gastuak finantzatzeko.

Bigarrena.- Dagokion gastua onestea 2019tik 2020ra luzatutako aurrekontuaren 326.481.011 partidako karguarekin.

Hirugarrena.- EHIGE elkarteari jakinaraztea aipatutako dirulaguntza ordaintzeko justifikazio-dokumentazio hau aurkeztu beharko duela:

- Garatutako jardueraren memoria.
- Aipatutako jardueraren diru-sarrera eta gastu guztien justifikaziorako memoria ekonomikoa, beste erakunde edo organismo batzuen eskutik jasotako diru-sarrera eta dirulaguntzen zerrenda xehatuarekin batera.
- Justifikazio-fakturak eta ordainagiriak, Udalak ordaindutako zenbatekoaren berdinak edo handiagoak.

Dokumentazio hori 2020ko abenduaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da. Kontrako kasuan, dirulaguntza itzuliko da.

Laugarrena.- Erabaki hau erakunde eskatzaileari jakinaraztea.

12.- Euskararen festak: 2020ko dirulaguntza-eskaera: Ibilaldia.- Jarraian, Udalbatzari Ibilaldiak 2020ko euskara-festarako aurkeztutako eskaeraren kontu eman zaio.

Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeak gai hori gaitzetsi zuen 2020ko martxoaren 10eko ohiko bilkuran, ez baitzegoen aurrekontu-esleipenik xede horretarako.

Udalbatzak horren berri izan du, eta honakoa adostu du, aho batez, ohiko botazioan: Ibilaldiak aurkeztutako eskaera gaitzestea, ez baitago aurrekontu-esleipenik xede horretarako.



13.- Euskararen festak: 2020ko dirulaguntza-eskaera: Kilometroak.- Jarraian, Udaltzari Kilometroak elkarteak 2020ko euskara-festarako aurkeztutako eskaeraren kontu eman zaio.

Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeak gai hori gaitzetsi zuen 2020ko martxoaren 10eko ohiko bilkuran, ez baitzegoen aurrekontu-esleipenik xede horretarako.

Udaltzak horren berri izan du, eta honakoa adostu du, aho batez, ohiko botazioan: Kilometroak aurkeztutako eskaera gaitzestea, ez baitago aurrekontu-esleipenik xede horretarako.

14.- Kredituen judizioz kanpoko aintzatespenaren 1/2020 espedientea.- Jarraian, Udaltzari 1/2020 espedientearen kontu eman zaio, kredituen judizioz kanpoko aintzatespenari buruzkoa.

Espedientean Idazkaritza eta Kontu-Hartzaitzaren 2020ko martxoaren 4ko txostena dago jasota, zeinak honako hau dioen hitzez hitz:

“IDAZKARITZA ETA KONTU-HARTZAITZAREN TXOSTENA, KREDITUEN JUDIZIOZ KANPOKO AINTZATESPENAREN 1/2020 ESPEDIENTEARI BURUZKOA.

Gaia: Kredituen judizioz kanpoko aintzatespenaren espedientea. 1/2020 zenbakia. 2020ko aurrekontu-ekitaldia.

Aiarako Udalaren Idazkaritza eta Kontu-Hartzaitza karguari lotutako eskumenetan oinarrituta eta estatu-mailako gaitasuna duten Toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzeko irailaren 18ko 1174/87 Errege Dekretuan xedatutakoa betez, IDAZKARITZA ETA KONTU-HARTZAITZAREN HONAKO TXOSTEN hau igortzen da aurreko ekitaldietako fakturen judizioz kanpoko aintzatespenari dagokionez, honako hauetan oinarrituta:

1.- AURREKARIAK

- 2020ko urtarrilaren 31n, **SPORT SOLUTION RESEARCH SL** enpresak 2019ko abenduaren 19ko R20190004 faktura, 2016ko apirilaren 25eko faktura zuzendua,



aurkeztu zuen, 60,00 euroko zenbatekoarekin, fakturatu gabeko BEZari dagokiona, ekitaldian ez aitortua eta onetsia.

- 2020ko otsailaren 7an, **FUNDACIÓN BENÉFICA ALDAY** delakoak Eguneko Arretako Landa Zentroaren gastuen zerrenda aurkeztu zuen, eta horien artean, besteak beste, Kasku S.Coop enpresaren 16261 eta 19341 zenbakiko fakturak zeuden, Eguneko Zentroko lorezaintza-mantentzearen lanengatik, 2019ko uztailetik abendura bitartean. Fakturen zenbatekoak 1.713,36 eta 1.671,01 eurokoak dira (BEZa barne), ekitaldian ez aitortuak eta onetsiak.

- Halaber, 2020ko otsailaren 10ean, 2019ko otsailaren 28ko 2019000368 zenbakidun faktura jaso zuen Udalak, **COMERCIAL LIMPIEZAS VILLAR SA** enpresarena, 48,98 euroko zenbatekoarekin (BEZaren % 21 barne), ekitaldian ez aitortua eta onetsia; hala ere, Udalari eskainitako zerbitzua denez, gastua onetsi eta betebeharrak ekonomikoa nahiz ordainketa aitortu behar dira.

- 2020ko otsailaren 21ean, **CUADRA BUS SL** enpresak 2019ko uztailaren 11ko 190892 zenbakidun faktura aurkeztu zuen, 471,35 euroko zenbatekoarekin (BEZaren % 21 barne). Kontu-Hartzailetzak egiaztatu du faktura hori ez zitzaiola Udalari bidali 2019ko ekitaldiaren barruan, nahiz eta zerbitzua urte horretan eskaini zen; beraz, ez da ordaindua izan, eta bidezkoa da hura aitortu eta ordaintzea.

- 2020k martxoaren 3an, **AYSER SL** enpresaren 2019ko urtarrilaren 15eko A/11236 faktura jaso zuen Udalak, 86,83 euroko zenbatekoarekin (BEZaren % 21 barne), ekitaldian ez aitortua eta onetsia.

2.- OINARRI JURIDIKOAK

Honako hau dio Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 176.1 artikulua: "1. Aurrekontu bakoitzaren gastu-egoeraren kredituen karguarekin, soilik aurrekontu-ekitaldiaren urte naturalen egindako erosketa, obra, zerbitzu, prestazio edo gastu orokorrenatik eratorritako betebeharrak egon daitezke":

Halaber, Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen seigarren tituluko lehen kapitulua garatzen duen apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuaren 26 artikulua, aurrekontuen gaiari buruz honako hau dio:

"1. Aurrekontu bakoitzaren gastu-egoeraren kredituen karguarekin, soilik aurrekontu-ekitaldiaren urte naturalen egindako erosketa, obra, zerbitzu, eta gainerako prestazio edo gastu orokorrenatik eratorritako betebeharrak egon daitezke (TOALren 157.1 artikulua).

2. Aurreko atalean xedatutakoa alde batera utzita, indarreko aurrekontuko kredituei aplikatuko zaizkie, aitortzen diren unean, honako betebeharrak hauek: ...

c) Errege Dekretu honen 60.2 artikulua aipatutako aurreko ekitaldiko betebeharrak".



Aipatutako Errege Dekretuaren 60.2 artikulua ezartzen du erakundearen Udalbatzari dagokiola kredituen judizioz kanpoko aitorpena, betiere ez badago aurrekontu-zuzkidurarik.

Bestalde, Toki Erakundearen Antolakuntzari, Funtzionamenduari eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamendua arautzen duen azaroaren 28ko 2568/86 Errege Dekretuak Udalbatzari, besteak beste, kredituen judizioz kanpoko aitorpena egozten dio.

Aurreko guztia kontuan hartuta, idazkari eta kontu-hartzaileak TXOSTEN- EBAZPEN-PROPOSAMEN hau igortzen du, zeina dagokion batzordeari helarazten zaion, Udalbatzak onetsi aurretik:

1.- Bi faktura hauek judizioz kanpoko aitorpenaren 1/2020 zenbakidun espedientea onestea, 2020. urtea baino lehenagoko urteko fakturak baitira, ordaintzeko baimena eman ez eta Udala modu bidegabean aberastea ekidinez.

➤ *2019ko abenduaren 19ko R20190004 zenbakidun faktura, SPORT SOLUTION RESEARCH SL enpresarena, 66,00 euroko zenbatekoarekin, 2020rako luzatutako aurrekontuaren 330.226011 partidako karguarekin ordainduko dena.*

➤ *2019ko urriaren 22ko 19341 zenbakidun faktura, KASAKU S.COOP enpresarena, 1.713,36 euro 1.671,01 euroko zenbatekoarekin (BEZa barne), 2020rako luzatutako aurrekontuaren 231.481007 partidako karguarekin ordainduko dena.*

➤ *2019ko otsailaren 28ko 2019000368 zenbakidun faktura, COMERCIAL LIMPIEZAS VILLAR SA enpresarena, 48,98 euroko zenbatekoarekin (BEZa barne), 2020rako luzatutako aurrekontuaren 323.227009 partidako karguarekin ordainduko dena.*

➤ *2019ko uztailaren 11ko 190892 zenbakidun faktura, CUADRA BUS SL enpresarena, 471,35 euroko zenbatekoarekin (BEZa barne), 2020rako luzatutako aurrekontuaren 334.226003 partidako karguarekin ordainduko dena.*

➤ *2019ko urtarrilaren 15eko A/11236 zenbakidun faktura, AYSER SL enpresarena, 86,83 euroko zenbatekoarekin (BEZa barne), 2020rako luzatutako aurrekontuaren 920.227071 partidako karguarekin ordainduko dena.*

Horren berro ematen dut Arespalditzan.- Idazkaria eta kontu-hartzailea,"

Kontuak, Ogasuna, Funtzio Publikoa eta Barne Erregimena Informazio Batzorde Bereziak gai horren inguruko irizpena eman zuen 2020ko martxoaren 10eko Osoko Bilkuran, eta aldeko txostena igorri zen.

Udalbatzak horren berri izan du, eta honakoa adostu du, aho batez, ohiko botazioan: betebeharrak hauen judizioz kanpoko kreditu-aitorpenaren 1/2020 espedientea onestea, 2020a baino lehenagoko ekitaldietako ekarpenak baitira, horiek ordaintzek aukera eman ez eta Udala modu bidegabean aberastea ekidinez:



- 2019ko abenduaren 19ko R20190004 zenbakidun faktura, SPORT SOLUTION RESEARCH SL enpresarena, 66,00 euroko zenbatekoarekin, 2020rako luzatutako aurrekontuaren 330.226011 partidako karguarekin ordainduko dena.
- 2019ko urriaren 22ko 19341 zenbakidun faktura, KASAKU S.COOP enpresarena, 1.713,36 euro 1.671,01 euroko zenbatekoarekin (BEZa barne), 2020rako luzatutako aurrekontuaren 231.481007 partidako karguarekin ordainduko dena.
- 2019ko otsailaren 28ko 2019000368 zenbakidun faktura, COMERCIAL LIMPIEZAS VILLAR SA enpresarena, 48,98 euroko zenbatekoarekin (BEZa barne), 2020rako luzatutako aurrekontuaren 323.227009 partidako karguarekin ordainduko dena.
- 2019ko uztailearen 11ko 190892 zenbakidun faktura, CUADRA BUS SL enpresarena, 471,35 euroko zenbatekoarekin (BEZa barne), 2020rako luzatutako aurrekontuaren 334.226003 partidako karguarekin ordainduko dena.
- 2019ko urtarrilaren 15eko A/11236 zenbakidun faktura, AYSER SL enpresarena, 86,83 euroko zenbatekoarekin (BEZa barne), 2020rako luzatutako aurrekontuaren 920.227071 partidako karguarekin ordainduko dena.

15.- Udalbatzaren proposamena, Aiarako Udalaren Barne Kontroleko Erregelamendua onesteari buruzkoa.- Jarraian, Udalbatzari osoko bilkurako erabaki-proposamenaren kontu eman zaio, Udalaren Barne Kontroleko Erregelamenduari buruzkoa. Honako hau dio hitzez hitz:

“OSOKO BILKURAKO AKORDIO-PROPOSAMENA

***IKUSI DA.-** Tokiko sektore publikoko entitateen barne-kontrolerako araubide juridikoa arautzen duen apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretuaren hitzaurrean honako hau adierazten dela: “...ereduaren diseinuak tokiko autonomiaren printzipioa errespetatzen du, kontrol-erregimenaren gutxieneko estandarrak zehaztera mugatzen den neurrian; beraz, udalbatzei dagokie euren errealitatera egokitzea aurreikusten diren tresnak, arriskuen eta eskuragarri dauden baliabideen arabera...”. Ondorioz, aurrekontuaren kontrol ekonomikoaren eredu bat izateko xedearekin, Udalaren Barne Kontroleko Erregelamenduaren proposamena prestatu da, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 19. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4. artikuluan aitortutako erregelamendu- eta autoantolaketa-eskumenak erabilia.*

***IKUSI DA.-** Aiarako Udalaren Barne Kontroleko Erregelamenduaren proposamena.*



Aurreko guztiagatik, Udalbatzaren Osoko Bilkurak honako **AKORDIO** hau hartzea proposatzen da:

LEHENENGOA.- Hasiera batean onestea Aiarako Udalaren Barne Kontroleko Erregelamendua, zeinak honako hau dioen hitzez hitz:

“AIARAKO UDALAREN BARNE-KONTROLEKO ERREGELAMENDUA

I. KAPITULUA. BARNE-KONTROLEKO MODALITATEAK

I. artikulua.- BARNE-KONTROLEKO MODALITATEEKIKO ATXIKIPENA.

1. Udalaren, haren organismo autonomoen, enpresa-erakunde publikoen eta merkataritza-sozietateen, egonez gero, kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren barne-kontrola foru-araudiaren eta gainerako lege aplikagarrien arabera egingo da, finantza-jarduera osoaren gainean eta hura osatzen duten eduki ekonomikoko ekintzen gainean, modalitate hauetan:

- a) Kontu-Hartzailtza funtzioa.
- b) Finantza- eta auditoretza-kontrola.
- c) Eraginkortasun-kontrola.

2. Kontu-Hartzailtza funtzioak, hura gauzatzeari kalterik egin gabe hurrengo artikuluetan araututako **fiskalizazio mugatuaren** bidez, xedetzat du Udalaren eta haren organismo autonomoen (hala badagokio) ekintza guztiak kontrolatzea, eduki ekonomikoko eskubide eta betebeharrak aitortzeko, baita haietatik eratorritako diru-sarrerara eta ordainketak ere, eta emari publikoen bilketa, inbertsioa eta aplikazioa ere, Ogasun Publikoaren administrazioa kasu bakoitzean ezarritako xedapenetara egokituko dela ziurtatzeko xedearekin.

3. Kontrol ekonomiko-finantzarioaren xedea da egiaztatzea zerbitzuen, organismo autonomoen, enpresa-erakunde publikoen eta mendeko merkataritza-sozietateen, egonez gero, jarduketa, ikuspuntu ekonomiko-finantzariotik, ordenamendu juridikora eta finantza-kudeaketa onaren printzipio orokorretara egokitzen dela. Kontrol horrek eraginkortasun eta efizientiaren egiaztapena hartuko du barne, baita organo edo erakunde bakoitzak egindako



eragiketen erregistro eta zenbaketa egokia ere, eta haren isla kontu eta egoeratan, xedapen aplikagarrien arabera osatu beharrekoetan.

Mendeko merkataritza-sozietateak, enpresa-erakunde publikoak eta gainerako erakundeak, egonez gero, eta araudiak hala aurreikusten badu, ez dira egongo kontu-hartzailletza funtzioak aldeztu aurretik egindako fiskalizazioaren menpe, baizik eta finantza-, auditoretza- eta eraginkortasun-kontrolaren menpe.

4. Eraginkortasun-kontrolak, erabaki politikoak epaitu gabe, jarduketan egokitzapen ekonomikoa aztertuko du, bai programatutako ekintza eta helburuen ikuspuntutik eta bai prozesuarekin lotutako kostuaren ikuspuntutik; halaber, foru-araudiak eta gainerako legedia aplikagarriak aurreikusitako gainerako kontuak ere jorratuko dira.

5. Euren kargura kontu-hartzailletza funtzioa duten funtzionarioek eta finantza- eta eraginkortasun-kontrola gauzatzeko izendatutakoek euren funtzio garatuko dute independentzia osoz, eta beharrezkotzat jotzen dituzten aurrekariak bildu, liburuak, kontuak eta dokumentuak aztertu eta egiaztatu, kontaketa eta zenbaketak egiaztatu eta dagokionari kontu hartu behar den dokumentu edo espedientea, txosten teknikoak eta aholkularitza eskatu ahalko diote.

6. Udal Kontu Hartzailletzaren barne-kontrola kontrol-prozedurei, aplikazio-metodologiari, egokitzapen-irizpideei eta kontrolatzaileen eta kontrol-txostenen hartzaileen eskubide eta betebeharreri buruzko arauetarako egokituko da, foru-araudian eta gainerako lege aplikagarrietan ezarritakoak.

7. Barne-kontrolari buruzko araudi honetan xedatutakoarekin bat, Kontu-Hartzailletza funtzioa nahitaezkoa bada eta ez bada aurrera eraman, ezingo da betebeharra aitortu, betebeharra izapidetu edo ordainketa eta diru-sarrerara likidazioak izapidetu, ez-egite hori ezagutu eta ebatzi arte.

II. KAPITULUA. KONTU-HARTZAILETZA FUNTZIOA GASTUEN ALDERDIAN

2. artikulua.- KONTU-HARTZAILETZA FUNTZIOA GASTUEN ALDERDIAN, FISKALIZAZIO MUGATUAREN BIDEZ.

1. Udalbatzak, aurrekontu-araudian aurreikusitakoa betez, aurretiazko fiskalizazio mugatua onetsi eta ezartzen du, soilik artikulua honetan jorratutako alderdietan, ondoren



erabateko fiskalizazio baten bidez gastu edo betebeharetako fiskalizazio mugatuari hasiera eman zioten ekintza edo dokumentuak egiaztatzeari kalterik egin gabe.

2. Oro har, gastuak sortzeko eta eduki ekonomikoko ekintza guztien alde aurreko fiskalizazioa eta Kontu-Hartzailatza oinarritzko eskakizun hauek egiaztatzea mugatuko da:

- a) Aurrekontu-kreditua egotea lotura-mailan, eta proposatutakoa egokia izatea.*
- b) Betebehar edo gastuak organo eskudunaren bidez sortzen direla.*
- c) Gastua finantzatzeko baliabideak eskuragarri egotea.*
- d) Betebehar edo gastua tokiko erakundearen eskumenen barruan egotea, edo, propioak ez diren eskumenen kasuan, horiek aurrera eramaten jarraitu ahal izatea, indarreko legediari jarraikiz eskatu daitezkeen baldintzak bete ondoren.*
- e) Betebehar edo gastuak ez jartzea arriskuan aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-jasangarritasuna.*
- f) Betebehar edo gastuaren euskarri diren dokumentuak zuzenak direla eta beharrezko sinadura eta baldintzak dituztela. Alde horretatik, gastu-betebeharraren aitorpenerako dokumentu-euskarriak zerbitzua, hornidura, inbertsioa edo gastua modu egokian eman dela egiaztatzen duen arduradunaren sinadura eta identifikazioa izango ditu.*
- g) Hainbat urtetako konpromiso-kredituen eta gastuen kasuan, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan ezarritako muga eta baldintzak betetzen direla.*

3. Aurreko atalean aurreikusitako kontuez gain, betebehar edo gastuak sortzen dituzten ekintzen fiskalizazio mugatuak, kontratu, hitzarmen edo dirulaguntzetatik eratorritakoak, baita langile-gastuak edo bestelakoak, honako alderdi hauek egiaztatuko ditu horrez gain:

- a) Kontratuetatik eratorritako betebehar edo gastuak sortzen dituzten ekintzen kasuan, hau egiaztatuko da:*
 - Pleguak eta hautaketa-irizpideak egokitu eta baloratzea, baita kontratazio-prozedurak ere, sektore publikoko kontratuen gaiari buruzko indarreko legedian.*
 - Obretan, hasi aurretik zuinketa-akta egon izana, eta amaiera harrera-akta eta amaierako ziurtagiriaren onspena.*
 - Exekuzioa ekitaldi bat baino gehiagora luzatzekotan, Pleguak gastuan dakarren aurrekontu-ekitaldi bakoitzean eskuragarri dauden partida eta zenbatekoak zehazten dituztela.*
 - Azken finean, kontratuetatik eratorritako gastuen kontrolari buruzko eranskinean jasotako alderdi guztiak egiaztatzea, eragozpen-txantilo normalizatuari atxikita.*



b) *Hitzarmen eta dirulaguntzetatik eratorritako betebeharrak edo gastuak sortzen dituzten ekintzen kasuan, hau egiaztatuko da:*

- *Dirulaguntza izendunak xedea eta onuraduna identifikatzen dituen aurrekontu-partida izatea.*
- *Hitzarmena edo dirulaguntza aurreikusita egotea, behar bezala xehatua, dirulaguntzen plan estrategikoan.*
- *Hirugarrenaren bidez egiaztatzea edo ofizioz frogatzea onuradunak ordaindu dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.*
- *Onuradun izateko debekuak ez izatea aitortzea.*
- *Onuradunak funtsen jomuga justifikatzea hitzarmenean edo deialdiaren oinarrietan xedatutakoaren arabera eta dirulaguntza-legediarekin bat. Horrez gain, dirulaguntza kudeatzen duen txostenaren espedientearen justifikazioaren egiaztapena jasotzea.*
- *Azken finean, kontratuetatik eratorritako gastuen kontrolari buruzko eranskinean jasotako alderdi guztiak egiaztatzea, eragozpen-txantilo normalizatuari atxikita.*

c) *Langile-gastuetatik eratorritako betebeharrak edo gastuak sortzen dituzten ekintzen kasuan, hau egiaztatuko da:*

- *Indarreko ekitaldiko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak eta gainerako legedia aplikagarriak ezarritako baldintza eta mugak betetzea.*
- *Arazoen kasuan, baldin eta izaera finkorik edo iraungitze periodikorik ez duten ordainsariak aitortzen badituzte (haborokinak, ordu estrak, kalte-ordainak,...), organo eskudunak igorritako ebazpen edo erabakia atxikitzea espedientearen, ordainsari hori jasotzeko eskubidea aitortuz.*
- *Egiaztapen aritmetikoa, aurreko hilabeteko nominaren zenbateko totala koadratuta eta hilabeteko nominako aldaketan batuketa aljebraikoa gehituta.*

4. *Kontu-Hartzailtza organoak egokitzat jotzen dituen ohar osagarriak egin ahalko ditu, baina horiek ez dituzte izango etete-eraginak dagozkien espedienteen izapidetzean. Gainera, ohar osagarri horiei begira, ez da bidezkoa izango desadostasunik planteatzea.*

5. *Ez dute aurretiazko fiskalizaziorik edukiko kontratu txikiek eta kutxa finkoko aurrerakinek, 300,00 eurotik beherakoak, gastuaren konpromisoarena hartzen duenak dagokion aurrekontu-partidan kreditua dagoela egiaztatzeko erantzukizunari kalterik egin gabe.*

6. *Aurretiazko kontrol mugatu horrek berekin dakar, hurrengo artikuluetan garatzen den moduan, beste fiskalizazio oso bat, a posteriori, auditorietza- eta laginketa-teknikak erabilia; horren emaitza barne-kontrolako urteko txostenaren barruan islatuko da, atal independente*



batekin aipatutako urteko txostenaren barruan, Kontu-Hartzaitzako kontrol osoaren gaineko txostena a posteriori izenburuarekin.

3. artikulua: ERAGOZPENAK ETA HAIEN IZAPIDEAK.

1. Aurreko artikulua 2. eta 3. ataletan aurreikusitako kontuen analisiari dagokionez, kontu-hartzaitza organoak bere txostenean adierazten badu fiskalizazio mugatua egiaztatutako alderdietako bat ez dela bete, idatziz jasoko du “eragozpenen txantilo normalizatu” batean, eragozpenaren xede diren alderdien kutxatila markatuz, eta aipatutako txantiloian adieraziz haren eraginak eta izapidetzea.

Fiskalizazio mugatua egiteko gehieneko epea bost egun baliodunekoa izango da, fiskalizatu beharreko espedientea jasotzen denetik zenbatzen hasita.

“Eragozpenen txantilo normalizatu” alkateari edo eskuordetutako zinegotziari bidali beharko zaio.

Alkateak edo eskuordetutako zinegotziak, eragozpenarekin ados egonez gero, espedientea zuzendu ahalko du, baita haren izapideak bertan behera utzi ere.

Alkateak edo eskuordetutako zinegotziak, espedientea zuzenduz gero, berria kontu-hartzaitza organoari bidaliko dio.

Alkateak edo eskuordetutako zinegotziak, ados ez egonez gero, desadostasun-txostena eskatuko du. Kasu horretan, desadostasuna gehienez bost eguneko epean igorri beharko da, eta desadostasun-txostenaren kopia bidali beharko zaio bai kontu-hartzaitza organoari eta bai gastua onesteko organo eskudunari (alkatea, eskuordetutako zinegotzia edo Udalbatza, izapideen ardura duena kontuan hartuta eragozpenaren xedearen eta hori etengarria izatearen ala ez izatearen arabera). Horrela, bi egoera hauek izango ditugu:

A. Udalbatzaren ardura denean eragozpenak kentzea:

Eragozpen etengarria: aurreko artikuluko bigarren ataleko a) eta b) letrak, baita Udalbatzak onetsi behar dituen gastu-betebeharrei buruzkoak ere.



Kentzeak erreferentzia egiten badio 2. artikuluko a) letrari, kreditua ez egoteagatik edo nahikoa ez izateagatik, kentze hori gastua estaliko duen aurrekontu-aldaketarekin batera planteatu beharko da.

B. Alkate-udalburuak kendu behar dituen eragozpenen izapidetzeari dagokionez:

Alkate-udalburuak egokitzat jotzen dituen txostenak eskatu ahal izango ditu irizpideen arabera ebazteko. Alde horretatik, Kontu-Hartzaitzak prestatutako “eragozpen-txantilo normalizatuan” jasotako arauak betetzeari begira duen iritzia, eragin etengarririk gabe, ez da gailenduko kudeaketa-organoen iritziei dagokienez, ezta alkate-udalburuak kontrol-organo eskudunari eskatu ahal dizkion txostenei dagokienez, finantza-tutoretza esleituta duen Administrazioari begira (Arabako Foru Aldundia).

2. Ez bazaio jarraitzen kontu-hartzaitza organoak eutsitako irizpideari, alkatea edo eskuordetutako zinegotziaren ardura izango da erabakia hartzeko ebazpenean jasotzea hura hartu dela, behin kontu-hartzaitza organoaren oharra ikusi eta aztertu ondoren.

3. Urtero, kontu orokorraren espedientearen izapidetzearekin batera, baliabide pertsonalen mugak ez badu behartzen hura aurrerago aurkeztera, kontu-hartzaitza organoak Udalbatzari toki-erakundearen udalburuak hartutako ebazpen guztien txostena helaraziko dio, egindako eragozpenen aurkakoak, baita diru-sarreretan hautemandako anomalia nagusien laburpena ere.

4. artikulua: KONTU-HARTZAITZAKO KONTROL OSOAREN GAINEKO TXOSTENA A POSTERIORI

1. Fiskalizazio mugatuaren onspena eta ezarpena dela eta, kontu-hartzaitza organoak, finantza-kontrolaren urteko txostenarekin batera, kontu-hartzaitzako kontrol osoaren jarduketan emaitza igorriko du a posteriori, gastu-espedienteen lagin adierazgarriaren gainean.

Kontu-hartzaitza organoak lagina hautatzeko aplikatu beharreko prozedurak zehaztuko ditu, eta lehentasuna izango dute eragiketa-talde zehaztetako akatsei buruzko aurretiazko informazio duten kasuek, baita akatsak hauteman dituzten prozedurek ere.

2. Txosten hori Udalbatzari bidali baino lehen, kaltetutako arduradunei helaraziko zaie alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten gehienez 10 eguneko epean, kontu-hartzaitza organoak behin betiko txostena igortzeko xedearekin.



III. KAPITULUA. KONTU-HARTZAIETZA FUNTZIOA DIRU-SARREREN **ALDERDIAN**

5. artikulua: KONTU-HARTZAIETZA GUNTZIOA DIRU-SARREREN ALDERDIAN, FISKALIAZIO MUGATUAREN BIDEZ

1. Aiarako Udaleko Udaltzarak, aurrekontuen araudian aurreikusitakoa betez, aurretiazko fiskalizazio mugatua onetsi eta ezartzen du diru-sarreretan.

Horrela, diru-sarreretako aurretiazko fiskalizazioa ordezkatzeko da kontabilitateko onespengatik. Sistema horrek, gastuetan gertatzen den moduan, eskatzen du diru-sarrerak erabat egiaztatzea a posteriori, lagin baten gainean, eta emaitza aurreko artikuluan araututako txostenean jasotzea.

2. Diru-sarreretako fiskalizazio mugatu hori alderdi hauen egiaztapenaren bidez egingo da:

- a) Organo eskudunaren bidez likidatzea.
- b) Kontabilitateko onspena egitea.
- c) Hala badagokio, dagokion BEZa aplikatzea.
- d) Diru-sarrera bidegabean itzuleran, itzulketaren administrazio-arduradunak igorritako alde txostena jasotzea.

3. Eragozpenak eta haien izapideak:

Eragozpenak toki-erakundeen edo haien organismo autonomoen aldeko eskubideen aitortpenari edo likidazioari buruzkoak direnean, eragozpen-oharrean formalizatuko da ez dela inolaz ere espedientearen izapidetzea etengo.

Kontu-hartzaietza organoak idatziz jasoko du “eragozpen-txantilo normalizatuan” fiskalizazioa, eragozpenaren xede diren alderdiei dagokien kutxatila markatuta eta txantiloian haren eraginak eta izapidetzea adierazita.



Fiskalizazio mugatua egiteko gehieneko epea bost egun baliiodunekoa izango da, fiskalizatu beharreko espedientea jasotzen denetik zenbatzen hasita.

“Eragozpenen txantilo normalizatua” alkateari edo eskuordetutako zinegotziari bidali beharko zaio.

Alkateak edo eskuordetutako zinegotziak, eragozpenarekin ados egonez gero, espedientea zuzendu ahalko du, baita haren izapideak bertan behera utzi ere.

Alkateak edo eskuordetutako zinegotziak, espedientea zuzenduz gero, berria fiskalizazio-organoari bidaliko dio.

Alkateak edo eskuordetutako zinegotziak, ados ez egonez gero, desadostasun-txostena eskatuko du. Kasu horretan, desadostasuna gehienez bost eguneko epean igorri beharko da, desadostasun-txostenaren kopia kontu-hartzailletza organoari bidaliz.

Alkate-udalburuak egokitzat jotzen dituen txostenak eskatu ahal izango ditu irizpideen arabera ebazteko.

Eragozpena kentzekotan, erabakia hartzeko ebazpenean jasoko da espresuki hura hartu dela, behin kontu-hartzailletza organoaren oharra ikusi eta aztertu ondoren.

Urtero, kontu-hartzailletza organoak Udalbatzari toki-erakundearen udalburuak hartutako ebazpen guztien txostena helaraziko dio, egindako eragozpenen aurkakoak, baita diru-sarreretan hautemandako anomalia nagusien laburpena ere.

V. KAPITULUA. FINANTZA- ETA AUDITORETZA-KONTROLA ETA ERAGINKORTASUN-KONTROLA

6. artikulua. FINANTZA- ETA AUDITORETZA-KONTROLA GAUZATZEA.

1. Kontu-hartzailletza organoak finantza-kontrolaren funtzioa beteko du, kontuen auditoretza barne, bidezkoa bada, araudiaren bidez zehazten diren erakundeena.



2. *Finantza-kontrolaren xedea da finantza-informazioa behar bezala aurkeztearen informazioa ematea, arau eta gidalerro aplikagarriak betetzea eta aurreikusitako helburuak lortzeko eraginkortasun- eta efizientzia-maila zehaztea.*

3. *Finantza-kontrola auditoretza-tekniken bidez gauzatuko da, eta honako hauek izan daitezke:*

- a) *Kontabilitate-erregistroen, kontuen edo finantza-egoeren azterketa, analisi-prozedura zehatzak aplikatuz.*
- b) *Eragiketa indibidual eta zehatzen azterketa.*
- c) *Kontrolatutako erakundeak egindako ekintza-sorta baten alderdi partzial eta zehatzen egiaztapena.*
- d) *Inbertsioen eta bestelako aktiboen egiaztapen materiala.*
- e) *Kontrolaren xede diren subjektuen kontuei buruzko auditoretza-txostenak aztertu eta ikertzea, horretarako gaikuntza legala duten enpresen bidez.*
- f) *Kontu-hartzailtza organoak erabakitako beste egiaztapen batzuk, kontrolatuak izan diren erakundeek egindako jardueren ezaugarri bereziak kontuan hartuta.*

4. *Urtero, kontu orokorraren espedientearen izapideekin batera, bidezkoa bada, eta baliabide pertsonalen mugek aurkezpena atzeratzera behartzen ez badute, egindako kontrolaren emaitza gisa eta barne-kontrola arautzen duen testu honetan jasotako terminoetan, kontu-hartzailtza organoak idatzizko txostena prestatuko du, non adieraziko den zenbat ohar egin diren eta zenbat ondorio atera diren azterketan. Txostenean, epigrafe zehatz batean jasoko dira mendeko merkataritza-sozietateek nahitaez egindako finantza-kontrollean lortutako emaitzak; izan ere, sozietate horiek ez dute loturarik kontu-hartzailtza funtzioarekin.*

Finantza-kontrolari buruzko txostena, ikuskatutako organoak egindako alegazioekin batera, Udalbatzari bidaliko zaio, hark aztertu eta aintzat hartu dezan.

5. *“Kontu-hartzailtza kontrol osoaren gaineko a posteriori txostenaren” eta “finantza- eta auditoretza-kontrolari buruzko txostenaren” urteko izaera kontuan hartuta, dokumentu bakarrean aurkeztu ahalko dira, txosten independenteak izateari kalterik egin gabe; izan ere, lehena kontu-hartzailtza organoaren jarduketan barruan kokatzen da, kontu-hartzailtza funtzioa aurrera eramatean, modu mugatuan jarduten baitu, eta bigarrenak baliabideen kudeaketan ekonomia-, eraginkortasun- eta efizientzia-printzipioak betetzen direla egiaztatzeari erantzuten dio.*

7. artikulua. DIRULAGUNTZA ETA LAGUNTZA PUBLIKOEN FINANTZA-KONTROLA



Finantza-kontrola kontu-hartzailletza organoak egingo du, dirulaguntza eta laguntza publikoen onuradunei dagokienez.

Kontrol-funtzioak aurrera eramatean jasotako dirulaguntza edo laguntzaren lortze, jomuga edo justifikazio okerraren aztarnak hautematen badira, agente arduradunek, kontu-hartzailletza organoaren aurretiazko baimenarekin, fakturak, ordezkoko dokumentuak edo dokumentu baliokideak atxikitzea adostu ahalko dute, baita aztarna horiek dituzten eragiketekin lotutako edozein dokumentu ere.

8. artikulua. ERAGINKORTASUN-KONTROLA GAUZATZEA

Eraginkortasun-kontrolaren xedea izango da helburuen betetze-mailaren egiaztapen periodikoa, baita funtzionamendu-kostuaren eta zerbitzu edo inbertsioen errendimenduaren analisisa ere: hala ere, kontrol horrek ezingo du epairik eman izaera politikoko erabakien inguruan.

Kontrol hori foru-araudiak eta gainerako lege aplikagarriek araututako prozedura eta printzipioetara egokituko da.

V. KAPITULUA. URTEKO KONTROL-TXOSTENAK ETA UDAL KONTU-HARTZAILETZAREN GAINERAKO TXOSTENAK

9. artikulua. KONTU-HARTZAILETZA KONTROLAREN URTEKO TXOSTENAK

1. Urtero, kontu orokorraren espedientearen izapideekin batera, baliabide pertsonalen urritasunak ez badu behartzen dokumentu horien igorpena atzeratzera, kontu-hartzailletza organoak barne-kontrolerako jarduketan informazio hau igorriko du hainbat dokumentutan edo bateginetan edo epigrafe berezietan osatutako dokumentu bakar batean:

- a) Kontu-hartzailletzako kontrol osoaren gaineko a posteriori txostena. Txosten hori Udaltzari bidaliko zaio, azter dezan.*
- b) Finantza- eta auditoretza-kontrolari buruzko txostena. Txosten hori Udaltzari bidaliko zaio, azter dezan.*



c) Egindako kontrolen emaitzen laburpen-txostena, bai kontu-hartzailletza funtzioaren modalitatean eta bai finantza- eta auditoretza-kontrolaren modalitatean, baita eraginkortasun-kontrolaren funtzioarena ere, ekitaldi bakoitzean egindakoak, administrazio eskudunek emandako arauetan araututako epeetan eta edukiarekin. Txosten hori foru-araudiak eta gainerako lege aplikagarriek zehaztutako erakundeei bidaliko zaie.

d) Toki-erakundearen udalburuak hartutako ebazpen guztien txostena, egindako eragozpenen aurkakoak, baita diru-sarreretan hautemandako anomalia nagusien laburpena ere.

Txosten horrek soilik fiskalizazio-funtzioaren alderdi eta zeregin propioak jorratuko ditu, fiskalizatuko dituen jarduketan aukera- edo komenigarritasun-kontuak gehitu gabe. Txosten hori Udalbatzari helaraziko zaio, eta dagokion osoko bilkuraren aztergaien zerrendan puntu independente bat osatuko du.

Udalbatzako udalburuak bere jarduketaren justifikazio-txostena aurkeztu ahalko du osoko bilkuran.

Aurrekoari kalterik egin gabe, desadostasunak daudenean, tokiko erakundeko udalburuak bere ebazpena helarazi ahalko dio kontrol-organo eskudunari, finantza-tutoretza esleituta duen administrazioari jarraikiz.

Txosten hori Herri Kontuen Euskal Epaitegiari bidaliko zaio, baita indarreko araudian aurreikusitako gainerako erakundeei ere; halaber, txosten horretara atxikiko dira Udalbatzako udalburuak eta Udalbatzak emandako ebazpen eta hartutako erabaki guztiak, formulatutako eragozpenen aurkakoak, baita diru-sarreretan hautemandako anomalia nagusien laburpena ere. Dokumentazio horrekin batera, hala badagokio, Udalbatzak aurkeztutako justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira.

2. Txostenak dokumentu bakar batean moldatu ahalko dira, epigrafe bereizi eta independenteekin, horietako bakoitzaren edukiaren arabera.

10. artikulua. UDAL KONTU-HARTZAILETZAK IGORRI BEHARREKO GAINERAKO TXOSTENAK



1. Oro har, administrazio eskudunek aurkeztu beharreko informazioari kalterik egin gabe, kontu-hartzailletza organoak, aurreko artikuluan aipatutako kontrol-txostenez gain, honako nahitaezko txosten hauek igorri beharko ditu:

- a) Erakundearen kreditu- edo zorpetze-eragiketen ituntze edo aldaketei buruzko txostena.*
- b) Organismo autonomoen, enpresa-erakunde publikoen edo mendeko merkataritza-sozietateen epe luzeko kreditu- edo zorpetze-eragiketen ituntzeei buruzko txostena.*
- c) Aurrekontu orokorraren proiektuari buruzko txostena.*
- d) Aurrekontuaren luzapenaren doikuntzei buruzko txostena.*
- e) Aurrekontu-aldaketei buruzko txostena.*
- f) Aurrekontuaren likidazioari buruzko txostena.*
- g) Aurrekontuaren exekuzioari eta diruzaintza-mugimendu eta -egoerari buruzko txostenak.*
- h) Justifikatu beharreko ordainketen igorpena eta kutxa finkoko aurrerakinak arautzen dituzten arauei buruzko txostena.*
- i) Berankortasun-legean ezarritako terminoetan erregistratutako eta zenbatu gabeko fakturei buruzko txostena, kontabilitate-organoa duten biztanle askoko udalerrietan izan ezik: kasu horretan, txostena egitea kontabilitate-organo horri dagokio. Berankortasunari aurre egiteko neurrien arauditik eratorritako gainerako txostenak, zeinaren igorpena kontu-hartzailletza organoari dagokion.*
- j) Konpromiso-kredituak eta hainbat urtetako gastuak mugetara egokitzeari buruzko txostena.*
- k) Gehiengo kualifikatua eskatzen duten gaii buruzko txostenak.*
- l) Likidatutako ekitaldiaren aurrekontu-egonkortasuna betetzearen ebaluazioari buruzko txostena, dokumentu berean aztertzen denean izan ezik kontu-hartzailletza organoak igorritako aurrekontuaren likidazio-txostenarekin batera.*
- m) Tributuen edo prezio publikoen ezarpenari, aldaketari eta ordenazioari buruzko txostena, baldin eta funtzio hori ez bada gordetzen udal-ogasunaz arduratzen diren organoentzat.*
- o) Indarreko legediak kontu-hartzailletza organoari egozten dizkion gainerako txostenak.*



11. artikulua.- APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

Erregelamendu honetan aurreikusi ez den guztiari dagokionez, aplikagarriak izango dira Tokiko sektore publikoko entitateen barne-kontrolerako araubide juridikoa arautzen duen apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretuan jasotako barne-kontrolari buruzko xedapenak eta gainerako xedapen aplikagarriak.

AZKEN XEDAPENA

Erregelamendu hau testu osoa Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako epea igarotzen denean (70.2 artikuluari jarraikiz) sartuko da indarrean, eta indarrean egongo da aldatu edo espresuki indargabetzen duten arte”.

BIGARRENA.- 30 egun baliouduneko erakusketa publikoko epea zabaltzea, akordio hori Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO) argitaratzen denetik zenbatzen hasita; epe horretan edozein interesdunek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahalko dituzte, eta horiek, hala badagokio, Udalbatzak aztertuko ditu behin betiko onespenerako. Ez bada alegaziorik aurkezten behin-behineko onespenerari begira, behin betiko bihurtuko da hasierako onespenera, eta testu osoa ALHAOn argitaratuko da.

HIRUGARRENA.- Akordio hau eta erregelamenduaren testu osoa ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Arespalditzan.- ALKATEA.-Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.”

Kontuak, Ogasuna, Funtzio Publikoa eta Barne Erregimena Informazio Batzorde Bereziak gai horren inguruko irizpena eman zuen 2020ko martxoaren 10eko Osoko Bilkuran, eta aldeko txostena igorri zen.

Udalbatzak horren berri izan du, eta aho batez adostu du, ohiko botazioaren bidez, transkribatutako akordio-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

16.- 2019ko udal-aurrekontuen likidazioaren eta gastu-araua ez betetzeari buruzko esku-hartze txostenaren kontu eman da.-



Lehenengoa.- Ondoren, Udalbatzari jakinarazi zaio 2020ko martxoaren 25eko 2020/157 Alkatetza Dekretuaren bitartez 2019ko ekitaldiko Udalbatzaren aurrekontuen likidazioa onartu dela. Hala dio Dekretuak:

"ALKATETZA DEKRETUA

2019ko ekitaldiari dagozkion Udalbatzaren aurrekontuen likidazioa osatzen duten agiriak aztertu dira Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuari buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 47. artikuluan xedatutakoaren arabera. Halaber, aipatutako Foru Arauaren 49.3 artikulua arabera, organo kontu-hartzaileak sortutako txostena ikusi da.

*Alkatetza-presidentetzak, **HONAKO HAU EBATZI DU:***

Lehenengoa.- Udalbatzaren udal-aurrekontuen 2019ko ekitaldirako likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

2019ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak
(+) Likidatutako eskubide garbiak	2.397.893,15
(-) Aitortutako betebeharrak garbiak	2.333.005,55
(=) UNEKO AURREKONTU GORDINAREN EMAITZA	64.887,60
(+) Diruzaintza-geldikinarekin finantzatutako gastuak	256.987,02
(-) 2019ko gehiegizko finantzaketaren batura	82.696,59
(-) 2019ko finantzaketaren gabezien batura	0,00
(-) 2018ko gehiegizko finantzaketaren batura	27.458,12
(-) 2018ko finantzaketaren gabezien batura	0,00
(=) UNEKO AURREKONTU MUGATUAREN EMAITZA	266.636,15



(+) Bertan behera utzitako ordaindu beharrekoak	6.655,63
(-) Bertan behera utzitako ordaintzeke zeuden eskubideak	452,12
(=) ITXITAKO AURREKONTUEN EMAITZA	6.203,51
(+) UNEKO AURREKONTU MUGATUAREN EMAITZA	266.636,15
(+) ITXITAKO AURREKONTUEN EMAITZA	6.203,51
(=) 2019ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN EMAITZA	272.839,66

2019ko EKITALDIKO DIRUZAINNTZA-GELDIKINA	Euroak
(+) Diruzaintzako izakinak eskudirutan	904.463,30
(+) Uneko aurrekontuan kobratzeke dauden eskubideak	231.528,51
(+) Itxitako aurrekontuetan kobratzeke dauden eskubideak	144.705,81
(+) Aurrekontuz kanpoko kobratzeke dauden eskubideak	258,37
(-) Behin betiko ezarpenaren zain dauden burututako kobrantzak	95,53
Kobratzeke dauden eskubideen totala	376.397,16
(-) Uneko aurrekontuaren ordaintzeke dauden betebeharrak	263.675,83
(-) Itxitako aurrekontuen ordaintzeke dauden betebeharrak	24.112,82
(-) Aurrekontuz kanpoko ordaintzeke dauden betebeharrak	186.846,60
Ordaintzeke dauden betebeharrak guztira	474.635,25
(=) DIRUZAINNTZA-GELDIKIN GORDINA	806.225,21
(-) Kobrantza zalantzarrien edo zailen zain dauden eskubideak	133.140,69
(=) DIRUZAINNTZA-GELDIKIN LIKIDOA	673.084,52
(-) KALTETUTAKO FINANTZAKETA GASTUENTZAKO DIRUZAINNTZA-GELDIKINA	82.699,59
(=) GASTU OROKORRENTZAKO DIRUZAINNTZA-GELDIKINA	590.384,93

Bigarrena.- Udalbatza osoari gastu-araua ez betetzeagatiko esku-hartze txostenaren berri ematea, bai eta likidazioa onartzen duen Dekretu honen berri ere.



Hirugarrena.- *Onartutako likidazioaren kopia bana aurkeztu Arabako Foru Aldundiari eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioari, hilabeteko epean.*

Jarduneko ALKATE-UDALBURUA,

Sin.: Iñigo Pinedo Vadillo.

Nire aurrean, IDAZKARIA,

Sin.: M^a del Carmen Rojo Pitillas.

Elektronikoki sinatutako dokumentua".

Bigarrena.- Era berean, gastu-araua ez betetzeari buruzko esku-hartze txostenaren berri ematen zaio Udalbatzari. Espedientean jaso da 2019ko ekitaldiko udal-aurrekontuen likidazioari dagokion esku-hartze txostena, 2020ko martxoaren 24koa. Aipatutako esku-hartze txostenaren barruan, 2019rako udal-aurrekontuak likidatzearen ondorioz gastu-araua ez betetzeari buruzko txostena dago, honako hau xedatzen duena:

“...8.- ERANSKINA ERREPARATZEKO GASTU-ARAUA EZ BETETZEARI BURUZKO TXOSTENA.

Ekainaren 18ko Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzko (17/2014 Foru Arauak emandako idazkerari jarraiki) 38/2013 Foru Arauaren 7. artikuluko 4. atalak ezartzen du gastu-araua betetzen ez duten entitateek plana ordeztu izan ahalko dutela Kontu Hartzaitzak sinatutako ohar baten bidez osoko bilkurari jakinarazten badiote, betiere jakinarazpen-ohar horretan entitatearen finantza iraunkortasuna aztertzen, ebaluatzen eta egiaztatzen bada, eta, aldi berean, honako baldintza hauek betetzen badira:

- Aurrezki garbi positiboa eta diruzaintza-geldikina duen ez betetzeari dagokion ekitaldiko aurrekontua likidatu izana, edo, hala badagokio, likidazioa aurreikusita izatea.

- Hurrengo ekitaldirako defizit eta zor publikoaren helburuak betetzea.

Txosten honetan eta 2019ko ekitaldirako Udalaren likidazioa osatzen duten gainerako agirietan jasotakoaren arabera, defizit eta zor publikoaren helburu guztiak betetzen dira, baita diruzaintza-geldikin baten eta aurrezki garbi positiboa eskuratzea ere.



Gastu-araua ez da bete gastuak gain hartzeagatik, bai gastu korronteak bai Udalaren baliabide propioen inbertsio-gastuak. Halere, Udalak gastuen areagotzea bere baliabideekin bere gain hartu duenetan ere, aurrezki garbiak positiboa izaten jarraitu du, 361.604,53 eurokoa. Beraz, entitate honen finantza-iraunkortasuna bermatu da, eta txosten honetan jasotako datuek hala diote..."

Hirugarrena.- Onartutako likidazioaren kopia bana bidali Arabako Foru Aldundiari eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioari.

17.- Kreditu osagarriaren 1/2020 espedientearen eta Idazkaritza eta Kontu Hartzaitzaren txostenaren kontu ematea, aurrekontu egonkortasuna ez betetzeagatik.-

Ondoren, Udalbatzari kreditu osagarriaren 1. espedientearen berri eman zaio, zeina diruzaintza-geldikin likidoarekin finantzatu den, eta 2020/200 Alkatetza Dekretuaren bitartez onartu den. Aipatutako Alkatetza Dekretu horrek honela dio:

"IKUSI DA.- 2019ko ekitaldirako aurrekontuaren likidazioaren ondoriozko gastu orokorretako diruzaintza-geldikinaren zati bat erabili beharra, hainbat gastu-partida osatu edo sortzeko, eta 2020ko ekitaldiaren aurrekontua onartu arte itxaron ezin duten eta ezinbestekoak diren ordainketak egiteko.

AINZAT HARTU DA.- Arabako Lurralde Historikoko Toki Entitateen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak xedatutakoa eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak xedatutakoa.

Alkatetzak honako **EBAZPEN hauek eman ditu:**

Lehenengoa.- Ondoren zerrendatutako kreditu osagarriak onestea:

PARTIDA	IZENDAPENA	ZENBATEKOA/€
430.471000	"ENPRESA TXIKIENTZAKO, MIKRO-ENPRESENTZAKO ETA SALTOKIENTZAKO COVID-19 LAGUNTZAK"	25.000,00 €
231.480000	"COVID-19aren ERAGINA PAIRATU DUTEN UDALERRIKO FAMILIENTZAKO LAGUNTZAK"	15.000,00 €

GUZTIRA: 40.000,00 €

Aurreko zenbatekoa jarraian zerrendatutako baliabideen bitartez finantzatu da. Hortaz, espedientea orekatuta dago eta ez du defizitik izango:



<u>DIRU-SARREREN PARTIDA</u>	<u>IZENDAPENA</u>	<u>ZENBATEKOA/€</u>
87001	GASTU OROKORRENTZAKO DIRUZAINZA-GELDIKINA	40.000,00 €
	GUZTIRA	40.000,00 €

Onartutako kreditu osagarrien kopurua finantzatzen dituzten diru-sarreraren kopuruaren totalaren berdina da.

Bigarrena.- Kontu Hartzaitzak entitatearen aurrekontuen gastuen egoeraren aldaketak berehala egitea.

Hirugarrena.- Udalbatzari Dekretu honen berri ematea hurrengo osoko bilkuran.

Jarduneko ALKATE-UDALBURUA,

Nire aurrean, IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: Maria Del Carmen Rojo Pitillas.

BEHIN-BEHINEKO DIRUZAINA,

Sin.- Clara Furundarena Udaeta."

Era berean, Udalbatzari 2020ko maiatzaren 12ko Kontu Hartzaitzaren txostenaren berri eman zaio, kreditu osagarria finantzatzeko diruzaintza-geldikina erabiltzeagatik aurrekontuen egonkortasuna ez betetzeari buruzkoa, honako hau dioena:

"KONTU-HARTZAIETZAREN TXOSTENA

GAIA: *Gastu orokorrak diruzaintza-geldikinaren kargura ordaintzeko aurrekontu-aldaketa.*



17/2014 Foru Arauak aldatutako Arabako toki erakundeen aurrekontu-egonkortasun eta finantza-iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren eraginez diruzaintza-geldikinaren erabileran eragindako aldaketan ondorioz (horien eraginez, geldikinaren kargurako kreditu-aldaketa bat onartu ahal izateko, Kontu Hartzaitzaren txosten bat Udalbatzari igorri beharko zaio helburua egonkortasuna dela jakinarazteko) eta Aiarako Udalaren Kontu Hartzaitza postuaren berezko funtzioen arabera, honako txosten hau igortzen da, bi eranskinez osatuta dagoena:

- *I. eranskina: geldikina beste kreditu batzuk gaitzeko erabiltzeko proposamena.*
- *II. eranskina: Kontu Hartzaitzaren txostena gastuak diruzaintza-geldikinekin finantzatzeagatik egonkortasuna bete dadin.*

I. ERANSKINA: GELDIKINA ERABILTZEKO PROPOSAMENA.

HONAKO ESPEDIENTE HAU BAINO LEHEN GASTATU EZ DEN 2019ko EKITALDIAREN LIKIDAZIOAREN GASTU OROKORRENTZAKO DIRUZAINZTA-GELDIKINA: 590.384,93 €.

ERABILERA PROPOSAMENA: 40.000,00 €

Honako aurrekontu-aplikazio hauek sortzeko:

430.471000 "ENPRESA TXIKIENTZAKO, MIKRO-ENPRESENTZAKO ETA SALTOKIENTZAKO COVID-19 LAGUNTZAK": 25.000,00 €

231.480000 "COVID-19ren ERAGINA PAIRATU DUTEN UDALERRIKO FAMILIENTZAKO LAGUNTZAK": 15.000,00 euro.

ZENBATEKOA GUZTIRA: 40.000,00 €

II. ERANSKINA: IDAZKARITZA ETA KONTU-HARTZAITZAREN TXOSTENA, EGONKORTASUNAREN EZ BETETZEARI BURUZKOA

I. TXOSTENAREN OINARRIA

Arabako Toki Erakundeen Aurrekontu Egonkortasun eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren 7.1 artikuluan xedatutakoari jarraiki, 17/2014 Foru Arauak emandako idazkeraren arabera, aurrekontu-egonkortasunaren helburua,



zor publikoaren helburua edo gastu-araua betetzen ez badira, bete ez duen administrazioak Ekonomia eta Finantza Plan bat sortu beharko du, aurtengo eta hurrengo urteetan helburuak edo gastu-araua betetzea ahalbidetuko duena.

Bestalde, Foru Arau beraren 7.3 artikulua ezartzen du aurrekontu-egonkortasunaren helburua ez betetzea diruzaintza-geldikinekin gastuak finantzatzeagatik izan bada, Ekonomia eta Finantza Plana ordezkatu delako Udalbatzari bidali beharko dion ohar batengatik. Ohar horrekin, Udalbatzari Kontu Hartzailera funtzioak betetzen dituen organoaren txostenaren berri emango dio gertaera horren berri emateko, eta atxiki beharko ditu, Tokiko Udalbatzaren finantza iraunkortasunaren analisi eta ebaluazio bat, zeinetan honako hauek, gutxienez, aipatuko dituen:

a) Entitatearen eta haren mendeko erakunde eta organismoen aurrekontu-egonkortasunaren helburuak.

b) Diru-sarreraren eta gastuen partida nagusien proiektzioak, aintzat hartuta bai joeraren bilakaera tendentziala (aldaketen mendekoak ez diren politikak), bai aintzat hartu den aldirako aurreikusi diren neurrien eragina.

c) Diru-sarreraren eta gastuen proiektzioak hartuko dituzten kasu nagusiak.

d) Diruzaintza-geldikina agortu den momentuko aurrekontuen eta ekonomiaren egoera.

e) Hala badagokio, inbertsioaren funtzionamenduak ekarriko duen gastu arruntaren gaineko eragina.

Txosten hau kreditu-aldaketa espedientearen parte izango da.

Osoko bilkurako akta, Kontu Hartzailera organoaren txostenarekin eta euskarritzat balioko duen gainerako dokumentazioa Arabako Foru Aldundiko Tokiko Erakundearen arloan eskumena duen sailari bidaliko zaizkio. Organo horrek, 30 eguneko epean, beharrezkoa den informazio osagarria eskatu ahalko du, bai eta neurri osagarriak har daitezela ere, besteak beste, Ekonomia eta Finantza Plan bat prestatzea, tokiko entitatearen finantza-iraunkortasuna bermatzeko. Adierazitako epea igaro bada, Arabako Foru Aldundiak berariazko ebazpenik eman gabe, espedientea izapidetu ahalko da.

EREMU SUBJEKTIBOA:

Txosten honen helburua aurrekontuaren aldaketaren finantzaketak eragindako egonkortasun-egoera aztertzea da, Aiarako Udalaren diruzaintza-geldikinaren erabileraren bidez.

HELBURUAK:

Diruzaintza-geldikinaren bitartez proposatutako aurrekontu-aldaketaren finantzaketak egonkortasun printzipioa hausten du. Halere, ez betetze horren izaera ez da egiturazkoa, koiunturazkoa baizik.

Helburu horretarako, aurrekontuaren tamaina aztertu egin behar da; horregatik baita txosten honen xedea honako helburu hauen egiaztapena:



- *Aurrezki garbi positiboa*
- *Diruzaintza-geldikin positiboa*
- *Zorpetze bateratuaren maila ekitaldi bakoitzean ezarritako mugen barruan*
- *Aurrekontuen egonkortasuna superabitarekin edo finantzaketa-ahalmenarekin bateratura (KSEren baldintzetan)*
- *Gastu-araua betetzea*

Arabako Toki Erakundeen Aurrekontu Egonkortasun eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren 7. artikuluko 3. atalean xedatutakoaren arabera, 17/2014 Foru Arauak emandako idazkeran, honako txosten hau horrela egituratuko da:

- 1.- Egungo egoeraren diagnostikoa: atal horretan Entitatearen **aurrekontuen egonkortasun** helburuak betetzen diren edo ez aztertuko da.*
- 2.- Gastuen eta diru-sarreraren egoeren proiektzioak.*
- 3.- Inbertsioaren funtzionamenduak ekarriko duen gastu arruntaren gaineko eragina.*

II. EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKO EKONOMIKO-FINANTZARIOA: AURREKONTUEN EGONKORTASUN-HELBURUAK

2019ko ekitaldiari dagokion onartutako azken likidazioan lortutako datuetatik, honako datu hauek dira nabarmentzekoak:

TAMAINA	ZENBATEKOA	BETETZEA/EZ BETETZEA
<i>Aurrezki garbi mugatua</i>	<i>361.604,53 €</i>	<i>POSITIBOA</i>
<i>Gastu orokorretarako diruzaintza-geldikina</i>	<i>590.384,93 €.</i>	<i>POSITIBOA</i>
<i>Aurrekontuen emaitza</i>	<i>272.839,66 €</i>	<i>POSITIBOA</i>
<i>Zorpetze-maila</i>	<i>0</i>	
<i>Aurrekontuen egonkortasuna</i>	<i>305.675,20 €</i>	<i>SUPERABITA. BETETZEA</i>
<i>Gastu-muga</i>	<i>20.388,08 €</i>	<i>% 4 EZ BETETZEA</i>



III. GASTUEN ETA DIRU-SARREREN EGOEREN PROIEKZIOAK

Aldi horretarako Ekonomia eta Finantza Planean zifrak proiektatzeko aukera ematen diguten aldagaiak eta neurriak zehaztasunez definitzeko, honako EGOERA posible hau ezartzen da:

- *Abiapuntua ekonomia suspertzeko egoera da, zeinetan uste dugun tokiko entitatearen jarduera ekonomikoaren mantentze edo hazkunde txikia izango duela. Horrek tokiko diru-sarrerak areagotuko ditu (batez ere Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean parte hartu izanagatik eskuratutakoak) eta zerbitzu publikoen prestazioa ere areagotuko du.*

- *Gastuei dagokienez, murrizketak mantentzen direla da abiapuntua, bai langileen gastuak, bai bestelako gastuak, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeetatik eta aurrekontuen egonkortasun helburuak betetzetik eratorritako murrizketetatik datozenak (gastu-araua, gastu-muga, egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna).*

MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA

Adierazitako ekitaldietan aztertutako magnitudeen bilakaerak honako hauek dira:

HELBURUAK:	2.018	2.019
<i>Aurrekontuen egonkortasuna</i>	302.088,60	305.675,20
<i>Egonkortasuna/Diru-sarrera finantzarioen %</i>	<i>ez</i> 12,64 %	12,75 %
<i>Gastu-araua</i>	-122.672,80	20.388,08
<i>Zorpetzea</i>	0	0
<i>Aurrezki garbi mugatua</i>	553.209,91	361.604,53
<i>Aurrezki garbia/Ohiko diru-sarreraren %</i>	24,90 %	15,56 %
DIRUZAINNTZA-GELDIKINA	588.263,66	590.384,93

IV. DIRUZAINNTZA-GELDIKINA AGORTU DEN MOMENTUKO AURREKONTUEN ETA EKONOMIAREN EGOERA.



III-C.1 DIRUZAINZA-GELDIKINA.

Diruzaintza-geldikin positiboak entitatean epe laburrerako metatutako likidezia islatzen du, alegia, hurbileko etorkizunean gastua finantzatzeko erabilgarri dagoena.

Gastu orokorretarako diruzaintza-geldikina mugatua.

Gastu orokorreari dagokion geldikina aurrekontuari ezartzeke dauden hartzekodunen datuekin eta ordaintzeke dauden diru-sarreraren itzultzeekin bat dator. Horrek magnitude horren egoeraren irudi erreala goa eskaintzen digu. Magnitude horrek toki-erakundearen epe laburreko benetako likideziari buruzko informazioa eskaintzen digu.

III-C.2 Aurrezki garbia.

Aurrezki garbiak Udalbatzak duen zorpetze-ahalmenaren berri ematen digu. Aurrezki garbia negatiboa bada, entitateak ez du izango epe luzerako mailegu-eragiketa berriei aurre egiteko gaitasunik. Aurrezki garbia positiboa bada, epe luzerako mailegu-eragiketa berriei aurre egiteko zer gaitasun duen iragarriko digu, bai eta zer zenbatekoarekin eta zein baldintzatan hitzartu daitezken ere. Halere, magnitude horrek entitatearen zorpetze-ahalmenari buruzko informazio zehatzagoa eman dezan, Foru Arauak xedatutakoaren arabera kalkulaturako zenbatekoa egokitu beharko litzateke, emaitza horretatik ezohiko diru-sarrerak kenduz.

III-C.3 FINANTZA ERAKUNDEEKIKO ZORRA.

Zor bizia erakundearen finantza-kaudimena kalkulatzeko adierazle garrantzitsua da. Kaudimen-arazoak gehiegizko zorpetzearen ondorioz gerta daitezke. Gehiegizko zorpetze horrek finantza-zama areagotzen du, eta, gainontzeko gastu orokorrekin batera, ekarriko du entitatearen ohiko diru-sarrera soilekin gastuei aurre ezin izatea, eta, hortaz, aurrezki garbi negatiboa sortuko da.

III-C.4 AURREKONTUEN EGONKORTASUNA.

Aurrekontuen egonkortasunak erakundeak finantzatzeko duen gaitasunaren edo beharraren berri ematen digu. Horrek zeharka mugatuko du zorpetzea urtero amortizatzen den zenbatekoa baino gehiagokoa izatea (KSE 95ren baldintzetan kalkulatu). Entitateak finantzaketa behar badu (dituen gastu ez-finantzarioak diru-sarrera ez-finantzarioak baino handiagoak dira), entitateak kanpoko finantzaketa (zorpetzea) beharko bere gastuei aurre egiteko.



Entitateak finantzaketa-ahalmena badu (dituen gastu ez-finantzarioak diru-sarrerera ez-finantzarioak baino baxuagoak direnean), finantzaketa-ahalmenak entitateak zorrak kitatzeko eskura dezakeen marjina adieraziko du.

III-C.5 GASTU-ARAU.

Gastu-araua arau fiskala da. Haren helburua gastu konputagarria mugatzea da, ekitaldi ekonomiko batetik bestera hazten bada, soilik aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako onartutako portzentajea hazi dadin eta, modu horretan, aurrezki publiko handiagoa lortzea, gastuaren areagotzea neurri osagarriekin batera ez datorren gastua handitzeko oztopo bat ezarritz. Magnitude hori aurtengo ekitaldirako 2018rako aurrekontu likidazioarekin zehaztuko da.

III-D. MAGNITUDE EZBERDINEN BILAKAERAREN ONDORIOAK

Gastuen eta diru-sarrereren egoeren kapituluetan erabilitako datuetatik, kalkulatzen da diruzaintza-geldikinarekin finantzatutako aurrekontu-aldaketaren finantzaketa ez dela entitate honetarako egiturazko izaera duen desoreka izango, baizik eta izaera koiunturalekoa. Hortaz, urtebeteko eperako helburuak berriro ere bete dira, eta ez da Ekonomia eta Finantza Plan bat sortu behar izango.

V. INBERTSIOAREN FUNTZIONAMENDUAK EKARRIKO DUEN GASTU ARRUNTAREN GAINEKO ERAGINA.

Erabilitako proiektioetatik, aurrezki arrunt garbia positiboa izango dela kalkulatzen da, beraz, honako kreditu-aldaketa honekin finantzatu beharreko gastu (edo inbertsio) horren ondorioz etorkizunean sor daitekeen gastu arruntari entitateak sortutako ohiko diru-sarrerekin aurre egin ahalko lioke. Era berean, zorpetze-ratioa aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako ezarritako helburuaren azpitik dago (ez dago zorpetzerik). Hortaz, bi datuak batera aztertuta ondorioztatzen dugu entitatearen etorkizuneko finantza-iraunkortasuna ez dela arriskuan jarriko.

Gainera, aintzat hartu behar da berez proposatutako aldaketek ez dutela etorkizuneko ekitaldietako ohiko gastuaren areagotze nabarmenik sortuko.

Honako txosten hau kreditu-aldaketa espedientearen parte izango da.

Osoko bilkurako akta, honako txosten honekin eta euskarriztat balioko duen gainerako dokumentazioarekin batera, Arabako Foru Aldundiko Tokiko Erakundearen arloan eskumena duen sailari bidali beharko zaio. Organo horrek 30 eguneko epea izango du beharrezkoa den informazio osagarria eskatzeko, bai eta neurri osagarriak hartzeko ere, besteak beste, Ekonomia eta Finantza Plan bat prestatzea, tokiko erakundearen finantza iraunkortasuna bermatu dadin.



Arespalditzan.-

IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILEA.- Sin.- Carmen Rojo Pitillas.

Elektronikoki sinatutako dokumentua".

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du pozik dagoela diruzaintza-geldikin likidoa gastu orokorretako laguntzak finantzatzeko erabil daitekeelako. Izan ere, aurrekontuari aurkeztu zioten zuzenketaren erantzunean, aipatutakoa baztertu egin zela esan zieten, ezinezkoa omen zelako.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio ez zela esan geldikinak erabili ezin zirenik, baizik eta ezin zela aurrekontuen zuzenketa gisa onartu; izan ere aurreko ekitaldiaren aurrekontuaren likidazioa onartu ondoren soilik erabil daiteke, aurrekontu-aldaketak finantzatzeko.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du haiek aurrekontu-aldaketa aurkeztu zutenean esan zietela ezin zutela onartu, ez baitzekiten zein izango zen geldikinaren zenbatekoa.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du, hain zuzen ere, ezin dela jakin geldikinaren zenbatekoa zein izango den aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onartzen den arte.

Udalbatza jakitun da.

18.- Kreditu-geldikinari gehitzeko 1/2020 espedientearen kontu ematea.- Ondoren, 1/2020 kreditu-geldikina gehitzeari buruzko espedientea onesteko, 2020ko maiatzaren 13ko 2020/201 Alkatetzak Dekretuaren kontu eman zaio Udalbatzari. Dekretu horrek honako hau dio: “**AZTERTU DA.-** Aurreko ekitaldiko kreditu-geldikinak 2020ra luzatutako 2019ko indarreko udal-aurrekontuko gastu egoeran gehitzeari buruzko espedientea.

AINTZAT HARTU DA.- Idazkari eta kontu-hartzaileak adierazitakoaren arabera, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuari buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 32. artikulua eskatzen dituen baldintzetara egokitzen da espedientea, bai eta Aurrekontu-Exekuzioaren Udal Arauak ezartzen duenari ere.

Alkatetzak honako **EBAZPEN hauek eman ditu:**

Lehenengoa.- Jarraian adierazitako kreditu-geldikina gehitzea onestea:

GASTUEN EGOERA-ORRIA



<u>Gastuen partida</u>	<u>Kreditu-geldikinaren deskribapena</u>	<u>Zenbatekoa</u>
133.601.003	OBRAK KUDEATZEA-BARRENA KALEKO APARKALEKUA	2.093,30 euro.
342.609.001	<i>ARESPALDITZAN MEDIKU- KONTSULTATEGIARENTZAKO APARKALEKUAREN OBRAREN PROIEKTUA ETA KUDEAKETA EGITEKO SAREA.</i>	6.606,60 euro.
920.626.000	<i>INFORMAZIOA PROZESATZEKO EKIPAMENDUA</i>	220,70 €
	<i>GUZTIRA</i>	8.920,60 €

Sartu beharreko kredituen guztizko zenbatekoa honako hau: **8.920,60 euro.**

DIRU-SARREREN EGOERA-ORRIA

Zenbateko hori honela finantzatuko da:

Gastu orokorrentzako diruzaintza-geldikina	8.920,60 euro.
GUZTIRA	8.920,60 euro.

Kredituen-geldikinen sartu beharrekoaren totala finantzatzen dituzten baliabideen zenbatekoaren kopuru berdina da.

Bigarrena.- Honako ebazpen hau irmoa eta betearazlea denez, eta ez duenez beste prozedurarik behar, Kontu Hartzaitzak entitatearen aurrekontuen gastuen egoera-orrian aldaketak egitea, berehalako ondorekin.

Hirugarrena.- Hurrengo osoko bilkuran horren kontu ematea.

ALKATE-UDALBURUA,

Nire aurrean, IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: Carmen Rojo Pitillas."

Udalbatza jakitun da.



19.- 2/2020 kreditu-zenbakia duen judizioz kanpoko espediente.- Ondoren, kredituen judizioz kanpoko aitortenari buruzko 2/2020 zenbakia duen espedientearen kontu eman zaio Udalbatzari.

2020ko maiatzaren 6ko obrari buruzko Idazkaritza eta Kontu Hartzailearen txosten-espedienteak honako hau dio:

**"KREDITUEN JUDIZIOZ KANPOKO AITORPENARI BURUZKO 2/2020 IDAZKARITZA
ETA KONTU-HARTZAILETZAREN ESPEDIENTEA.**

Gaia: Kredituak judizioz kanpo aitortzeko espediente. 2/2020 zenbakia. 2020ko aurrekontu-ekitaldia.

Aiarako Udaleko idazkari eta kontu-hartzailearen karguari datxezkion atribuzioei jarraikiz, eta estatu-mailako gaikuntza duten funtzionarioen Araubide Juridikoko Araudia onesten duen irailaren 18ko 1174/87 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraikiz, honako IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA igorri da aurreko ekitaldietako fakturen judizioz kanpoko aintzatespenaren inguruan:

1.- AURREKARIAK

- 2020ko martxoaren 5ean, 2019/12/31ko 309392 zenbakidun faktura heldu zen Udalera **"ETXEGUREN ZERBITZUAK SL"** enpresarena, 1.461,23 euroan (% 21 BEZ barne), beraz, ez da dagokion urtean aitortu, baina Udalarentzako egoki betetako zerbitzua denez, gastua onetsi, eta betebeharrak ekonomikoa eta ordainketa onartu behar dira.

2.- OINARRI JURIDIKOAK

Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 176.1 artikulua, Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duenak, honako hau ezartzen du: "1. Aurrekontu bakoitzaren gastuen egoera-orriaren kredituen kargura, soilik aurrekontu-ekitaldiari dagokion urtean burututako erosketetatik, obretatik, zerbitzuetatik eta gastuetatik datozen betebeharrak ezar daitezke".

Halaber, apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuaren 26. artikulua, zeinaren bidez abenduaren 28ko 39/1998 Legearen seigarren tituluko lehenengo kapitulua garatzen baita, Toki-ogasunak arautzen dituena, honako hau ezartzen du aurrekontuei dagokienez:

"1. Aurrekontu bakoitzaren gastuen egoera-orriaren kredituen kargura, soilik aurrekontu-ekitaldiari dagokion urtean burututako erosketetatik, obretatik, zerbitzuetatik eta gastuetatik datozen betebeharrak ezar daitezke (TOALren 157.1 artikulua).

2. Hala ere, aurreko atalean adierazitakoaz gain, horiek aitortzeko momentuan honako betebeharrak hauek aplikatuko zaizkie indarreko aurrekontu-kredituei:...



c) Errege Dekretu honen 60.2 artikulua erreferentzia egiten die aurreko ekitaldietatik datozen betebeharrak.

Aipatutako Errege Dekretuaren 60.2 artikulua ezartzen du erakundearen Udalbatzari dagokiola kredituen judizioz kanpoko onarpena egitea, betiere aurrekontu-zuzkidurarik ez dagoenean.

Bestalde, azaroaren 28ko 2568/86 Errege Dekretuaren 50.12 artikulua, zeinaren bidez erregulatzen baita Toki-erakundearen Antolakuntzaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Erregelamendua, beste funtzio batzuen artean, kredituak judizioz kanpo onartzeko eskumena ematen dio Udalbatzari.

Aurreko guztia kontuan hartuz, idazkari eta kontu-hartzaile honek EBAZPEN-PROPOSAMEN TXOSTENA igorri du, dagokion Batzordeari helaraziko zaiona, osoko bilkuran onartu aurretik:

1.- 2/2020 zenbakiko espedientea onartzea, jarraian kopiatutako fakturaren kreditua judizioz kanpo onartzekoa, izan ere, aurtengo 2020. urtea baino urtebete lehenagoko faktura denez, ordainketa baimentzeko asmoz Udalaren aberaste bidegabea ekiditeko.

- 2019ko abenduaren 31ko 309392 zk. faktura, ETXEGUREN ZERBITZUAK SL enpresarena, 1.461,23 eurokoa (BEZa barne); 2020rako luzatutako aurrekontuko 920 227020 partidaren kontura ordainduko da.*

Horren berri ematen dut, Arespalditzan.- Idazkari eta kontu-hartzailea."

Aipatutako kontua Ogasuna, Funtzio Publikoa, Barne Erregimena eta Kontuetarako Informazio Batzordearen irizpenaren menpe jarri zen 2020ko maiatzaren 12an eginiko bilkuran, eta aldeko txostena jaso zuen.

Udalbatza jakinaren gainean dago, eta, aho batez, ohiko bozketan erabaki du jarraian aipatutako dugun betebeharraren kreditua judizioz kanpo onartzen duen 2/2020 zk. espedientea onartzea, izan ere, aurtengo 2020. urtea baino urtebete lehenagoko faktura denez, ordainketa baimentzeko asmoz Udalaren aberaste bidegabea ekiditeko.

- 2019ko abenduaren 31ko 309392 zk. faktura, ETXEGUREN ZERBITZUAK SL enpresarena, 1.461,23 eurokoa (BEZa barne); 2020rako luzatutako aurrekontuko 920 227020 partidaren kontura ordainduko da.*

20.- EH Bildu udal-taldeak aurkeztutako mozioa, Toki Erakundearen Finantzaketari buruzkoa.- Ondoren, Udalbatzari aipatutako mozioaren berri eman zaio, honako hau xedatzen duena:

"TOKIKO ENTITATEEN FINANTZAKETARI BURUZKO MOZIOA

COVID-19ak eragindako krisiak ondorio larriak izan ditu Arabako gizartean. Egoera asko aldatzen da egun batetik bestera. Hortaz, berehalako neurriak hartu eta epe labur eta ertainerako neurrien inguruan eztabaidatzen hasi behar gara.



Osasun krisiak, zalantzarik gabe, arlo gizarte eta ekonomia arloei eragingo die, baita zerga-bilketari ere. Jada, nabaritzen hasia da zerga-bilketaren inguruko murrizketa. Zerga-bilketa behar bezala ez dabilenean, lehen kalteak tokiko erakundeek jasaten dituzte. Honako honetan, ezin dugu horrela jardun. Halabeharrezkoa da finantzaketa nahikoa ziurtatzea, tokiko erakundeek biztanleei zerbitzuak eskaini diezazkieten.

Gaur egun, ezohiko neurriak ezarri behar ditugu tokiko erakundeek finantzaketa nahikoa jasotzen dutela ziurtatzeko; izan ere, Ekarpunen legea berritu gabe dago eta Tokiko Erakundeen Legeak aurreikusitako finantzaketa sistema berria, aldiz, garatu gabe. Neurri horiek ezartzerakoan, kontuan hartu beharko dugu Europako Batzordeak jada Egonkortasun eta Hazkunde Ituna aldi baterako eten duela, eta, ondorioz, defizitaren eta zorraren kontrolak malgutu dira, COVID-19 pandemiari erantzuteko behar den inbertsio publikoa errazteko.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiari dagokio tokiko erakundeen finantza-babesa. Babes hori abenduaren 13ko Arabako Toki Erakundeen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko 38/2013 Foru Arauak arautzen du.

Arrazoi guzti horientatik, EH Bildu udal-taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

- 1. Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio, lau hilabeteko epean, zerga-erreforma bidezkoagoa eta progresiboagoa ezar dezan, bildutako zergen murrizketa arintzeko, besteak beste, fortuna handien gaineko zerga berriaren ezarpenaren bitartez.*
- 2. Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio toki-entitateen esku dauden geldikinak erabiltzeko baimena eman dezan, udalek COVID-19 pandemiaren ondorioei aurre egiteko behar dituzten gizarte-inbertsioak egin ditzaten.*
- 3. Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio 2020ko aurrekontuetan ezarritako egonkortasunerako, zorrarentzako eta gastuentzako helburuak malgutu ditzan, udalek beharrezkoak diren gizarte-neurriak har ditzaten.*
- 4. Zerga-bilketaren ondorioz Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtseko diru-sarreretan tokiko erakundeek pairatuko duten beherakada arintze aldera, Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio Foru Aldundiaren eta tokiko entitateen artean konponbideak adosteko neurriak abian jar ditzan."*

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) azpimarratu du aipatutako mozioaren helburua udalen finantzaketa bermatzea dela, eta udalen babes fiskala Foru Aldundien ardura denez, mozioa Foru Aldundira bidali zaio.



Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) egindako zuzenketa argudiatuko duela adierazi du.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) galdetu du posible ote den zuzenketak aurkeztea Batzordetik pasa gabe.

Alkate jaunak erantzun dio Udalbatzara eramandako eta Batzorde batean jadanik jorratu den mozio bati egindako zuzenketa dela.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du bata Foru Aldundiari zuzenduta dagoela, eta bestea, Estatuari. Halaber, erantsi du abstenitu egingo dela planteamenduak ez dituelako oso ondo ulertzen.

Gentza Alamillo Udaeta alkateak (EAJ-PNV) adierazi du finantza erakundeen finantzatoretza Foru Aldundiari dagokiola, baina finantzaketari, aldiz, Estatuari dagokiola.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du tokiko finantzaketa Estatu zentralaren aurrean babesteko kontua dela; izan ere, Estatu zentralak jada Nafarroari ohartarazpen bat eman dio

Udalbatza jakitun da, eta adostu du tokiko erakundeen finantzaketari buruzko EH BILDU udal-talde politikoak aurkeztutako mozioa ezetsiko duela honako bozketa honekin: EH BILDU udal-taldeko ordezkarien aldeko botoa, AIARA BATUZ udal-taldeko ordezkariaren abstentzioa eta EAJ-PNV udal-taldeko bertaratutako ordezkarien aurkako botoa.

21.- Toki Erakundeen finantzaketari buruzko EH Bildu udal-taldeak aurkeztutako mozioari EAJ-PNV udal-taldeak egindako zuzenketa.- Ondoren, Udalbatzari aipatutako mozioari EAJ-PNV udal-taldeak egindako zuzenketaren berri eman zaio, honako hau xedatzen duena:

"EH BILDU UDAL-TALDEAREN TOKIKO ENTITATEEN FINANTZAKETARI BURUZKO MOZIOARI EAJ-PNV UDAL-TALDEAK EGINDAKO ZUZENKETA

Aiarako Udalean EAJ-PNV udal-taldearen bozeramailea den Gentza Alamillo Udaeta jaunak, indarrean dagoen Araudiari jarraiki, toki-erakundeen finantzaketari buruzko EH Bildu udal-taldeak aurkeztutako mozioarentzako honako ZUZENKETA hau aurkeztu du.

JUSTIFIKAZIOA

EAEko erakundeen finantzaketa-eredua partekatutako arriskuaren printzipioan oinarritzen da. Aurreikusitakoen gainteko diru-sarrerak eta urtean gerta daitezken defizitak eredu arruntean biltzen dira. Ereduaren arabera banatuko dira maila instituzional bakoitzari (autonomikoa, forala edo tokian tokikoa) dagozkion ekarpenak.

Eredu horrek azken 40 urteetan erakutsi du bere eraginkortasuna, eta gertatu izan diren disfuntzioak konpentsatu ditu Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren hitzarmenen bitartez.



Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen arabera maila instituzionalen egoerari buruzko azken ikerketak agerian jartzen zuen momentuko osasun arloaren eta Toki Erakundeen finantzaketa maila egokia.

COVID-19 birusak sortutako pandemiaren eraginek gutxienez, % 20ko murrizketa eragingo dute udal-finantzaketa ereduaren diru-sarreretan. Halaber, 2020rako onartutako udal-aurrekontuetan ere izango du eragina.

Bildutako zergen kopuruaren murrizketaren ondorioz, aurrekontu-partidak ahalik eta epe laburrenean berrantolatu beharko dira. Hala ere, lehentasuna eman beharko zaie pertsonen zuzendutakoei, gizarte zerbitzuei zuzendutakoen gainetik. Hori dela eta, hain premiazkoak ez diren ekintzak eta normaltasun berriak ezarritako neurrien eraginez 2020an gauzatuko ez diren ekintzak murriztuko dira berdintasun-egaren egoerak ekiditeko.

Baimena behar da aurreko aurrekontuetako geldikinen baliabideak erabiltzeko. 2021ean ekonomia eta gizarte suspertzeko aurrekontuak denbora-epe luzearekin prestatzeko baimena.

Azaldutako guztiagatik,

EAJ-PNV udal-taldeak EH Bildu udal-taldeak aurkeztutako tokiko erakunde finantzaketari buruzko mozioari egindako honako ORDEZTEKO ZUZENKETA hau aurkeztu du:

ZUZENKETA

1.- Aiarako Udalak ERABAKI DU 2020ko ekitaldirako udal-aurrekontuak moldatzea COVID-19 birusak eragindako pandemiaren ondorioen diru-sarreraren murrizketen berri ofizialki izatean.

2.- Aiarako Udalak ERABAKI DU udal-aurrekontuen Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa kalkulatzeko datu ofizialekin, premiazkoak edo nahitaezkoak ez diren ekintzak murriztu edo ezabatzea, bai eta normaltasun berriak ezarriko dituen neurrien ondorioz, 2020an zehar gauzatuko ez direnak ere.

3.- Aiarako Udalak ERABAKI DU finantzaketaren datu ofizialekin aurrekontuak berregokitzea; pandemiaren eragina gehien pairatu duten pertsonentzako eta gizarte arloarentzako neurriak areagotzea, berdintasun eza ekiditeko. Hori guztia Udalarari edota eskualdeari atxikitako Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean.

4.- Aiarako Udalak Estatuko Gobernuari ESKATZEN DIO Toki Erakundeen esku dauden geldikinek erabiltzeko baimena eman dezan, udalek COVID-19 pandemiaren ondorioei aurre egiteko behar dituzten gizarte-inbertsioak egin ditzaten. Horretarako, hori ekiditen duen aurrekontuen egonkortasun-legea aldatu beharra dago.

5.- Aiarako Udalak Estatuko Gobernuari ESKATZEN DIO erakundeen egonkortasun, zor eta gastu helburuak malgutu ditzan, erakundeek baliabide ekonomikoak izan ditzaten eta krisi egoerari kaudimen handiagorekin erantzuteko gai izan daitezen.

Arespalditzan, 2020ko maiatzaren 18an.

SIN.:



EAJ-PNV udal-taldeko bozeramailea."

Gentza Alamilo Udaeta alkateak (EAJ-PNV) adierazi du diruzaintza-geldikina mugatzeari dagokionez, Udalak zorrik ez duenez, ez duela mugarik, eta, beraz, ez dela beharrezkoa Foru Aldundiari baimena eskatzea. Erantsi du Madrilen finkatzen dela gastu-muga.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) jakinarazi du zerga-erreforma bidezkoagoa eta progresiboagoa eskatzen dutela, baita errenta altuagoi zerga handiak ezartzea ere; izan ere, bizi dugunaren moduko krisi-garaian, guztiok estutu behar dugula gerrikoa, baina errenta altuenek horretarako gaitasun handiagoa dute. Gaineratu du EAJ-PNV udal-talde politikoak dioenez, pandemiak sortutako egoeraren eta diru-sarreraren murrizketaren ondorioz, premia-koak edo nahitaezkoak ez diren ekintzak murriztu edo ezabatu beharko lirakeela, zeintzuk izango diren edo norik erabakiko duen zehaztu gabe.

Gentza Alamilo Udaeta alkateak (EAJ-PNV) erantzun du Udalbatzak erabakiko duela.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du ikusteko dagoela denen artean erabakitzen den ala ez, gehiengoa baitago; ohartarazi du Aldundiak Estatuak baino eragin handiagoa izan dezakeela.

Gentza Alamilo Udaeta alkateak (EAJ-PNV) azaldu du kasu batzuetan EAJ-PNV udal-taldeak proposamenak botako dituela Aiarako herritarrek ordezkari-tza eman dietelako, eta batzuetan adostasunak lortuko direla, baina hala ez bada, gobernu-taldeak erabakiko duela, baina ez EAJ-PNV udal-taldeak gehiengoa duelako, baizik eta biztanleriak eman dion ordezkari-tzarenatik.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) ohartarazi du Alkatea jauna esaten ari dela ekintza premia-koenak adostuko dituela.

Gentza Alamilo Udaeta alkateak (EAJ-PNV) esan du adostasuna lortzen saiatuko dela.

Esku-hartzeak amaitu eta gero, Udalbatza jakitun da, eta adostu du Toki Erakundearen Finantzaketari buruzko EH BILDU udal-talde politikoak aurkeztutako mozioari EAJ-PNV taldeak egindako zuzenketa onetsiko duela honako bozketa honekin: EAJ-PNV udal-taldeko bertaratutako ordezkarien aldeko botoa, AIARA BATUZ udal-taldeko ordezkariaren abstentzioa eta EH BILDU udal-taldeko ordezkarien aurkako botoa.

22.- Aiara udalerriko norbanako, familia-unitate, autonomo, enpresa txiki eta mikro-enpresei laguntza ekonomikoa emateko deialdia eta oinarriak onartzea koronabirusaren (COVID-19) bilakaeraren ondorio ekonomikoak arintzeko.- Ondoren, koronabirusaren (COVID-19) bilakaeraren ondorio ekonomikoak arintzeko Aiara udalerriko norbanako, familia-unitate, autonomo, enpresa txiki eta mikro-enpresei laguntza ekonomikoa emateko prestatutako oinarrien berri eman zaio Udalbatzari.



Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ), adierazi du aldeko botoa emango duela, eta beharrezkoa dela argi balego, deialdi berri bat egingo litekeela.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) nabarmendu du bere taldea premia horiek jorrazteko diru-partida bat ematearen alde dagoela, baina galdetu du ea aurretik azterketarik egin den.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ezin dela jakin, adibidez, langabezian dauden pertsonen kopurua, baina bai ordea udalerrian zenbat taberna, landetxe eta abar dauden langabezia-egoeran, zenbatespena egin ahal izateko.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU), ohartarazi du, normalean, haurren edo menpeko pertsonen zaintza-rola emakumeek hartzen dutela, eta, bere ustez, generoa ez dela kontuan hartzen ari.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du eszedentzia eskatzen duten emakumeak zein langabezian geratzen direnak hartzen direla barne.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du laguntza ematearen alde egon arren, bere taldea abstenitu egingo dela.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak eskatu du laguntza deialdia ahalik eta gehien zabaltzea, biztanleria orokorrak haren berri izan dezan. Gaineratu du oinarriek ezartzen badute ere hiru hilabeteko epean erantzunik ematen ez bada ukatua izan dela, baina, bere ustez, eskaera guztiei erantzun behar zaiela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio, deialdia zabaltzeaz gain, izapidea Udalaren egoitza elektronikoa argitaratuko dela izapidetze elektronikoa egin ahal izateko. Adierazi du ere oinarriek ez dutela ebatziko ezartzen ez dela, baizik eta uste dela epe barruan ebazpenik ez egiteak eskatzaileari galaraziko diola errekurso-bidetik sarbidea izatea, egokitzen hartzen bada.

Esku-hartzeen ondoren, puntu hori adostu zen EAJ-PNV eta AIARA BATUZ udal-taldeetako kideen aldeko botoekin eta EH BILDU udal-taldeko ordezkarien abstentzioarekin:

LEHENENGOA .- Deialdia eta premiazko deialdiko oinarri orokorrak onartzea Aiara udalerriko pertsona fisikoentzako, familia-unitateentzako, autonomoentzako, enpresa txikientzako eta mikro-enpresentzako dirulaguntzak emateko, koronabirusak (COVID-19), eragindako ondorio ekonomikoak arintzeko. Deialdiaz gain, hari atxikitako eranskinak ere onartzea, zeinaren testua, Aiarako Kuadrillako Berdintasun teknikariak aztertu ondoren, honako hau den:

KORONABIRUSAK (COVID-19) ERAGINDAKO ONDORIO EKONOMIKOAK ARINTZEKO AIARA UDALERRIKO PERTSONA FISIKOENTZAKO, FAMILIA-UNITATEENTZAKO, AUTONOMOENTZAKO, ENPRESA TXIKIENTZAKO ETA



MIKRO-ENPRESENTZAKO DIRULAGUNTZAK ESKURATZEKO PREMIAZKO DEIALDIAREN OINARRIAK.

1. ARTIKULUA.- OINARRIEN HELBURUA.

Oinarri horien helburua dirulaguntzak eskuratzeko premiazko deialdia arautzea da, hain zuzen ere, koronabirusak (COVID-19) eragindako ondorio ekonomikoak arintzeko Aiara udalerriko pertsona fisikoentzako, familia-unitateentzako, autonomoentzako, enpresa txikientzako eta mikro-enpresentzako diru-laguntzei dagokiena.

Aiarako Udala, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioa denez, eta berehala jarduteko eta arazo ekonomikoak arintzeko helburua duenez, COVID-19 pandemiak udalerriko enpresa txikietan zein mikroenpresetan, autonomoengan eta familiengan eragindako ondorio ekonomikoen aurrean, diru-laguntzen deialdi horrekin saiatzen ari da talde horiei likidezia gehigarri bat izan dezaten, pairatzen ari garen pandemiaren ondoriozko egoera larria behintzat partzialki arintzeko.

Deialdi horrekin lortu nahi diren helburuak honako hauek dira:

- Pandemiaren ondorioz negozioak itxi izanaren ondorioz diru-sarreren beherakada konpentsatzea.
- Ezinbestekoak diren edo ez diren jardueren barruan egoteagatiko galera ekonomikoak, baita ondasun eta zerbitzuen ekoizpena zein errealizazioa osorik edo partzialki geldiarazi edo eten behar izateagatikoak ere.
- Urrutiko lana edo ikasketak erraztea.
- Familia-bizitza eta lana bateratzeko neurrien kostua konpentsatzea.
- Enplegu-galeraren kasuan, likidezia apur bat eskaintzea.

Ez dira onartuko alarma-egoeraren aurretik gertatu ziren egoerak, hots, 2020ko martxoaren 14a baino lehen gertatutakoak.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da 2.500,00 euro baino altuagoa izan, pertsona edo entitate onuradun bakoitzeko.

Deialdi horretan aurreikusitako dirulaguntzak, helburuak betetzeko eraginkortasuna eta baliabide publikoak erabiltzeko eta esleitzeko eraginkortasuna publikitatearen, gardentasunaren,



konkurrentziaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta bereizkeriaren ezaren printzipioen menpe egongo dira.

Dirulaguntza horiek Aiarako Udalak onartutako Udal Dirulaguntzen emakidaren Ordenantza Arautzaile Orokorren arabera izango dira, baita beste hauen arabera ere: Arabako Lurralde Historikoaren Subentzio Eta Transferentzien otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauari, Diru-laguntzei buruzko uztailaren 21eko 886/2006 Errege Dekretuak onartutako azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorri eta ezar daitekeen aplikagarria den gainontzeko legeria.

2. ARTIKULUA.- LAGUNTZA-LERROAK

Aipatutako dirulaguntza deialdiak honako laguntza-lerro hauek jasotzen ditu:

- 1) **Egoitza soziala Aiara udalerrian duten enpresa txikiak eta mikro-enpresak,** Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan jasotako definizioaren arabera.
(Mikro-enpresa: batez beste 10 langile baino gutxiago izan beharko ditu eta bere aktiboa edo eragiketa bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean jasotzen denaren arabera, 2 milioi euro baino gutxiagokoa izan beharko da.
Enpresa txikia: batez beste, 50 langile baino gutxiago izan beharko ditu eta bere aktiboa edo eragiketa bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean jasotzen denaren arabera, 10 milioi euro baino gutxiagokoa izan beharko da.
Gainera, enpresa txikiak edo mikro-enpresek pandemiaren ondoriozko diru-sarreraren beherakada pairatu behar izan dute, hain zuzen ere, 2019ko azken hiruhilekoarekin alderatuta, % 70etik gorako beherakada.
- 2) **Aiara udalerriko langile autonomoen erregimen berezian izen emanda** dauden pertsona guztiak.
Erregimen berezi horren parte direnek pandemiaren ondoriozko diru-sarreraren beherakada pairatu behar izan dute, hain zuzen ere, 2019ko azken hiruhilekoarekin alderatuta, % 70etik gorako beherakada.
- 3) **Aiara udalerrian, jendaurrean zabalik izaten den saltoki edo establezimendu bateko titulartasuna duten pertsonak,** betiere, alokatutako lokal batean jarduten badute.
Saltoki edo establezimenduak pandemiaren ondoriozko diru-sarreraren beherakada pairatu behar izan dute, hain zuzen ere, 2019ko azken hiruhilekoarekin alderatuta, % 70etik gorako beherakada.
- 4) **Aiara udalerrian, jendaurrean zabalik izaten den saltoki edo establezimendu bateko titulartasuna duten pertsonak,** betiere, alokatutako lokal batean jarduten badute.

Saltoki edo establezimenduak pandemiaren ondoriozko diru-sarreraren beherakada pairatu behar izan dute, hain zuzen ere, 2019ko azken hiruhilekoarekin alderatuta, % 70etik gorako beherakada.



5) **14 urtetik beherakoek gurasoak edo beren kargura premia bereziak dituzten zein mendeko pertsonak dituzten zaintzaileak, betiere pertsona horiek familia-etxebizitzan zaintzeko soldatarik gabeko edo antzeko baimen bat eskatu behar izan badute.**

Edonola ere, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko 13/2013 Foru Arauaren 98. artikuluan xedatzen denaren arabera, familia-unitateak ezingo ditu honako zenbateko hauek baino altuagoak diren diru-sarrerak jaso:

- Familia-unitateko bi kiderekin, LGS 1,5 biderren baliokidea.
- Familia-unitateko hiru kiderekin, LGS 2 biderren baliokidea.
- Familia-unitateko lau kiderekin, LGS 2,5 biderren baliokidea.
- Familia-unitateko bost kide edo gehiagorekin, LGS 3 biderren baliokidea.

6) **Alarma-egoera ezarri zuen 463/2020 Errege Dekretuaren ondorioz lanpostua galdu duten pertsonak** (2020ko martxoaren 14tik aurrera).

Edonola ere, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko 13/2013 Foru Arauaren 98. artikuluan xedatzen denaren arabera, familia-unitateak ezingo ditu honako zenbateko hauek baino altuagoak diren diru-sarrerak jaso:

- Familia-unitateko bi kiderekin, LGS 1,5 biderren baliokidea.
- Familia-unitateko hiru kiderekin, LGS 2 biderren baliokidea.
- Familia-unitateko lau kiderekin, LGS 2,5 biderren baliokidea.
- Familia-unitateko bost kide edo gehiagorekin, LGS 3 biderren baliokidea.

7) **Dependentzia-graduren bat duten pertsonaren baten kargura dauden zaintzaileak.**

Halere, PFEZaren Foru Arauaren 98. artikuluan xedatzen denaren arabera, familia-unitateak ezingo ditu honako zenbateko hauek baino altuagoak diren diru-sarrerak jaso:

- Familia-unitateko bi kiderekin, LGS 1,5 biderren baliokidea.
- Familia-unitateko hiru kiderekin, LGS 2 biderren baliokidea.
- Familia-unitateko lau kiderekin, LGS 2,5 biderren baliokidea.
- Familia-unitateko bost kide edo gehiagorekin, LGS 3 biderren baliokidea.

8) **Telelana egiteko zein ikasteko material elektronikoa erosi behar dituzten pertsonak.**

Aipatutako familia-unitateak, PFEZren Foru Arauaren 98. artikuluan xedatzen denaren arabera, ezingo ditu honako zenbateko hauek baino altuagoak diren diru-sarrerak jaso:

- Familia-unitateko bi kiderekin, LGS 1,5 biderren baliokidea.
- Familia-unitateko hiru kiderekin, LGS 2 biderren baliokidea.
- Familia-unitateko lau kiderekin, LGS 2,5 biderren baliokidea.
- Familia-unitateko bost kide edo gehiagorekin, LGS 3 biderren baliokidea.

3. ARTIKULUA.- ESKATZEKO BALDINTZAK

Dirulaguntza eskatzen duten pertsonak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:



- Udal Diruzaintzarekin, zerga sistemarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez izatea.
- Azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazten denaren arabera, EZ izatea dirulaguntzen onuradun izateko eskubidea lortzeko debekuren bat.

Enpresa txikien eta mikro-enpresen kasuan:

- Aiara udalerrian izatea jarduera ekonomikoa burutzen duen erakundearen egoitza soziala.
- Lanaldi osoko edo lanaldi partzialeko langileak izatea, kontratu mugagabea dutenak, 2020ko martxoaren 14tik aurrera.
- Ekonomia-jardueren gaineko zergari dagokion atalean izena emanda egotea.
 - Sozietatearen legezko ordezkariaren zinpeko adierazpenaren bidez, % 70etik gorako pandemia dela eta, diru-sarrerak gutxitu izana 2019ko azken hiruhilekoarekin alderatuta.

KONPROMISOA: Langileen kontratuak gutxienez urtebetez mantentzea.

Autonomoen kasuan:

- Aiara udalerriko langile autonomoen erregimen berezian izena emanda egotea.
- Ekonomia-Jardueren gaineko Zergari dagokion atalean izena emanda egotea.
 - Zinpeko adierazpen baten bidez aitortzea, pandemia dela eta, diru-sarrerak % 70etik gora gutxitu zaizkiola 2019ko azken hiruhilekoarekin alderatuta.

KONPROMISOAK: Jarduera gutxienez urtebetez mantentzea.

Jendaurrean zabalik dauden saltoki edo establezimenduen kasuan:

- Aiara udalerrian kokatuta egotea.
- Jarduera alokatutako lokaletan zein jabearen jabetzakoan gauzatzea.
- Ekonomia-jardueren gaineko zergari dagokion atalean izena emanda egotea.
 - Zinpeko adierazpen baten bidez aitortzea, pandemia dela eta, diru-sarrerak % 70etik gora gutxitu zaizkiola 2019ko azken hiruhilekoarekin alderatuta.

KONPROMISOAK: Jarduera gutxienez urtebetez mantentzea.

14 urtetik beherako haurren gurasoaren kasuan zein premia bereziak edota mendekotasuna duten pertsonen ardura duten zainzaileen kasuan:

- Aiara erroldatuta egotea.
- 14 urtetik beherako zein premia bereziak edota mendekotasuna duten pertsonen familia-unitateko kide izatea.
 - Aipatutako familia-unitateak, PFEZren Foru Arauaren 98. artikuluan xedatzen denaren arabera, ezingo ditu honako zenbateko hauek baino altuagoak diren diru-sarrerak jaso:
 - Familia-unitateko bi kiderekin, LGS 1,5 biderren baliokidea.
 - Familia-unitateko hiru kiderekin, LGS 2 biderren baliokidea.
 - Familia-unitateko lau kiderekin, LGS 2,5 biderren baliokidea.



- Familia-unitateko bost kide edo gehiagorekin, LGS 3 biderren baliokidea.
- Ordaindu gabeko baimena jaso izana, 2020ko martxoaren 14tik aurrera.

Alarma-egoeraren ezarpenaren ondorioz, lanpostua galdu duten pertsonen kasuan:

- Aiaran erroldatuta egotea.
 - Aipatutako familia-unitateak, PFEZren Foru Arauaren 98. artikuluan xedatzen denaren arabera, ezingo ditu honako zenbateko hauek baino altuagoak diren diru-sarrerak jaso:
 - Familia-unitateko bi kiderekin, LGS 1,5 biderren baliokidea.
 - Familia-unitateko hiru kiderekin, LGS 2 biderren baliokidea.
 - Familia-unitateko lau kiderekin, LGS 2,5 biderren baliokidea.
 - Familia-unitateko bost kide edo gehiagorekin, LGS 3 biderren baliokidea.

Mendekotasun-graduren bat duen pertsona bat ardurapean duten pertsonen kasuan:

- Aiaran erroldatuta egotea.
- Mendekotasuna aitorenaren frogagiria izatea.
 - Aipatutako familia-unitateak, PFEZren Foru Arauaren 98. artikuluan xedatzen denaren arabera, ezingo ditu honako zenbateko hauek baino altuagoak diren diru-sarrerak jaso:
 - Familia-unitateko bi kiderekin, LGS 1,5 biderren baliokidea.
 - Familia-unitateko hiru kiderekin, LGS 2 biderren baliokidea.
 - Familia-unitateko lau kiderekin, LGS 2,5 biderren baliokidea.
 - Familia-unitateko bost kide edo gehiagorekin, LGS 3 biderren baliokidea.

Telelana egiteko zein ikasteko material elektronikoa erosi behar duten pertsonen kasuan:

- Aiaran erroldatuta egotea.
 - Aipatutako familia-unitateak, PFEZren Foru Arauaren 98. artikuluan xedatzen denaren arabera, ezingo ditu honako zenbateko hauek baino altuagoak diren diru-sarrerak jaso:
 - Familia-unitateko bi kiderekin, LGS 1,5 biderren baliokidea.
 - Familia-unitateko hiru kiderekin, LGS 2 biderren baliokidea.
 - Familia-unitateko lau kiderekin, LGS 2,5 biderren baliokidea.
 - Familia-unitateko bost kide edo gehiagorekin, LGS 3 biderren baliokidea.

4. ARTIKULUA.- AURREKONTU-ZUZKIDURA.



Deialdiko diru-laguntzen gehieneko zenbatekoa 40.000,00 eurokoa da.

Aurrekontu-kreditua 2020ra luzatutako 2019ko udal-aurrekontuaren honako ezarpen hauetara bideratuko da:

- 430.471000 "Enpresa txikientzako, mikro-enpresentzako eta saltokientzako COVID-19 laguntzak"
- 231.480000 "COVID-19ren eragina pairatu duten udalerriko familientzako laguntzak"

5. ARTIKULUA.- ESKAERAK .

5.1. Eskaerak eta aurkezteko epea

Eskaerak deialdi horren **I. eranskina** agertzen den eskabidean egingo dira, eta Udaleko sarrera-erregistroan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako edozein bide erabiliz aurkeztuko dira **10 egun balioduneko epean**, deialdiaren laburpena Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

Udaleko erregistroan ahalik eta jende gutxien pilatzeko, eskabidea eta dirulaguntza eskatzeko behar den dokumentazioa bide telematikoen bitartez aurkeztea gomendatzen da, **eta posta elektronikoa ez da baliozko bitartekoa izango deialdiko dirulaguntza eskatzeko.**

Aurreko paragrafoan jasotakoa ez zaie ezarriko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan aipatutako pertsona juridikoei eta beste hainbati. Horiek, bide telematikoa erabili behar izango dute halaberrez (www.aiarakoudala.eus), beraz, pertsona juridiko eta entitate horiek egindako aurrez aurreko eskaerak ez dira onartuko.

5.2. Eskaeren inguruko informazioa eta izapidetzea: deialdiari lotutako informazio guztia www.aiarakoudala.eus webgunean izango da eskuragarri.

Era berean, Aiarako Udalean eskuratu ahalko dira eskabideak.

5.3. Atxiki beharreko dokumentazioa:

Laguntza-eskabidea deialdi honetako **I. eranskinean** aurkeztu beharko da, eta horrekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Gizarte Segurantzako betebeharrak eta zerga-betebeharrak egunean edukitzearen ziurtagiria edo, hala badagokio, eskatzaileak sinatutako baimena, Aiarako Udalak bere izenean eskumena duen administrazioari ziurtagiri bat eska diezaion eskatzaileak Gizarte Segurantzako betebeharrak eta zerga-betebeharrak egunean dituela frogatzeko. (**II. eranskina**).



- Zinpeko adierazpena zeinetan ezartzen den azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazten denaren arabera, eskatzaileak EZ duela diru-laguntzen onuradun izateko eskubidea lortzeko debekuren bat. (**III. eranskina**)

Enpresa txiki eta mikro-enpresen kasuan, honako dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Langileen kopurua eta eragiketen bolumena egiaztatzen duen enpresaren ordezkariaren ziurtagiria.
- Enpresa eratzeko eskrituraren kopia, egoitza soziala Aiaran duela egiaztatzen duena.
- Lan-kontraturen edo -kontratuen kopia.
- Kotizatu den azken hilabeteko Gizarte Segurantzako kotizazio-buletina (TC2).
- Enpresaren ordezkariaren zinpeko adierazpena, zeinaren bitartez egiaztatzen den pandemia dela eta % 70etik gorako beherakada izan duela diru-sarreretan, 2019ko azken hiruhilekoarekin alderatuta.

Autonomoen kasuan, honako dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dira:

- 2020ko martxoaren 14tik Langile Autonomoen Erregimen Berezia altan emanda egotea eta jarraitzea egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda izatea, dagokion atalean. Bestela, Udalak ofizioz egiaztatuko du ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda izatea.
- Zinpeko adierazpena, zeinaren bitartez egiaztatzen den, pandemia dela eta, % 70etik gorako beherakada izan duela diru-sarreretan, 2019ko azken hiruhilekoarekin alderatuta.

Haiena den edo alokatutako lokaletan jarduten duten negozioen kasuan, honako dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Errentamendu-kontratua eta ordaindutako azken hileko ordainketaren egiaztatzea, alokatutako lokalen kasuan.
- Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda izatea, dagokion epigrafean. Bestela, Udalak ofizioz egiaztatuko du ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda izatea.
- Lokalaren titulartasuna egiaztatzen duen ziurtagiria edo jabetza-eskrituraren kopia. Bestela, Udalak ofizioz egiaztatuko du katastroan lokalaren jabetza, enpresaburua lokalaren jabea den kasuetan.
- Titularraren zinpeko adierazpena, zeinaren bitartez egiaztatzen den, pandemia dela eta, % 70etik gorako beherakada izan duela diru-sarreretan, 2019ko azken hiruhilekoarekin alderatuta.



14 urtetik beherako haurren gurasoaren kasuan zein premia bereziak edota mendekotasuna duten pertsonen ardura duten zaintzaileen kasuan, honako dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Familia-liburuaren fotokopia.
- Enpresak igorritako ziurtagiria, zeinaren bitartez 2020ko martxoaren 14tik aurrerako soldatarik gabeko baimena egiaztatzen den.
 - Familia-unitateak egindako azken errenta-aitorpena eta, errenta-aitorpenik egiteko betebeharririk ez badu, aitortpena aurkeztu ez izanaren egiaztatzea eta eskatzaileak izenpetutako 2019an jasotako diru-sarreraren erantzukizunpeko adierazpena.
 - Familia-unitateko kideen kopurua ofizioz egiaztatuko da Biztanleen Udaleko Erroldan.

Alarma-egoeraren ondorioz lanpostua galdu duten pertsonen kasuan, honako dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- 2020ko martxoaren 14tik aurrera enpresak igorritako kontratua azkendu denarenaren frogagiria.
 - Familia-unitateak egindako azken errenta-aitorpena eta, errenta-aitorpenik egiteko betebeharririk ez badu, aitortpena aurkeztu ez izanaren egiaztatzea eta eskatzaileak izenpetutako 2019an jasotako diru-sarreraren erantzukizunpeko adierazpena.
 - Familia-unitateko kideen kopurua ofizioz egiaztatuko da Biztanleen Udaleko Erroldan.

Mendekotasun graduren bat duen pertsona baten gaineko ardura duten pertsonen kasuan, honako dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- Familia-unitateak egindako azken errenta-aitorpena eta, errenta-aitorpenik egiteko betebeharririk ez badu, aitortpena aurkeztu ez izanaren egiaztatzea eta eskatzaileak izenpetutako 2019an jasotako diru-sarreraren erantzukizunpeko adierazpena.
- Mendekotasuna aitortzen duen ziurtagiria.
 - Familia-unitateko kideen kopurua eta mendekotasuna duen pertsonarekiko bizikidetzaren ofizioz egiaztatuko da Biztanleen Udal Erroldan.

Material elektronikoa erosten duten pertsonen kasuan, honako dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- 2020/03/14 eta 2020/05/31 artean egindako erosketaren faktura.
- Fakturaren ordainagiria.
- Enpresa kontratatzaileak faktura ordaindu ez duen ziurtagiria.



- Familia-unitateak egindako azken errenta-aitorpena eta, errenta-aitorpenik egiteko betebeharrak ez badu, aitorpena aurkeztu ez izanaren egiaztagiria eta eskatzaileak izenpetutako 2019an jasotako diru-sarreraren erantzukizunpeko adierazpena.

5.3. Eskaeren berrikuspena:

Eskaerak
deialdiko
arautegian
ezarritako
baldintzak
betetzen ez
baditu, organo
eskudunak

interesdunari jakinaraziko dio gehienez ere 5 egun balioduneko epean gabezia konpon dezan. Epe horri beste 5 egun gehitu ahalko zaizkio, organo izapidegileak egoki baderitzo. Epe horretan eskaera behar bezala aurkezten ez badu, deialditik baztertuko da.

6. ARTIKULUA.- ESPEDIENTEAREN IZAPIDETZEA, EBAZPEN-EPEA ETA EBAZPEN EGITEKO ORGANO ESKUDUNA.

Espedientea izapidetzeko eskumena duen organoa Udaleko idazkari eta kontu-hartzailea da.

Izapidetzea egiteko eskumena duen organoak datuak ezagutzeko, zehazteko egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen ofiziozko egiaztatze guztiak egingo ditu, eta horiei jarraiki burutuko da ebazpen-proposamena.

Eskabideak aurkezteko epea igaro ondoren, idazkari eta kontu-hartzaileak igorriko du ebazpen-proposamen txostena.

Ebazpen-proposamen txostena, Ogasuna, Funtzio Publikoa, Barne Erregimen eta Kontuetarako Batzorde Berezi Iraunkorrari helaraziko zaio, Irizpen bat eman dezan.

Ebazteko eskumena izango duen organoa Alkatetza izango da.

Ebazpena ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea ezin da hiru hilabete baino luzeagoa izan, deialdi hori argitaratzen denetik kontaktzen hasita.

Epemuga iragan eta gero, interesdunek ebazpenaren berri jasotzen ez badute, isiltasun administratiboarekin ulertu beharko dute beren dirulaguntza eskaera ez dela onartu.

Deialdiari dagozkion udal-laguntzen lerroa **bateragarria izango da** beste edozein administraziok abian jar ditzakeen laguntzekin, **betiere, interesdunak COVID-19 pandemiarengatik jasan dituen kalteak baino zenbateko altuagoa duten laguntza publikoak jasotzen ez baditu.** Horrelakoetan, jaso duen gehiegizko zenbatekoa itzuli beharko du, dirulaguntza publikoei buruzko araudiaren arabera.



Dirulaguntzaren ordainketa banku-transferentziaren bidez egingo da. Horregatik, onuradunak **I. eranskinean** adierazi beharko du kontu korrontearen zenbakia, dirulaguntzaren helburua behar bezala justifikatu eta gero.

7. ARTIKULUA.- ESKAERAK BALIOZTATZEA ETA KUANTIFIKATZEA

Eskabideak balioztatzeko eta kuantifikatzeko, laguntza-lerro bakoitzeko baldintzak betetzen direla egiaztatuko da, eta honako zenbateko hauen arabera kuantifikatuko dira:

ENPRESA TXIKIAK ETA MIKRO-ENPRESAK:

LAGUNTZAREN ZENBATEKOA: 200,00 euro, 2020ko martxoaren 14an lanaldi osoko kontratu mugagabea zuen langile bakoitzarengatik. Lanaldi partziala duten langileen kasuan, zenbatekoa proportzionalki murriztuko da.

AUTONOMOAK:

LAGUNTZAREN ZENBATEKOA: 700,00 euro

JENDAURREAN ZABALIK DAUDEN SALTOKI EDO ESTABLEZIMENDUAK:

LAGUNTZAREN ZENBATEKOA LOKALA ALOKATUTAKOA BADA: Hileko ordainketa baten zenbateko osoa, gehienez 600,00 euro.

LAGUNTZAREN ZENBATEKOA LOKALA JABEAREN TITULARTASUNEKO BADA: 300,00 euro.

14 URTETIK BEHERAKO HAURREN GURASOAREN KASUAN ZEIN PREMIA BEREZIAK EDOTA MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONEN ARDURA DUTEN ZAINZAILAK:

LAGUNTZAREN ZENBATEKOA: 200,00 euro

LANA GALDU DUTEN PERTSONAK:

LAGUNTZAREN ZENBATEKOA: 400,00 euro

MENPEKOTASUNA DUTEN PERTSONAK:

LAGUNTZAREN ZENBATEKOA: 200,00 euro



MATERIAL ELEKTRONIKOA EROSI DUTEN LANGILE ZEIN IKASLEAK:

LAGUNTZAREN ZENBATEKOA: Ordaindutako fakturen % 20, zenbateko hori 1.000 eurotik gorakoa ez bada.

Arespalditzan.- ALKATEA.- Gentza Alamillo Udaeta... ERANSKINAK”

BIGARRENA .- Deialdi hau Diru-laguntzen Datu-Base Nazionalean argitaratzea.

HIRUGARRENA.- ALHAOn deialdiaren testu osoa argitaratzea aipatutako oinarrien publizitatea egiteko, bai eta Udaleko iragarki-taulan eta Udalaren webgunean iragarki bana argitaratzea ere.

LAUGARRENA.- Dirulaguntza hori Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartzea”.

23.-Aiarako Udaleko zinegotzi den José Antonio Gorbea Alonso jaunak zinegotzi aktari uko egitea.- Ondoren, EH BILDU taldeko José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak 2020ko maiatzaren 7an Udalean aurkeztutako (sarrera-erregistroko zenbakia: 1339) uko-egite idazkiaren berri eman zaio Udalbatzari.

Udalbatza aipatutako uko-egitearen jakitun da, eta Hauteskunde-Batzorde Zentralari hitzarmen horren ziurtagiria igorri beharko dio, 2019ko maiatzaren 26ko Udal Hauteskundeetako EH BILDU taldearen hurrengo zerrendaren egiaztatutuna bidal dezala eskatzeko Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 182.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.”

24.- Alkatetzako Dekretuen kontu ematea.- Ondoren, 2020/95 eta 2020/203 zenbakien arteko (biak barne) Alkatetzako Dekretuen kontu eman zaio Udalbatzari, eta horien helburua, laburbilduz, honako hau da:

" ALKATETZA DEKRETUEN ZERRENDA.-

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/95.- FJ.O.B.- Murgako 3. poligonoko 366-B lursailean egiten ari ziren lanen geldialdia agintzen duena.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/96.- Gizalab Politika Sozialeko Berrikuntza Zentroa.- Luiaondoko 3. poligonoko 1318 lursailean obrak gauzatzeko aginduaren espedienteari



hasiera ematekoa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/97.- D.M.H.- Familia ugariei 2020ko TMIZaren hobaria ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/98.- Aiarako Udalari aholkularitza juridikoa eta defentsa judiziala emateko kontratazio espedientea onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/99.- AFA.- BEZaren 2019ko urteroko likidazioaren onarpena.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/100.- Administrazio Batzarrei 2019ko obrak gauzatzeko gastuengatiko dirulaguntzaren ordainketa egitea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/101.- Administrazio Batzarrei 2019ko zerbitzu-sari teknikoen gastuengatiko dirulaguntzaren ordainketa egitea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/102.- Aldaketa Soziala Berriari banku-abala itzultzea zerbitzua burutu duelako.

ALKATEA DEKRETUA - 2020/103.- Aiarako kuadrilla.- 2019ko diru-ekarpena, hirigintzako gastuak likidatzeko, aparejadoreari eta arkitektoari dagozkien gastuak, alegia.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/104.- S.M.L.F.- Arespalditzan dagoen lursail baten hormak eraisteko obran, hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/105.- Gizalab Fundazioa.- Luiaondoko San Lorenzo kaleko 13. zenbakiko harresia eta korta bat eraisteko Udal obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/106.- ASOCIACIÓN CULTURAL ARTÍSTICA VALLE DE LLANTENO IZENENKO ERAKUNDEA.- 2019ko dirulaguntza zuzena murriztea eta itzulketa prozedurari hasiera ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/107.- ESKUTXI AHOTSAK AIARAKO EMAKUMEEN ELKARTEA.- 2019ko dirulaguntza zuzena murriztea eta itzulketa prozedurari hasiera ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/108.- ASOCIACION SOCIOCULTURAL PEREGAÑA RETES DE LLANTENO ERRETAIAR IZENENKO KULTUR-ELKARTEA.- Egiaztatzea 2019ko dirulaguntzaren justifikazioa partzialki bete ez dela, eta dirulaguntza horren zati bat ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/109.- I.J.V.O.- Arespalditzako Guziesko auzoko 4. zenbakian dagoen hormaren konponketa lanak egiteko udal obra-lizentzia ematea.



ALKATETZA DEKRETUA - 2020/110.- HOGEITALAU EUSKARA ELKARTEA.- 2019ko dirulaguntza zuzena murriztea eta ordaintzeke dagoen zatia ordaintzeko ordainketa agindua ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/111.- EH Bildu udal-taldea.- Informaziora sartzeko eta espedienteak kontsultatzeko eskaera.

ALKATEA DEKRETUA - 2020/112.- Talleres Banoa SL.- Bigarren isuna jartzea, eta MMCC jardueren dokumentazio justifikatzailea eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/113.- AJ.U.Z.- Arespalditzako bordan konponketa lanak egiteko udal obra-lizentzia eskuratzeko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/114.- ASOCIACIÓN CORAL ITZALDE ABESBATZA.- Egiatzatzea 2018ko dirulaguntzaren justifikazioa partzialki bete ez dela, eta dirulaguntza horren zati bat ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/115.- ESKUTXI AHOTSAK AIARAKO EMAKUMEEN TALDEA.- Egiatzatzea 2019ko dirulaguntzaren justifikazioa partzialki bete ez dela, eta dirulaguntza horren zati bat ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/116.- Nekazaritzako plastikoen bilketa zerbitzua esleitzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/117.- Amurrioko Jabetza Erregistroa.- Amelia Hierro Fernándezen jabetzako lursail bati buruzko hirigintza-txostena onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/118.- F.G.O.- Zuhatzako etxebizitza baten fatxada konpontzeko udal obra-lizentzia eskuratzeko dokumentazio osagarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/119.- I.J.V.O.- Arespalditzako etxebizitza baten teilatuaren konponketa lanen hondakinen kudea egiteko fidantza itzultzeko dokumentazio osagarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/120.- 2020 otsaileko langileen eta alkatearen nominen hileroko txostena onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/121.- Gizalab Fundazioa.- Gizalab Fundazioaren izenean dagoen hirigintza-ordena zaharberritzeko espedientea artxibatzea, eta SOMen izenean dagoen espedienteari hasiera ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/122.- Etxaurren Ikastolako IGE.- 2019ko dirulaguntza itzultzeko espedienteari hasiera ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/123.- Aiarako Ehiza eta Arrantza Sozietatea.- 2019ko



dirulaguntza itzultzeko espedienteari hasiera ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/124.- F.C.M.- Kexaa udalerrian lizentziarik gabeko obrekin hirigintza ordena aldatzearen ondorioz espediente bat irekitzea eta etxebizitza bat eraikitzeko obra-lizentzia iraungi dela aitortzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/125.-Udalbatzako kideen onarpen ekonomikoa, 2020ko otsailari dagokiona.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/126.- Alderdi politikoen ekarpen ekonomikoa, 2020ko otsailari dagokiona.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/127.-F/2020/2 fakturen kontabilitate zerrenda onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/128.- AFari egin beharreko ordainketa onartzea, 2019ko apirilaren PFEZren atxikipenaren aitorten ordezkoa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/129.- Agiñagako Administrazio Batzarra.- Agiñagan hondakin-uren araztegiaren sistema ordezkatzeko hondakinen kudeaketa egiteko fidantza itzultzeko dokumentazio osagarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/130. Gizarte Segurantzako izapide eta kudeaketak. 2020ko urtarrilaren kuota ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/131.- M.I.C.F.- Arespalditzan duen etxebizitza bateko leihoak aldatzeko udal obra-lizentzia izapidetzeko behar den dokumentazio osagarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/132.- M.V.I.B.- Murgako lursailen bereizketa eta taldekatze lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/133.- AMA BIRJINA ZURIA.- Egiaztatzea 2019ko dirulaguntzaren justifikazioa partzialki bete ez dela, eta dirulaguntza horren zati bat ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/134.- GAROBEL MENDI TALDEA.- Egiaztatzea 2019ko dirulaguntzaren justifikazioa partzialki bete ez dela, eta dirulaguntza horren zati bat ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/135.- Amurrioko Jabetza Erregistroa.- Aiarako 4. poligonoko 618 lursailari dagokion hirigintza-txostena onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/136.- Murgako Administrazio Batzarra.- Murgako hilerrian gurutze berria jartzeko udal obra-lizentzia izapidetzeko dokumentazioa eskatzea.



ALKATETZA DEKRETUA - 2020/137.- Erbiko Administrazio Batzarra.- Erbi eta Luxo arteko bidearen 1. zatia konpontzeko udal obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/119.- I.J.V.O.- Arespalditzako etxebizitza baten teilatuaren konponketa lanen hondakinen kudeaketa egokia izan denez, bermetzat ordaindutako fidantza itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/139.- P.U.U.- Informazio publikorako sarbidea.- Gorobel mendilerroari lotutako artxiboko dokumentazioa kontsultatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/140.- Zorroza Gestión SL.- 2. isuna ezartzea eta zigor-espeditentari hasiera ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/141.- Orixe Comercial SL.- Zuhatzako bi familiako etxe eraikitze lursailaren aurrean materialak biltzeko eremua gaitzeko baimena ukatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/142.- Etxaurren Ikastola.- 2 urteko ikasgelako laguntzailearen eta psikopedagogia taldearen soldatak ordaintzea, 2020ko otsailari dagozkionak.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/143.- Elkarkidetza Pentsioak.- 2020ko otsailari dagokion likidazio-faktura onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/144.- Izalde Triki Tixa.- COVID-19 pandemiak eragindako osasun-larrialdia dela eta, ikastaroak etetea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/145.- Kirolgest SL.- COVID-19 pandemiak eragindako osasun-larrialdia dela eta, ikastaroak eten direla jakinaraztea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/146.- Arespalditzan turismo erabilerarako etxebizitzaren jarduera gauzatzeko onespena lortzeko dokumentazio osagarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/147.- COVID-19 birusaren hedapena gelditzeko eta saihesteko prebentzio neurriak.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/148.- Aiara Valley SL.- Menagaraiko baserri ba zaharberitzeko obra-lizentzia ematea, bertan teknologia garatzeko zentro bat ezartzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/149.- S.M.L.F.- Etxebizitza bat eraikitze hormak eraisteko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/150.- F/2020/3 fakturen kontabilitate zerrenda onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/151.- Aiarako kuadrilla.- 2020ko urtarrileko gastu orokorren zein bestelako gastuen ekarpenak onartzea.



ALKATETZA DEKRETUA - 2020/152.- ASOCIACIÓN CULTURAL ARTÍSTICA VALLE DE LLANTENO IZENEKO ERAKUNDEA.- Egiatzatzea 2019ko dirulaguntzaren justifikazioa partzialki bete ez dela, eta dirulaguntza horren zati bat ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/153.- ISS Facility Services SA.- Covid-19 osasun-larrialdia dela eta, udal eraikinen garbiketa zerbitzua aldi baterako etetea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/154.- CLUB DEL JUBILADO Y PENSIONISTA SANTIAGO APOSTOL KLUBA.- Egiatzatzea 2019ko dirulaguntzaren justifikazioa partzialki bete ez dela, eta dirulaguntza horren zati bat ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/155.- HONTZURIA ARGAZKI KLUBA.- Egiatzatzea 2019ko dirulaguntzaren justifikazioa partzialki bete ez dela, eta dirulaguntza horren zati bat ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/156.- Alkatetzaren atribuzioak lehen alkateordearen esku uztea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/157.- 2019ko udal-aurrekontuaren likidazioa onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/158.-ISS Facility Services SA.- Udal eraikinen garbiketa eta desinfekzio zerbitzua mugatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/159.- Elkarkidetza Pentsioak.- 2020ko martxoari dagokion likidazio-faktura onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/160.- Fundación Alday fundazioa.- EALZak kudeatzeko gastuetarako ekarpen ekonomikoa, 2020ko otsailari dagokiona.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/161.-F/2020/4 fakturen kontabilitate zerrenda onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/162.- Belako lanak SL.- Osasun-larrialdia dela eta, Aiarako bideak eta haietarako loturak sasitza kentzeko zerbitzu kontratua luzatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/163.- ESKUTXI AHOTSAK AIARAKO EMAKUMEEN ELKARTEA.- Egiatzatzea 2019ko dirulaguntzaren justifikazioa partzialki bete ez dela, eta dirulaguntza horren zati bat ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/164.- 2020ko soldata-igoera dela eta, atzeratutako urtarrileko eta otsaileko alkatearen zein langileen nominen txostena onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/165.- 2020 martxoko langileen eta alkatearen nominen hileroko txostena onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/166.- Alderdi politikoentzako ekarpen ekonomikoa,



2020ko martxoari dagokiona.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/167.- COVID-19 osasun-larrialdiaren ondorioz, Udaleko langileen berrantolaketa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/168.- 2020ko San Prudentzio eguneko jai ekitaldiak etetea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/169.- Aiarako Ehiza eta Arrantza Sozietatea.- 2019ko dirulaguntzaren justifikazioa partzialki beteta ez dagoela aitortzea eta aipatutako dirulaguntzaren zati bat ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/170.- Etxaurren Ikastolako IGE.- Egiatzea 2019ko dirulaguntzaren justifikazioa partzialki bete ez dela, eta dirulaguntza horren zati bat ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/171.-Udalbatzako kideen onarpen ekonomikoa, 2020ko martxoari dagokiona.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/130.- Gizarte Segurantzako izapide eta kudeaketak.- 2020ko otsailari dagokion kuota ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/173.- COVID-19 osasun-larrialdia dela eta, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergaren Erroldaren kudeaketaren izapidetzea etetea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/174 .- J.P.V.- 2019ko Zabor tasaren itzulketa, bidegabeko kobrantzagatik.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/175.- Elder Medio Ambiente SLL.- Zerbitzuaren kontratua amaitzearen ondorioz, ordaindutako fidantzak itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/176.- Kirolgest, SL - Covid-19 osasun-larrialdia dela eta, ikastaroen zerbitzuaren kontratua mantentzearen eta berronkatze ekonomikoaren eskaerak ukatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/177.- Talleres Banoa SL- Eskatutako dokumentazioa aurkezteko emandako epearen luzapena onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/178.- COVID-19 osasun-larrialdia dela eta, San Isidro abere azokaren etetea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/179.- F/2020/5 erregistratutako fakturen kontabilitate zerrenda onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/180.- S.O.M.- D.A.ren kontrako (2020/89) berraztertze-



errekurtsosa ez onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/181.- S.O.M.- D.A.ren kontrako (2020/74) berraztertze-errekurtsosa ez onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/182.- Lehen alkateordeak jarduneko alkate izateari uztea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/183.- COVID-19 osasun-larrialdia dela eta, udal ikastaroak bertan behera utzi eta epe horri dagokion tasaren zati proportzionala itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/184.- COVID-19aren ondoriozko ordaindutako baimenaren ondoren, Udaleko langileak berrantolatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/185.- Elkarkidetza Pentsioak.- 2020ko apirilari dagokion likidazio-faktura onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/186.- Aiarako kuadrilla.- 2020ko urtarrilari eta otsailari dagozkion hiri-hondakin solidoen kudeaketarako finantza-ekarpena onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/187.- ISS FACILITY SERVICES SA.- Itxita dauden udal eraikinen garbiketa kontratuaren aldi baterako etetea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/188.- Errosate Lore.- Arespalditzako lorategietako belarra mozteko zerbitzuaren kontratua esleitzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/189.- L.M.Z.L.- Luiaondoko lorategietako belarra mozteko zerbitzuaren kontratua esleitzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/190.- Alderdi politikoentzako ekarpen ekonomikoa, 2020ko apirilari dagokiona.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/191.-Udalbatzako kideen onarpen ekonomikoa, 2020ko apirilaren dagokiona.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/192.- ISS FACILITY SA.- II. garbiketa kontratua aldi baterako etetea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/193.- 2020 apirileko langileen eta alkatearen nominen hileroko txostena onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/194.- F/2020/6 erregistratutako fakturen kontabilitate zerrenda onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/195.- Gizarte Segurantzako izapide eta kudeaketak. 2020ko martxoaren kuota ordaintzea.



ALKATETZA DEKRETUA - 2020/196.- Eulen SA.- Udaleko langileentzako maskarak hornitzeko kontratuaren esleipena.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/197.- Eulen SA.- Biztanleentzako maskarak hornitzeko kontratuaren esleipena.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/198.- Fundación San José y San Buenaventura Fundazioa.- Arespalditzako Zerrajería Jauregiari erantsitako eraikinaren aurri ekonomiko-espedienteari hasiera ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/199.- AFari dirulaguntza eskaera.- Aiarako Berdintasun Plana

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/200.- 2020ko urtarrileko kreditu osagarriaren espedientea onartzea

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/201.- 2020ko urtarrileko kreditu-geldikina sartzeko espedientea onartzea

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/202.- Orbesport SL.- Udal bulegoetarako babes materiala hornitzeko kontratua esleitzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/203.- Aiaraldea Kooperatiba Elkartea.- Biztanleei COVID-19ari buruzko informazio liburuxkak hornitzeko kontratua esleitzea.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) galdetu du ea zer gertatu den Eulen SA enpresari esleitu zaizkion kontratuei buruzko 2020/196 eta 2020/197 Dekretuekin, zeintzuen bitartez biztanleriarentzako eta Udaleko langileentzako maskarak hornitzeko bi kontratu txiki egin ziren.

Gentza Alamillo Udaeta alkateak (EAJ-PNV) erantzun du kontratu txikiak direla eta, momentuko egoera ikusita, materialen eskuragarritasuna aztertu behar izan zela, eta Eulen SA enpresak hornidura azkarrenaren berme handiena eskaintzen zuela. Halaber, adierazi du maskarak etxebizitzetara bidali izan direla, bi maskara erroldatutako pertsona bakoitzeko.

Udalbatza jakitun da.

25.- Gai-zerrendatik kanpoko gaia .- Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) Udalbatzari jakinarazi dio osoko bilkura honetako gai-zerrendan sartuko dela presazko bidearen bitartez datozen Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetarako bi mahairen kokapen-aldaketari buruzko puntu bat; izan ere, Retes Llanteno mahaiaren eta Arespalditzako mahaietako baten ezaugarriak direla eta, aipatutako bi hauteskunde-mahai horien kokalekua aldatuko da, biztanleen osasuna hobeto babesteko.

Alkateak adierazi du aurreko hauteskundeetan Retes Llanteno, jada, irisgarritasun-arazoak izan zirela eta argindarra ere eten zela, baina, hori alde batera utzita, aipatutako neurria



egungo osasun-larrialdiaren ondorioz ezarriko dela azpimarratu du. Gaineratu du egoeraren berri eman zitzaiola Retes Llantenoako Administrazio Batzarreko lehendakariari. Batzorde horrek, bere partetik, idazki baten bidez adierazi du ez duela egokitzen hauteslekuaren kokapen berria.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du bera ere jarri dela harremanetan Batzordeko lehendakariarekin.

Gentza Alamillo Udaeta alkateak (EAJ-PNV) jakinarazi du ez dakiela arazoren bat sortuko den, baina salbuespeneko neurria dela, osasun-larrialdiaren ondorioz hauteskunde hauetarako hartu beharrekoa.

Udalbatza jakitun da eta EAJ-PNV udal-taldeko kideen aldeko botoarekin, AIARA BATUZ udal-taldeko kidearen botoarekin eta EH BILDU udal-taldeko kideen kontrako botoarekin erabaki du, aipatutako puntua gai-zerrendan sartu, eztabaidatu eta bozkatzea.

25.1. Eusko Legebiltzarrerako 2020ko uztailaren 12ko Hauteskundeetako bi hauteskunde-mahaien kokalekua aldatzea, osasun-larrialdiaren ondorioz.- Horren ondoren, Udalbatzari aldaketaren inguruko proposamenaren berri eman zaio. Biztanleria babesteko osasun-arrazoiengatik, udalerrri honetako bi hauteskunde-mahairen kokapenaren aldaketa proposamenak honela dio:

"IKUSI DA Lehendakariaren maiatzaren 18ko 11/2020 Dekretua, zeinaren bidez Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak deitzen diren, 2020ko uztailaren 12an (igandea) egingo direnak.

IKUSI DA, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 38. artikulua, zeinaren bitartez honako hau xedatzen den: "Hauteskunde-zenbakien, -barrutien mugen, -lekuen eta -mahaien zerrenda udalerrri bakoitzari dagokion Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dute hautesle-eroldaren bulegoaren ordezkartzek deialdia egin eta ondorengo seigarren egunean, udalei jakinarazi eta gero".

IKUSI DA, bizi dugun COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren egoeraren bilakaerak, COVID-19ren ondorioz, birusaren transmisioa ahalik eta gehien saihesteko neurriak hartzera behartzen gaituela oraindik ere.

IKUSI DA udalerrri honetako bi hauteskunde-mahai ez daudela hautesleku egokietan osasun-larrialdi egoera dela eta. Ondorioz, bi mahai horien kokalekua aldatzeko hitzarmen bat hartu beharra dugu, Hauteskundearen egunean Aiarako biztanleriaren osasun-babes hobea bermatu ahal izateko.

IKUSI DA ostegunean, 2020ko maiatzaren 21ean, osoko bilkura egingo dela, eta, Toki erakundearen antolaketa, jarduera eta araubide juridikoaren araudiari buruzko azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 91.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, proposatzen zaio Udalbatza Osoari, premiazko arrazoiak direla medio, honako hitzarmen hau hartzea:



LEHENENGOA.- Biztanleak babesteko osasun-arrazoiengatik, udalerrri honetako zenbait hauteskunde-mahai jarraian xedatutako hautesleku berrietara eramatea:

1. ARESPALDITZAKO BI HAUTESKUNDE-MAHAI, alegia, honako hauek:

- HAUTESBARRUTIA: 01, ATALA: 001, MAHAIA: A
- HAUTESBARRUTIA: 01, ATALA: 001, MAHAIA: B

Gaur egun, bi hauteskunde-mahai horiek honako helbide hau duten hauteslekuan kokatuta daude: La Iglesia auzoa 3, beheko solairua.- ARESPALDITZA (Udal-bulegoen eraikina)

- Proposatzen den aldaketa mahairako helbide bera mantentzea izango da HAUTESBARRUTIA: 01, ATALA: 001, MAHAIA: A (hots, La Iglesia auzoa 3, beheko solairua).- ARESPALDITZA (Udal-bulegoen eraikina); halere, dagokion hauteskunde-mahaiaren lokalaren kokalekua aldatuko da: HAUTESBARRUTIA: 01, ATALA: 001, MAHAIA: B, honako helbide honetara: Elspide auzoa, 2, beheko solairua.- ARESPALDITZA (sindikatuaren lokal zaharraren eraikina).

•
2. RETES LLANTENOKO HAUTESKUNDE-MAHAIARI DAGOKIONEZ:

–HAUTESBARRUTIA: 01, ATALA: 001, MAHAIA: C

Egungo helbidea: Retes Llanteno 24-A. – RETES LLANTENO (Casa Concejo eraikinean)

- Proposatzen den aldaketa hauteskunde-mahai hori Llantenoko honako helbide honetara aldatzea da: Pizparruchi auzoa 35 - Lehen solairua.- LLANTENO (Valle de Llanteno arte-eskolaren eraikina)

BIGARRENA.- Arabako hautesle-eroldaren bulegoko ordezkari zari berehala eman beharko zaio hartzen den hitzarmenaren berri".

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du alkate jauna berarekin harremanetan jarri zela, Llantenoko Administrazio Batzarraren lehendakaria den partetik, galdetzeko ea bere lokala eskuragarri izango zen hauteskunde-mahai bertan kokatzeko (soilik hauteskunde hauetan). Halaber, gaineratu du Retes Llantenoko Administrazio Batzarraren idatzia ikusi zuenean Batzorde horren lehendakariarekin kontaktuan jarri zela azaltzeko soilik hauteskunde hauetarako izango zela, ezohiko konponbide gisa. Gentza Alamillo Udaeta alkateak (EAJ-PNV) adierazi du proposatutako hitzarmena osasun-larrialdiaren egoera dela eta hartu dela, eta ez duela Administrazio Batzarren arteko gatazarrik



sortzeko asmorik; sinpleki, biztanleek osasun-bermearekin boto eskubidea gauzatu ahal izateko hartutako hitzarmena da.

Azpimarratu du hauteskunde hauetarako aldaketa bat besterik ez dela izango.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) azaldu du Arespalditzako mahaiei dagokionez, Gizarte Zentroaren aukera ere aintzat hartu zela, baina aukera baztertu egin zela biztanleria ez nahasteko, urrunago dagoelako.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du, bere ustez, Retes Llantenoko Batzordearekin hitz egin beharko zela, ondoezik ez sortzeko.

Alkateak erantzun dio dagoeneko Batzordeko kideekin hitz egin duela.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) uste du beharrezkoa dela Retes Llantenoko Administrazio Batzarrarekin berriro hitz egitea, hauteskunde hauetarako ezohiko aldaketa baino ez dela eta osasun-larrialdiagatik dela azaltzeko. Erantsi du azalpen horrekin aldaketa onartu dezaketela, eta ondoeza sortzea saihestuko dela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du jada Batzordearekin hitz egin duela, baina idatziari erantzun egingo zaiola. Gaineratu du proposamena Udaleko kideek hartu behar dutela.

Esku-hartzeen ondoren, EAJ-PNV udal-taldeko kideen aldeko botoarekin, AIARA BATUZ udal-taldeko kideenarekin eta EH BILDU udal-taldeko kideen aurkako botoarekin, hitzarmen-proposamena onetsi da.

26.- Eskaerak eta galderak.-

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) honako galdera hauek egin ditu:

- Llorengozen itxiera

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du abeltzainekin hitz egin dutela, materiala erosi dutela (burdin haria, hesolak...), eta abeltzain horietako talde batek konponduko duela.

- Mandaguako arazoari dagokionez, eskatzen du abeltzainei jakinaraz diezaieten ezin direla Mandaguara bertaratu; izan ere isunak jaso ditzakete eremu hura ustiatzeko hitzarmenik ez dagoelako.

- Adierazi du ere geolokatzailea oraindik ez dabilela.

Alkate jaunak erantzun du berriro aztertu beharko dutela.



Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) honako galdera hauek egin ditu:

- Jakinarazi du sarrera-erregistroan ikusi duela Aiarako Anaiarte Zaharra eta Garobel Mendilerroko Batzordearentzako terminal mugikorra erosteko Eroskiko faktura bat, eta nork ordainduko duen galdetu du.

Gentza Alamillo Udaeta alkateak (EAJ-PNV) erantzun du Batzorde horrek duen kontabilitatea ez dela Udalekoa bezalakoa, eta, beraz, terminala Batzordeak ordaindu duela. Halaber, aipatu du terminala erosi zela, hitzartu bezala, sortuko zen hedatze zerrenda abian jartzeko.

- Euskadirako Saharar Ordezkaritzari buruzko sarrera-erregistroan jasotako idatzi bati buruzko informazioa eskatzen du, eta, ildo horretatik, galdetzen du ea ba ote dagoen modurik etxetik ikusteko sarreren, irteeren eta dekretuen edukia.

Alkateak ezetz erantzun du berak ere ezin duela, eta edukia ikusteko modu bakarra Udalari baimena eskatuta dela.

- Aurrekontua bidali duen Excavaciones Campo enpresaren inguruko galdera.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du aurrekontua haiei eskatu zitzaizela egoera ezagutzen baitute; izan ere, iaz urarekin arazo bat izan zen eta haiek bertaratu ziren. Instalazioa berrikusi nahi da, arazorik berriro ez izateko. Gaineratu du 400 edo 500 euroko aurrekontu txikiak izango direla.

- Galdetu nor den Proviser.

Alkate jaunak erantzun du udal-igerilekuetan aterpe bat instalatzeko kontratua esleitu zaion enpresa dela.

- Sare elektriko batean obra handia egiteko 1376 sarrerari buruzko galdera.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du balitekeela Llantenoko oso hondatuta dagoen eta aldatuko den zutoin bati buruzkoa izatea.

Alkateak adierazi du aztertuko dela.

- Fakturazioari eta gasari buruzko 1423 eta 1425 sarrerei buruzko galdera.

Alkate jaunak adierazi du prezio publikoarengatiko likidazioak edo fakturak izan daitezkeela; gaia aztertuko da.



- Irteera-erregistroan dauden bi jakinarazpenei buruzko galdera, alegia bi enpresei egindako jakinarazpenak, lorategiak garbitzeari buruzkoak, eta zerbitzua privatizatzeari buruzko galdera.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ez dela privatizazioa izan, baina bizitzen ari garen osasun-larrialdiaren egoera dela eta, langileek kalean lan egiteari utzi behar izan zioten eta langileak txandakatzen zirela. Gainera, langile batek baja hartu zuen, eta beste batek ere, arrisku handiko biztanlea zenez, baja hartu zuen. Horren ondorioz, lorategien egoerak okerrera egin zuen, eta belar kopuru handia izugarri hazi zen; beraz, asko zaildu zen lorategi horiek zaintzeko lana gure esku ditugun bitartekoekin. Gaineratu du horregatik pentsatu zela lana udalerriko bi autonomoei enkargatzea, biztanleak irten zitezkeenean, berdeguneak egoera onean topa zituzaten eta, aldi berean, bi autonomori lana emateko; izan ere, autonomoen sektoreak COVID-19 pandemiak eragindako krisia bortizki pairatu egin du.

- Itxialdiak iraun bitartean Aiara Zainduz taldearen lankidetzaz zergatik ez zen onartu argitzeko galdera.

Alkate jaunak erantzun du Gizarte Zerbitzuetako kideak beraiekin harremanetan jarri egin zirela.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du haiek esan zitetela bi telefono zenbaki eskaini zituzketela, eta horietako bat ere ez zela erabili haiekin harremanetan jartzeko.

Alkate jaunak azpimarratu du Gizarte Zerbitzuetako kideak beraiekin harremanetan jarri direla, baina ezin duela zehaztu zein harremanetarako telefono zenbakiren bidez. Erantsi du, hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzaren eta Aldundiaren programak erabiltzea aukeratu izan dela.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du talde horretako kideak boluntarioak direla eta beren zerbitzuak eskaini zituztela; beraz, ez du ulertzen zergatik ez zuten onartu beren lankidetzaz halako egoeran.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du pandemiaren lehen zatian mugimendua mugatuta zegoela, eta horregatik hartu behar izan zirela babes-neurriak.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du Aiara Zainduz taldeak laguntza-lanak, laguntza telematikoko lanak, eta bestelako lanak egiten zituztela eta tristeza iruditzen zaiola baliabide hori alferrik galdu izana.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) honako galdera hauek egin ditu:



- Aiaran zuntz optikoa hedatzeko prozesuari buruzko informazio eskaera egin du berriro ere, eta gaineratu du, espero duela oraingoan datuak benetakoak izango direla, aurrekoan ez bezala.
- Aurrekontuei dagokienez, galdetu du ea zer egoeratan dagoen bere izapidetzea, eta bere onarpena lortzeko bide legalak bilatzea proposatzen du.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Idazkaritzako txostena jaso zutela, zeinetan, haren ustez eta pandemiaren ondoriozko arautegiaren arabera, xedatzen den une horretan ez zirela aurrekontuaren onarpena eta epeak etetearen arautzea aldi berean egin behar.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) galdetu du, orain badakigunez diru-sarreraren beherakada egongo dela, Batzordeak jada jakinarazi duen aurrekontu-proiektu bera mantenduko den edo aldatu egingo den.

Alkate jaunak erantzun du diru-sarreraren beherakadaren ondorioz, aurrekontuak birmoldatu egin behar direla.

Bilkura amaitu baino lehen, bere zinegotzi aktari uko egin dion José Antonio Gorbea Alonso jaunari eskerrak eman zaizkio karguaz jabetuz geroztik egindako lanagatik, eta jakinarazten zaio atsegina handiz ibili izan dela Udalbatza berarekin lankidetzan.

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilkura amaitutzat eman du, arratsaldeko bederatzia eta hamar minutu direnean, eta nik, idazkariak, akta hau egin dut eta guztiaren fede eman dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeiko maiatzaren hogeita batean.

O. E.

ALKATEA-LEHENDAKARIA,

IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: M^a Del Carmen Rojo Pitillas.